



2/2022 Zirkularra, abenduaren 20koa, *Fiskaltzak ikerketa penalaren arloan prozesuz kanpo egiten duen jarduerari buruzkoa*

1. Sarrera. 2. Polizia Judiziala zuzentzea. 2.1 Polizia Judiziala zuzentzea prozesu aurreko polizia-ikerketan. 2.2 Polizia Judiziala zuzentzea prozesu judizialean. 3. Fiskaltzaren ikerketa-eginbideak. 3.1 Izena. 3.2 Ikerketa prospektiboak eta orokorrak debekatzea. 4. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak. 4.1 Xedea eta helburua. 4.2 Abiaraztea. 4.2.1 Salaketa erregistratzea eta banatzea. 4.2.2 Ikerketa judizial baten identitate objektiboa. 4.2.3 Salaketa anonimoak. 4.2.4 Autoinkulpazio masiboak. 4.2.5 Abiarazpen dekretua. 4.3 Eskumen objektiboa. 4.3.1 Irizpide orokorrak. 4.3.1.1 Arau orokorrak. 4.3.1.2 Fiskaltza bereziak eta Auzitegi Nazionalekoak. 4.3.1.3 Pertsona forudunak. 4.3.2 Atal espezializatuak. 4.3.3 Fiskal nagusien eskumena. 4.4 Lurralde-eskumena. 4.5 Europako Fiskaltzarekiko harremanak. 4.6 Prozesuz kanpoko bermeak. 4.7 Amaiera. 4.7.1 Printzipio orokorra. 4.7.2 Erabat artxibatzea. 4.7.3 Organo judizialera birbidaltzea. 4.7.4 Salaketa edo kereila jarrita amaitzea, edo zigorra ezartzeko proposamenari buruzko dekretua bidalita. 4.7.5 Amaitzea eta artxibatzea. 4.7.6 Artxibatzearen behin-behinekotasuna. 4.8 Eginbideak bertan behera uzteko betebeherra ez betetzearen ondorioak. 4.9 Delitu erdipublikoak eta pribatuak. 5. Ikerketa-eginbideak gauzatzea. 5.1 Susmagarriaren deklarazioa. 5.2 Argazki bidezko errekonozimenduak. 5.3 Taldeko identifikazio-saioak. 5.4 Begi-ikuskapenak. 5.5 Polizia-zaintzak eta -jarraipenak. 5.6 Dokumentazioa eta informazioa eskatzea. 5.7 Gardentasun-atarietarako sarbidea. 5.8 Iturri digital irekietarako sarbidea. 5.9 Partikularrek lortutako froga-iturriak. 5.10 Kazetaritza-informazioak. 5.11 Lekukoen deklarazioak. 5.12 Peritu-eginbideak. 5.13 Ezkutuko agentea eta entrega zaindua. 5.14 Gorpuak hobitik ateratzea. 6. Nazioarteko lankidetzak judiziala. 7. Kautela-neurriak. 7.1 Irizpide orokorra. 7.2 Biltegi-sistema informatikoetan sartutako datuak edo informazioak segurtatzeko neurriak. 8. Ikerketa-eginbide osagarriak. 8.1 Abiaraztea. 8.2 Xedea eta helburua. 8.3 Amaitzea. 9. Prozesu osteko ikerketa-eginbideak. 9.1 Abiaraztea. 9.2 Xedea eta helburua. 9.3 Amaitzea. 10. Prozesuz kanpoko bermeak: ikerketa-eginbide osagarriak eta prozesu ostekoak. 11. Ikerketa-eginbideen iraupena. 12. Fiskaltzaren egintzen forma. 13. Lekukotza administrazio-agintariei bidaltzea. 14. Ikerketa-eginbideen balioa. 15. Fiskaltzaren ebazpenen aurkako errekursoak. 16. Pertsonatzea, komunikazioak eta jarduketetarako sarbidea. 16.1 Pertsonatzea. 16.2 Hirugarrenei egindako komunikazioak. 16.3 Hirugarrenak jarduketetara sartzea. 16.4 Biktimen, pertsona susmagarrien, lekukoen eta perituen datuen tratamendua. 17. Datu pertsonalak babesteko eskubidea. 18. Fiskalen laguntzak. 19. Fiskaltzako laguntzaileak. 20. Klausula iragankorra. 21. Klausula indargabetzailea. 22. Ondorioak.



AURKIBIDEA

1. Sarrera	6
2. Polizia Judiziala zuzentzea	9
2.1 Polizia Judiziala zuzentzea prozesuz kanpoko polizia-ikerketan	9
2.2 Polizia Judiziala zuzentzea prozesu judizialean	15
3. Fiskaltzaren ikerketa-eginbideak	17
3.1 Izena	18
3.2 Ikerketa prospektiboak eta orokorrak debekatzea	21
4. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak	23
4.1 Xedea eta helburua	23
4.2 Abiaraztea	28
4.2.1 Salaketa erregistratzea eta banatzea	28
4.2.2 Ikerketa judizial baten identitate objektiboa	32
4.2.3 Salaketa anonimoak.....	33
4.2.4 Autoinkulpazio masiboak.....	35
4.2.5 Abiarazpen-dekretua	36
4.3 Eskumen objektiboa	38
4.3.1 Irizpide orokorrak	38
4.3.1.1 Arau orokorrak	38
4.3.1.2 Fiskaltza bereziak eta Auzitegi Nazionalekoak	42
4.3.1.3 Pertsona forudunak.....	43
4.3.2 Atal espezializatuak.....	46
4.3.3 Fiskal nagusien eskumena	52
4.4 Lurralde-eskumena.....	53
4.5 Europako Fiskaltzarekiko harremanak.....	57
4.6 Prozesuz kanpoko bermeak	59
4.7 Amaitzea.....	66
4.7.1 Printzipio orokorra	66



4.7.2 Erabat artxibatzea	66
4.7.3 Organo judizialera birbidaltzea	67
4.7.4 Salaketa edo kereila jarrita amaitzea, edo zigorra ezartzeko proposamenari buruzko dekretua bidalita	69
4.7.5 Amaitzea eta artxibatzea	77
4.7.6 Artxibatzearen behin-behinekotasuna.....	80
4.8 Eginbideak bertan behera uzteko betebeharra ez betetzearen ondorioak	82
4.9 Delitu erdipublikoak eta pribatuak.....	83
5. Ikerketa-eginbideak gauzatzea	86
5.1 Susmagariaren deklarazioa.....	87
5.2 Argazki bidezko errekonozimenduak.....	93
5.3 Taldeko identifikazio-saioak.....	95
5.4 Begi-ikuskapenak	98
5.5 Polizia-zaintzak eta -jarraipenak.....	100
5.6 Dokumentazioa eta informazioa eskatzea	103
5.7 Gardentasun-atarietarako sarbidea	109
5.8 Iturri digital irekietarako sarbidea.....	111
5.9 Partikularrek lortutako froga-iturriak.....	112
5.10 Kazetaritza-informazioak	114
5.11 Lekukoen deklarazioak.....	115
5.12 Peritu-eginbideak.....	120
5.13 Ezkutuko agentea eta entrega zaindua	121
5.14 Gorpuak hobitik ateratzea.....	123
6. Nazioarteko lankidetzak judiziala	124
7. Kautela-neurriak	128
7.1 Irizpide orokorra	128
7.2 Biltegi-sistema informatikoetan sartutako datuak edo informazioak segurtatzeko neurriak	129



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

8. Ikerketa-eginbide osagarriak	131
8.1 Abiaraztea	131
8.2 Xedea eta helburua	133
8.3 Amaitzea	138
9. Prozesu osteko ikerketa-eginbideak	139
9.1 Abiaraztea	139
9.2 Xedea eta helburua	141
9.3 Amaitzea	144
10. Prozesuz kanpoko bermeak: ikerketa-eginbide osagarriak eta prozesu ostekoak 145	
11. Ikerketa-eginbideen iraupena	148
12. Fiskaltzaren egintzen forma	157
13. Lekukotza administrazio-agintariei bidaltzea	160
14. Ikerketa-eginbideen balioa	163
15. Fiskaltzaren ebazpenen aurkako errekursoak	165
16. Pertsonatzea, komunikazioak eta jarduketetarako sarbidea	166
16.1 Pertsonatzea	166
16.2 Hirugarrenei egindako komunikazioak.....	167
16.3 Hirugarrenak jarduketetara sartzea	169
16.4 Biktimen, susmagarren, lekukoen eta perituen datuen tratamendua	178
17. Datu pertsonalak babesteko eskubidea	180
18. Fiskalen laguntzak	187
19. Fiskaltzako laguntzaileak	189
20. Klausula iragankorra	190
21. Klausula indargabetzailea	191
22. Ondorioak	192
A. Printzipio gidariak	192
B. Polizia Judiziala zuzentzea prozesu aurreko fasean	193
C. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak.....	195



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

D. Ikerketa-eginbide osagarriak	215
E. Prozesu osteko ikerketa-eginbideak	217
F. Ikerketa-eginbideen iraupena	219
G. Fiskaltzaren egintzen forma	221
H. Lekukotza administrazio-agintariei bidaltzea	223
I. Fiskaltzaren egintzen forma	224
J. Fiskaltzaren ebazpenen aurkako errekurtsioak	224
K. Pertsonatzea, komunikazioak, hirugarrenak jarduketetara sartzea eta datuen babesa	225
L. Fiskalen laguntzak	230



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

1. Sarrera

Gure ordenamendu juridikoak oso gutxi arautzen du Fiskaltzak ikerketa penalaren arloan prozesuz kanpo egiten duen jarduera. Gaiari zeharka heltzen dioten zenbait arau isolaturen kalte gabe (adibidez, Polizia Judiziala arautzen duen ekainaren 19ko 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikulua; Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 35. artikulua; Fiskaltzaren Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 3ko 305/2022 Errege Dekretuaren 9. artikulua), Fiskaltzaren prozesuz kanpoko jarduera penalaren arau-esparrua Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulura eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773. artikulura mugatzen da, eta manu horiek gutxieneko jarraibide batzuk zehazten dituzte jarduera horren eduki eta mugei buruz, baita inspiratzen dituzten printzipioei buruz ere.

Fiskaltza bere ikerketa-eginbideen bidez prozesuz kanpo garatzen ari den jarduera da aurrelegegileak azken urteetan sustatu nahi duen eredu prozesalaren atarikoak, eta, eginahal horretan, instrukzio judizialaren ordean, Fiskaltzak zuzendutako prozesuz kanpoko ikerketa bultzatu nahi du. Horren adierazgarri garbiak dira 2011ko eta 2020ko Prozedura Kriminalaren Legearen aurreproiektuak eta 2013ko Zigor Kode Prozesalaren proposamena. Justizia penalaren sistema zuzenbide konparatuaren eredu hurbilenekin eta Europako Fiskaltzak ikerketarako duen prozedura bereziarekin uztartzeko behar den esperotako erreforma prozesala ezartzeko, beharrezkoa izango da Espainiako Fiskaltza baldintza egokienetan aritzea, bere gain hartzeko ikerketa penalaren zuzendaritzaren erronka. Hori dela eta, beharrezkoa da Espainiako fiskalek doktrina-tresna zorrotz eta sistematizatu bat izatea, ikerketa-jarduera hori Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin eta probintzia-azitegien azken ebazpenekin bat etorri garatu ahal izateko.



Era berean, auzitegi-jardunaren analisiak agerian uzten du irizpide-batasuna bermatzen lagunduko duten jarraibideak ezarri behar direla; izan ere, arlo horrek garrantzi handia izan arren, fiskalek beti ez dute jokatzeko modu uniformean.

Gaur egun, Estatuko Fiskaltza Nagusiak doktrina sendo bat du Fiskaltzaren ikerketa-eginbide izenekoei buruz. Zehazki, arau-tresna hauek nabarmentzen dira:

- i) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 Zirkularra, *abenduaren 28ko 7/1988 Lege Organikoaren bidez sartutako prozedura laburtuari buruzkoa.*
- ii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1995 Instrukzioa, *drogaren aurkako fiskal bereziek lurraldeetan dituzten eskuduntzei eta eskumenei buruzkoa.*
- iii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/1995 Kontsulta, *fiskalaren ikerketa-eginbideei buruzko bi gairi buruzkoa: xedea eta nahi den zorrozatasun-eskakizuna.*
- iv) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2005 Kontsulta, *forudunei eragiten dieten ikerketa-eginbideak izapidetzeko fiskaltzek duten eskumenari buruzkoa.*
- v) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 11/2005 Instrukzioa, *Espainiako Konstituzioaren 124. artikuluan ezarritako jarduera-batasunaren printzipioaren instrumentalizazioari buruzkoa.*
- vi) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 12/2005 Instrukzioa, *drogen legez kanpoko trafikoa prebenitzeko eta zigortzeko Fiskaltza Bereziari eta haren fiskal delegatuei buruzkoa.*
- vii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2006 Instrukzioa, *ustelkeriarekin lotutako delitu ekonomikoak zigortzeko Fiskaltza Bereziaren eskuduntzei eta antolaketari buruzkoa eta delinkuentzia antolatuan adituak diren fiskalen jardunari buruzkoa.*
- viii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2008 Instrukzioa, *Fiskaltzak Polizia Judizialaren jarduerak zuzentzeari buruzkoa.*



- ix) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2012 Zirkularra, *adingabe jaioberriak lapurtzeko prozeduretan irizpideak bateratzeari buruzkoa.*
- x) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2013 Instrukzioa, *kalamu-kontsumoa sustatzen duten elkarteei buruzko zenbait gairi buruzkoa.*
- xi) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2013 Zirkularra, *ikerketa-eginbideei buruzkoa.*
- xii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2015 Kontsulta, *interes legitimoa argudiatzen duenak ikerketa-eginbideetan egin dena eskuratzeari buruzkoa.*
- xiii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2018 Zirkularra, *prozesu penaletan ikertu diren pertsonen informazio-eskubideari buruzkoa.*
- xiv) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2021 Zirkularra, *Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua ikerketa judizialaren epeei buruzkoa.*

Prozesu aurreko ikerketa-eginbideei emandako arreta nabarmena ez dator bat Fiskaltzaren prozesuz kanpoko beste jarduera batzuek orain arte jaso duten tratamendu eskasarekin.

Horregatik, gomendagarria da tratamendu unitario eta sistematikoa ematea Fiskaltzaren prozesutik kanpoko jarduera-moduei, gaur egun gai horren inguruan dagoen doktrina-garapen sakabanatua arintzeko. Zeregin horretarako, agiri hauetan jasotako irizpideak berrikusi eta eguneratu behar dira: Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2013 Zirkularra, *ikerketa-eginbideei buruzkoa*; Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2015 Kontsulta, *interes legitimoa argudiatzen duenak ikerketa-eginbideetan egin dena eskuratzeari buruzkoa*; eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/1995 Kontsulta, *fiskalaren ikerketa-eginbideei buruzko bi gairi buruzkoa: xedea eta nahi den zorroztasun-eskakizuna*. Araugintza-tresna horiek orain indargabetu egiten dira, hargatik eragotzi gabe indarrean egotea Estatuko Fiskaltza Nagusiaren gainerako kontsulta, jarraibide eta zirkularrak, dokumentu honek berariaz ukitzen ez dituen gaietan.



Zehaztu behar da, halaber, zirkular honetan ezarritako irizpideak Fiskaltza Juridiko-Militarraren jarduerari ere aplikatu behar zaizkiola; izan ere, Prozesu Militarrari buruzko apirilaren 13ko 2/1989 Lege Organikoaren 123. artikuluan jasotako aldez aurreko ikerketarako araubidea baliokidea da Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikuluan eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikuluan jasotakoarekin.

Aitzitik, zirkular honen aplikazio-eremuaren barruan ez dira sartzen hamalau urtetik gorakoek eta hemezortzi urtetik beherakoek egindako delitu-egitateak xede dituzten ikerketak. Horien ikerketa-prozedura, kasu guztietan ere, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen *urtarrilaren* 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 16. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakora egokituko da.

2. Polizia Judiziala zuzentzea

2.1 Polizia Judiziala zuzentzea prozesu aurreko polizia-ikerketan

Polizia judizialak eskumena du ikerketak egiteko, Fiskaltzak ikerketa-eginbideak abiarazi aurretik. Horregatik, komeni da Polizia Judizialaren eta Fiskaltzaren arteko harremanak aztertzea prozesuaren aurreko fase horretan, beharrezkoa den jardun-batasuna bermatze aldera.

Polizia Judizialaren prozesu aurreko jarduerak garrantzi nabarmena du gure zigor-arloko ikerketa-sistema osoan. Esperientziak erakutsi duenez, prozedura hori hedatzeko moduak baldintzatu egiten ditu bai prozedura penala hasteko aukerak, bai gerora izango duen bilakaera.



Ikuspegi teorikotik, organo judizialari dagokio prozesu penalaria hasiera eman ondoren gertatzen diren objektu prozesala mugatzea eta ikerketa kriminala zuzentzea; hori hala izanik ere, nabarmena da polizia judizialaren prozesu aurreko jarduerak horretan guztian duen eragina. Egitate kriminalaren berri epaitegi eta auzitegietan aurkezteko moduak, egitate zigorgarria eta prozeduraren subjektu pasiboak zehazteaz gainera, instrukzioaz arduratzen den organoaren ikerketa-ildo bera ere baldintzatzen du.

Espainiako Konstituzioaren 126. artikulua ezartzen duenez, «Polizia judiziala epaile, auzitegi eta Fiskaltzaren mende dago legeak finkatzen duenaren arabera, delituak ikertzeko funtzioetan, eta delitugilea aurkitu eta segurtatzekoetan». Konstituzioaren aurreikuspen horrek, Polizia Judizialak Fiskaltzarekiko duen mendekotasun funtzionala finkatzeaz gainera, laguntzen du mendekotasun hori nola egituratu behar den mugatzen ere.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/1998 eta 1/2008 Instrukzioek eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 Zirkularrak gure ordenamendu juridikoan aurreikusitako Polizia Judizialaren eredia aztertzen dute, eta jarraibideak ematen dituzte Polizia Judizialaren zuzendaritza bideratzeko moduari buruz, bereziki frogaiturri eta -bitartekoei eskaini behar zaien tratamenduari dagokionez, horiek balioz eta eraginkortasunez lortzen direla eta prozesu penalean sartzen direla bermatzeko. Ildo horretan, abenduaren 28ko 7/1988 Lege Organikoak txertaturiko prozedura laburtuari buruzko Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 Zirkularrak hau azaltzen du:

(...) bai polizia-ikerketa zuzentzea, bai eginbide zehatzak gauzatzea hari eskuordetzan emateak, ezin du eragin fiskala poliziaburu bihurtzea, ez eta eskuordetza hori eskuordetza horren ekintza aserako baimena izatea ere, fiskala polizia-jardueren homologatzaile hutsa izan dadin. Horregatik, kasu batean zein bestean, fiskalaren jarraibideek ahalik eta zehatzenak izan behar dute, eta mugatu egin behar da



jarduera eta azpimarratu behar da, orobat, Fiskaltzaren titulartasuna ikerketaren zuzendari edo sustatzaile gisa, baina betiere dagokion arloaren edukia alde batera utzita: polizia judizialari dagokio tokian tokiko ikerketa-jarduera, adituak diren ikerketa zientifiko eta praktikoko teknikak erabiliz; fiskalari, berriz, froga-iturri eta -bitartekoak izan daitezkeen elementu eta alderdien zehaztapen juridikoa, eta horien baliozkotasun formalerako eta prozesalerako baldintzak, eta horiek betetzea sustatu eta are inposatu beharko du polizia-ikerketan.

Polizia Judizialak epaileekiko, auzitegiekiko eta Fiskaltzarekiko duen mendekotasunari buruz gure legedian behin eta berriz aipatzen diren arren (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 548. artikulua. *Segurtasun Indar eta Kidegoei* buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 31. artikulua; *Polizia Judizialari* buruzko ekainaren 19ko 769/1987 Errege Dekretuaren 6. eta 10. artikulua), egia esan, prozesuz kanpoko mailan mendekotasun funtzional hori Fiskaltzarena baino ez da, jarduera jurisdikzionala esparru prozesal hertsian baino ezin baita garatu.

Hala ondorioztatzen da argi eta garbi *Polizia Judiziala arautzen duen* ekainaren 19ko 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikulua hitzez hitzeko edukitik:

Polizia Judizialeko unitate organikoetako funtzionarioek ustezko delitu-kasu bati formalki zehaztutako ikerketa kriminaleko eginbideak egiten dituztenean, baina dagokion jarduketa judiziala ireki aurretik, Fiskaltzaren mende jardungo dute. Horretarako, beren ikerketen berri emango diote dagokion fiskaltzari, eta fiskaltza horrek noiznahi arduratu ahal izango du haiek zuzentzeaz; kasu horretan, polizia judizialeko kideek haien mende jardungo dute zuzenean, eta atzerapenik gabe gauzatuko dituzte fiskalak delitua ikertzeko eta delitugilea aurkitu eta segurtatzeko agintzen dizkien eginbideak.



Transkribatutako manuak, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 Zirkularrak adierazten duen bezala, honako hau ondorioztatzeko aukera ematen du: «Prozesu aurreko ikerketa-fase osoan fiskala da nagusi, bai bere ikerketa-

jardueraren bidez, bai polizia-ikerketa zuzentzearen bidez», eta agindu eta jarraibide orokor edo partikular egokien bidez artikulatu behar da, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 4.4 eta 5.2 artikuluek eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773.1 artikulua jasotzen dutenaren ildotik.

Beraz, prozesuaren aurreko ikerketa-fasean, Fiskaltzak jarraibide orokorrak eman ahal izango dizkie Polizia Judizialeko unitateei, jarraitu beharreko ikerketa-irizpideei, jarduteko moduei, ikerketen koordinazioari eta antzeko beste alderdi batzuei buruz, eta horiek fiskalburuek emango dituzte, zeinek bere eskumen-eremuan.

Jarraibide orokorrek autonomia-erkidego bereko hainbat probintziatako polizia-unitateei eragiten dietenean, fiskal nagusiek emango dituzte.

Aldez aurretik Estatuko Fiskaltza Nagusiaren iritzipean jarri beharko da jarraibide orokorrak formulatzea, garrantzi berezia eta eragin juridikoa kontuan hartuta, eta, bereziki, Fiskaltzaren jarduera-batasuna sustatzeko bokazioa lurralde nazional osoan (Espainiako Konstituzioaren 124.2 artikulua eta Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 2. artikulua).

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. eta 22. artikuluen arabera, salako fiskalek —koordinatzaileek eta delegatuek, bakoitzak bere espezialitatearen esparruan— polizia judizialeko unitateei zuzendutako zirkularrak eta jarraibide orokorrak onartzea proposatu ahal izango diote Estatuko fiskal nagusiari. Horiek onartzen direnean, salako fiskalak emango ditu zuzenean, edo, halakorik ezean, atal espezializatuetakoa lurralde-ordezkariek. Hala ere,



azken horiek jarraibide horiek beren jarduera-eremuan dauden polizia-unitateei helaraztera mugatuko dira.

Fiskalak gaiturik daude polizia-ikerketaren zuzendaritza beren gain hartzeko, edozein mailatan daudela ere ikerketok. Horretarako, prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiaraziko dituzte, eta polizia judizialari lagundu ahal izango diote. Aldiz, fiskalek ezin izango dute eman abiarazitako polizia-ikerketei buruzko jarraibide edo agindu partikularrik, aurretik ikerketa-eginbideak abiarazi gabe.

Polizia Judiziala arautzen duen ekainaren 19ko 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikulua benetan betetzen dela bermatzeko, *Fiskaltzari eta Polizia Judizialari* buruzko Estatuko Abokatutza Nagusiaren 2/1988 Instrukzioak ezarri zuen fiskalburuek gutxienez astero jardun beharko zutela Polizia Judizialeko probintziako unitate organikoetako buruekin, manu horretan aipatzen den informazioa eman ziezaieten eta jarduteko jarraibide egokiak eman zitzaten.

Geroago, *Fiskaltzak Polizia Judizialaren jarduerak* zuzentzeari buruzko Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2008 Instrukzioak honako hau adierazi zuen: «Askotan geratu da agerian ezinezkoa dela gai horiek hain aldizkakotasun zorrotzarekin bideratzea probintziako fiskalburuen eta Polizia Judizialeko unitate organikoetako arduradunen artean —bai eta ez dela eraginkorra ere—; hori horrela izanik, bidezkoa da malgutzea, eta, hala, dagokion informazioa garaiz helarazteko behar den adinako maiztasunarekin ezarri behar da, fiskalei ikerketaren garapen juridiko egokirako beharrezkoak diren jarraibideak eman ahal izateko. Fiskal nagusiek, ikuskatzeko dituzten ahalmenen bidez, adierazitako aldizkako lana egiaztatuko dute».



Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2008 Instrukzioan jasotako irizpide horiek ez dira izan eraginkorrak, eta, ondorioz, ez dute eduki eraginik 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikuluan jasotako aurreikuspenei dagokienez. Egoera hori zuzendu egin behar da, Fiskaltzak prozesu aurreko ikerketa-fase osoa modu eraginkorrean zuzendu ahal izateko jarduketa-jarraibideak ezarriz, gure ordenamendu juridikoak eskatzen duen bezala.

769/1987 Errege Dekretuko 20. artikuluko aurreikuspenak betetzeko gaur egun diren zailtasun ukaezinek ez dute baimentzen manu horrek Fiskaltzari ezartzen dizkion betebeharrak saihestea. Hori dela eta, dagozkien buruzagitzei dagokie kasuan-kasuan, dagozkien fiskaltzen inguruabar zehatzak kontuan hartuta, polizia judizialak jakinarazitako prozedura-harremanei eman beharreko tratamendua zehaztu ahal izateko mekanismoak antolatzea.

Ondorioz, probintziako eta arloko fiskalburuek mekanismoak antolatuko dituzte kasu bakoitzean, fiskaltzen ezaugarriak eta berezitasunak kontuan hartuta, Polizia Judizialak 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikulua araberan nahitaez eman behar dituen kontuak nola eman behar diren zehazteko. Nolanahi ere, ahaleginak egingo dituzte abian diren eta garrantzi berezia duten ikerketak aldian-aldian jakinarazteko, Fiskaltzak bere gain har dezan ikerketa horien zuzendaritza, polizia-ikerketak itxi aurretik prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiaraziz, eta, hala badagokio, atestatua organo judizialean aurkeztuz.

Orain aztertzen ari garen ondorioetarako, hainbat parametrok zehaztuko dute ikerketaren garrantzi berezia, eta, zehazki, honako hauek:

i) Ikertutako gertakarien astuntasuna, alarma soziala eta/edo garrantzi publikoa.

14

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

- ii) Susmagarriaren eta/edo biktimaren nabaritasun publikoa.
- iii) Susmagarria foruduna izatea.
- iv) Ikertutako egitatearen berritasuna edo berezitasuna.
- v) Biktima kopuru handia.

Nolanahi ere, garrantzi berezikotzat joko dira agintari edo funtzionario publikoek kargua betetzean ustez egindako delituak xede dituzten ikerketak —Zigor Kodearen 24. eta 427. artikuluetan jasoak—.

Fiskal nagusiek eta Ikuskaritza Fiskalak, ikuskatzeko ahalmenen bidez,

buruzagitzek ezarritako mekanismoak egiaztatuko dituzte, polizia judizialeko unitateekin komunikazio-bide arinak, efizienteak eta eraginkorrak artikulatzeko, eta, hartara, 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikuluan jasotako aurreikuspenak benetan eta zentzuz bete ahal izateko.

Aurreko gogoetek ez dute eragotzi behar, probintziako eta arloko fiskalburuei aldizka egiten zaien jakinarazpenaz aparte, gainerako fiskalek Polizia Judizialeko unitateekin beharrezkotzat jotzen dituzten komunikazio-bideak ezartzea; izan ere, jardunbide egokia eta are beharrezkoa da Fiskaltzaren atal espezializatuen kasuan.

2.2 Polizia Judiziala zuzentzea prozesu judizialean

Fiskaltzak Polizia Judizialaren jarduerak zuzentzeari buruzko Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2008 Instrukzioak, zeinaren bidez zehazten baitira auzi horri buruz Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 Zirkularrean (*Abenduaren 28ko 7/1988 Lege Organikoak sartutako prozedura laburtuari buruzkoa*) biltzen diren gogoetak, honako hau adierazten du:

15

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

[...] Ikerketa-eginbideak bertan behera uzteak planteatzen du ea fiskalak, prozedura judizial bat abian dela, polizia judizialari ikerketa-eginbideren bat egiteko edo froga-iturriak aurkezteko agindu diezaiokeen edo ez. Gai horri erantzuteko, fiskalak ezin izango du gertakariari buruzko beste ikerketa orokor bat hasi, baina egin ahal izango ditu eginbide zehatzak judizioz kanpo; izan ere, legeetan bertan ondorioztatzen da ahalmen hori, bai fiskalaren eskudantziei buruzko lege orokorretan, bai prozedura laburtua arautzen dutenetan. Ondorio gisa, argi dago fiskalak froga horiek aurkeztu ahal izateko alde aurretik lortu egin behar dituela eta, horretarako, froga horiek ikertu eta lortzeko mekanismoren bat erabili behar duela. Mekanismo hori bere jarduera edo Polizia Judizialaren laguntza besterik ezin da izan, haren mende baitago, bai Konstituzioaren arabera, bai legearen arabera.

Aurreko arrazoibideak errepikatu egiten dira Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2008 Instrukzioan (*fiskalaren instrukzio-faseko funtzioei buruzkoa*), honela errepikatu ere:

Azkenik, instrukzio-fasea arintzea lortzeko eginbehar horien barruan, fiskal jaun-andreek, beharrezkoa izanez gero, Polizia Judizialari eskatu ahal izango diote egin ditzala eginbide zehatzak, beharrezkotzat jotzen direnak eginbide judizialei geroago ekarpena egiteko. Azpimarratzekoa da, orobat, gaikuntza hori eginbide zehatzak gauzatzeari dagokiola ulertu behar dela, eta inola ere ezin dela ondorioztatu instrukzio judizialaren pareko ikerketa fiskalik. Legeak fiskalari ematen dion gaikuntza (ikusitako Prozedura Kriminalaren Legearen 773.1 artikulua eta 1/1989 Zirkularra) zehatziaz erabili beharko dira, behar bezala justifikatutako kasuetan, erraz ondoriozta baitaitezke hura gaizki erabiltzeak sor ditzakeen disfuntzioak eta bikoiztasunak.

Azken buruan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2008 Instrukzioak xedatzen duen bezala, prozedura judiziala izapidetzen den bitartean ere fiskalek Polizia Judizialari agindu ahal izango diote ikerketaren alderdi zehatzei buruzko eginbide zehatzak egiteko.



Hala ere, Fiskaltzaren jarduna inpartziala denez eta aurkakotasun- eta defentsaprintzipioak bete behar direnez, eginbide horiek ordenatu ondoren, beharrezkoa da fiskalek beren emaitza kausara ekartzea salbuespenik gabe, edozein izanda ere. Kontrakoa gure sistema prozesalean organo judizialari dagokion instrukzio-funtzioa saihesteko modu gisa interpreta daiteke.

3. Fiskaltzaren ikerketa-eginbideak

Nahiz eta zenbait paralelismo hauteman daitezkeen instrukzio-jarduera judizialaren eta Fiskaltzak bere ikerketa-eginbideak izapidetzean hedatutakoaren artean, bigarren hori argi eta garbi bereizten da prozesuz kanpoko izaeragatik.

Auzitegi Gorenaren 2017ko urtarrilaren 11ko 980/2016 Epaiak gogorarazten duenez, «gure sisteman indarrean dagoen eredu heterodoxoari malgutasun handiagoa esleitu nahi izan arren, egintza prozesalak, definizioz, izaera juridikzionala du. Jurisdikzio-organo batek bakarrik sor ditzake Prozedura Kriminalaren Legearen 741. artikulua aipatutako froga-balioespena osa dezaketen froga-egintzak. [...] Ikusmolde horren arabera, argi dago fiskalak izapidetutako eginbide batzuen esparruan egindako ikerketa-egintza bat, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773. artikulua babesean, frogageraginkortasun gehiagorik gabe esleitzeak haren benetako izaera eta funtzionaltasun predikagarria iraultzea ekarriko lukeela. Behin eta berriz esan dugunez, jurisdikzio-egintzak bakarrik sar daitezke organo erabakitzailearen froga-balioespenean». Horregatik, hain zuzen ere, Fiskaltzak ikerketa-eginbideak hasteak ez du eraginkortasunik delituaren preskripzioa eteteko (ikusi Auzitegi Gorenaren 228/2013 Epai, martxoaren 22koa, eta 228/2015 Epai, apirilaren 21ekoa).

Ministerio Publikoaren ikerketa-eginbideak prozesuz kanpokoak direnez, zirkular honetan tratatzen diren hainbat ondorio atera daitezke.



3.1 Izena

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren ikerketa-eginbideei buruzko 4/2013 Zirkularrak bateratu egin zuen Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikulua «ikerketa-eginbideak» esamoldearekin araututako prozesu aurreko ikerketa-prozedurari eskainitako izena.

Zirkular hartan adierazitakoaren arabera, «izen horrek balio erantsia du aurreko jarduketa horiek instrukzio-fasetik bereizteko, orain arte instrukzio-epaileei, instrukzio-zentralei eta genero-indarkeriaren arloko epaileei bakarrik agindu zaienetik bereizteko. Aldi berean, aukera ematen du eginbide horiek eta beste batzuk bereizteko, prozesuz kanpoko fiskalak egiten dituenak ez baitira penalak.

Zigor-garrantzia izan dezaketen egitateen berri jasotzen denean, edozein dela ere *notitia criminis* fiskalarengana iristeko bidea, ikerketa-eginbideak hasi beharko dira, eta haien betekizun eta eskakizunetara egokitu. Fiskal jaun-andreek, kasu horietan, ez dute abiarazi beharko prozesu aurreko eginbiderik».

Fiskaltzaren Erregelamendua onesten duen maiatzaren 3ko 305/2022 Errege Dekretuaren 9. artikulua araberak, Ministerio Publikoak hiru prozedura mota izapidetu ahal izango ditu: «1. Ikerketa-eginbideak, egitate batek garrantzi penala duen ikertzea xede dutenak. 2. Prozesu aurreko eginbideak, ordenamendu juridikoak Fiskaltzari esleitzen dizkion gainerako eginkizunak gauzatzera bideratuak. 3. Gobernu-espedituek, Fiskaltzaren barne-antolaketarekin, fiskalen administrazio-bizitzarekin eta aurreko apartatuetan jaso gabeko beste batzuekin loturiko auziak antolatzekoak, betiere diziplina-araubideari buruzko IX. tituluaren aurreikusitako prozedura espezifikoaren kalte gabe».



Fiskaltzaren Erregelamenduaren 9.1 artikulua ez ditu mugatzen Fiskaltzaren ikerketa-eginbideak prozesuaren aurre-aurreko planora, Fiskaltzaren prozesuz kanpoko jardura ez baita prozesu aurreko ikerketan agortzen. Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 3.5 artikulutik eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773.1 artikulutik ondorioztatzen den bezala, jardura hori ez da mugatzen zigor-arloko prozesua hasi aurretik Ministerio Publikoak egin dezakeenera. Ildo horretan, Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua ikerketa judizialaren epeei buruzko Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2021 Zirkularrak jada adierazten zuen fiskalak erabat ahaldunduta daudela ordenamendu juridikoak prozesutik kanpoko jardura egiteko prozedura judiziala izapidetzen den bitartean (ikusitako Auzitegi Gorenaren apirilaren 21eko 228/2015 Epaia; eta apirilaren 23ko 211/2019 Epaia), bai eta behin-behinean artxibatu ondoren ere.

Prozesuz kanpoko bi jardura-modalitate horiek interes txikia sortu dute doktrinan eta jurisprudenzian, eta, horren ondorioz, orain arte ez dago izenik ematen dien

terminorik ere. Gabezia hori azaltzeko, neurri handi batean, oso zabaldurik dagoen uste batera jo behar da; hau da, Fiskaltzak prozesuz kanpoko prozesu aurreko jarduera bakarrik egin dezakeela.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 Zirkularrean eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2008 Instrukzioan adierazten den bezala, Fiskaltzak ezin izango du gertakariei buruzko beste ikerketa orokor bat hasi hasitako prozesu judizial batean, baina bai ikerketaren helburuetarako beharrezkotzat jotzen dituen eginbide zehatzak prozesutik kanpo egin.

Era berean, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 eta 1/2021 zirkularrek onartzen dute Fiskaltzak, prozedura behin-behinean artxibatu ondoren, aukera duela ikerketak egiteko, berriro ireki ahal izateko.



Horrenbestez, ondoriozta daiteke Ministerio Publikoak legez ahalmena duela ikerketa-eginbideak egiteko zigor-arloko prozesua hasi aurretik, izapidetzen ari den bitartean eta behin-behinean artxibatu ondoren.

Fiskaltzaren prozesuz kanpoko jarduera-modalitate bakoitzaren araubide juridiko desberdinak eta azalpen-arrazoiak eta arrazoi sistematikoak direla medio, komeni da ikerketa-modalitate horietako bakoitzari izendapen berezi bat ematea, kontzeptu-nahasketak saihesteko.

Hori dela eta, fiskalek terminologia hau erabiliko dute prozesuz kanpoko ikerketa-eginbideak hasten diren unearen arabera:

i) «Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak», prozedura judiziala hasi aurretik egindakoei buruzkoak.

ii) «Ikerketa-eginbide osagarriak», prozedura judiziala izapidetzen den bitartean egindakoei buruzkoak.

iii) «Prozesu osteko ikerketa-eginbideak», jardun judizialen behin-behineko artxibatzearen ondoren egiten direnak aipatzeko.

Fiskaltzak delitu bat eta haren erantzuleen identitatea ikertzeko prozesuz kanpoko jarduera oro ikerketa-eginbideen prozedura baten barruan gauzatu beharko da, salbuespenik gabe (izan prozesu aurrekoa, osagarria edo prozesu ostekoa), eta zirkular honetan emandako jarraibideetara egokituko da beti.

Alferrikakoa da ikerketa-eginbideen izaera penala aipatzea, berezkoa baitute tasun hori. Hori dela eta,

20

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

lurralde osoan tratamendu bateratua bermatzeko, fiskalek ez dute erabiliko ikerketa *penaleko* eginbideak terminoa, eta, beraz, «ikerketa-eginbide» gisa baino ez dira aipatuko.

Prozesu aurreko eginbide hutsak, zehaztugabeak, informatiboak, gobernuoak edo, oro har, antzeko beste edozein eginbide ez dira baliozko prozedura-esparrua delitua eta haren erantzuleak ikertzera bideratutako jarduketak egiteko, eta baztertu egin beharko dira legezko bideak eta tresnak ordeztuko saio guztiak.

Azkenik, azpimarratzekoa da zer dioen Fiskaltzaren Erregelamenduaren 9.1 artikulua; hau da, ikerketa-eginbideen xedea dela egitate batek garrantzi kriminala ote duen ikertzea. Horregatik, saihestu egin behar da izen hori erabiltzea prozesuz kanpoko beste edozein jarduera aipatzeko, barnean harturik kontabilitateko, administrazioko edo diziplinazko balizko erantzukizunak ikertzea xede dutenak.

3.2 Ikerketa prospektiboak eta orokorrak debekatzea

Fiskalek ez dute abiaraziko ikerketa orokorrik, baldin eta, delitu-egitate jakin bat jazarri orde, xede bakarra bada delitugile arriskutsutzat edo potentzialtzat jotzen diren pertsona baten edo batzuen jokabidea edo jarduera ikertzea, edo haien aurrekariak edo bizimodua, izan egungoa, izan iraganekoa (ikusi Auzitegi Gorenaren 795/2016 Epaia, urriaren 25ekoa; 144/2015 Epaia, urriaren 13koa; 288/2013 Epaia, martxoaren 22koa; eta 174/2001 Epaia, uztailaren 26koa).

Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 11ko 980/2016 Epaiak ezartzen du Fiskaltzaren ikerketa-eginbideek izaera instrumental hutsa dutela, *prestatze-lana prestatzea* baitute helburu, haien eginkizun nagusia baita albiste kriminalak prozesu penal bat abiaraztea justifikatzen duen egiaztatzea.

21

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Horregatik, Auzitegi Gorenaren urriaren 13ko 521/2015 Epaiak azaltzen duenez, fiskalak prozesu aurreko ikerketak egitea eskatu behar duela iradokitzen duten zantzuak ezin dira parekatu prozedura judicial bat hasteko behar direnekin:

Egia esan, fiskalak modu generiko samarrean aktibatu zuen ikerketa, delitu izan zitezkeen emisio debekatuak modu nahiko orokorrean gertatzen ari zirela biziki iradokitzen zuten datuen aurrean. Hasierako albistea sinatu gabeko idazki batetik ateratzeak ez dakar abian jarritako ikerketen baliogabetasuna, idazki anonimoaren edukiaren funtsa egiaztatzean (ikusi Auzitegi Gorenaren 318/2013 Epaia, apirilaren 11koa, Fiskaltzak bere txosten baliotsuan gogorarazten duena). Egiaztapen horiek ez dute deskalifikatzen fiskalaren ikerketa bat, eta ez dute bihurtzen inquisitio generalis ere, ikuskapen- edo kontrol-jarduerak (adibidez, aireportuetan) edo administrazio-kontrolaren edo bestelako ikuskapen-jardueren mende dauden era guztietako zentroetako bisitak edo gainbegiratzeak ere ez diren bezalaxe. Salaketa anonimo orokor horrek ezingo luke balio delitu-zantzu zehatz batzuen ondorioa izan behar duen auzi judicial penala abiarazteko. Alabaina, ez da gauza bera fiskalaren prozesuz kanpoko jarduera bat, zeinaren segurtasun-indar eta -kidegoak gidatzeko ahalmenak ezin baitira eztabaidatu. Ondorio horietarako, ezin dira parekatu prozedura judiciala eta Fiskaltzaren eginbideak.

Fiskaltzaren eta Polizia Judizialaren prozesuz kanpoko jardueraren xedea da frogaiturriak lortzea —kasuaren arabera, ondoren prozesu judizial bat hasteko aukera emango dutenak— eta helburu hori bat dator 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikuluan jasotakoarekin, zeinaren arabera Fiskaltzak bere gain har baitezake haren zuzendaritza, polizia-ikerketak hasi direla jakinarazi ondoren.

Fiskaltzaren ikerketa-eginbideen izaera instrumentalak, jarduera-eremu mugatuak eta birtualtasun prozesal mugatuak agerian uzten dute alde kualitatibo handiak daudela jurisdikzio-jarduerari dagokionez.

22

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Auzitegi Gorenaren maiatzaren 4ko 314/2015 Epaiak adierazten duenez, «jurisprudentziak errefusaten duen prospekzioa da ikerketa-bitartekoak erabiltzen dituenak, delitu jakin bat jazartzeko ez, baizik eta delitu-ekintza potentzialak topatzeko». Konstituzio Auzitegiaren urriaren 23ko 184/2003 Epaiaren arabera, prospektibotzat jotzen dira «hipotesi hutsetan edo susmo huts eta soilean» oinarritzen diren ikerketak; hau da, balizko gutxienerako oinarri objektibo eta material egiaztagarriak ez dutenak.

Hori guztia dela eta, fiskalek ez dute izapidetuko ikerketa-eginbiderik baldin eta nabarmena bada jasotako delituaren albistearen seriotasunik eza, albiste hori oinarri objektiborik gabeko hipotesi hutsetan oinarritzen denean eta delitutzat hartzen ez diren egitateak xede dituztenean. Kasu horietan, fiskalek prozesu aurreko ikerketa-eginbideak hasi beharko dituzte, beren jardunerako prozedura-euskarri egokia eskaintzeko, eta dekretu berean eta modu arrazoituan erabaki beharko dute salaketa erabat artxibatzea, zirkular honen 4.7.2 epigrafean aurreikusitako baldintzetan.

4. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak

4.1 Helburua eta jomuga

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikulua irakurrita ondorioztatzen da Fiskaltzaren ikerketa-eginbideen xedea dela ezagutzen dituen delitu guztiak ikertzea —delitu pribatuak izan ezik—, eta fiskalak ahalmena duela beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak egiteko —oinarrizko eskubideak mugatzen dituztenak izan ezik, salbu eta atxiloketa prebentiboa—.

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/1995 Kontsultak honako hau xedatzen du: «Gure egungo sistema prozesalean, Fiskalaren ikerketa ez da ulertzen instrukzio judizialaren alternatiba gisa, horren aurreko aukera gisa baizik, eta ez du ordeztzen, nahiz eta sinplifikatu edo erraztu dezakeen. Idatzi den bezala, fiskalak, egungo sistema anbibalentean, ez ditu bere gain hartzen instrukziogilea ordeztea dakarten egiazko instrukzio-eginkizunak. Haren zereginak salaketak jaso, iragazi, transmititu eta ikertzeko organo bati dagozkio. Nolanahi ere, behar bezala erabilitako ahalmen horiek nabarmen lagun dezakete zigor-arloko justizia arintzen».

Instrukzio *judizialaren* eginkizun nagusia ahozko epaiketa prestatzea da, eta egitate zehagarria eta haren erantzuleak mugatzea. Auzitegi Gorenaren urriaren 11ko 669/2017 Epaiak gogorarazten duen bezala —ildo horretan bertan, ikusi Auzitegi Gorenaren 949/2006 Epaiak, urriaren 4koa, eta 747/2015 Epaiak, azaroaren 19koa—, «sumario-eginbideak delitua ikertzera eta delitugilea identifikatzera bideratutako ikerketa-egintzak dira (Prozedura Kriminalaren Legea, 299. artikulua), eta horiek ez dira berez egozketa-frogak, haien helburu espezifikoak ez baita egitateak behin betiko finkatzea, egitate horiek ebazpen judizialera igaro daitezkeen, baizik eta ahozko judizioa prestatzea, eta, horretarako, beharrezkoak diren elementuak ematea akusaziorako eta defentsarako, bai eta epaitegiari ere, aurkakotasun-eztabaida zuzentzeko».

Auzitegi Gorenaren urriaren 16ko 491/2019 Epaiaren arabera, «instrukzio-fasean gauzatutako eginbideak ahozko judizioaren irekierari buruzko erabakia

prestatzea eta frogabideak identifikatzea eta ziurtatzea ahalbidetzen duten ikerketa-bitartekoak baino ez dira, baina arau orokor horrek onartzen ditu salbuespenak, eta horiek modu murriztailean interpretatu behar dira, nahiz eta ezin zaien ukatu froga-balio oro —eta, nolana ere— sumario-eginbideei».

Jarduera judizialean ez bezala, Fiskaltzaren prozesu aurreko ikerketa-eginbideek ez dute ahozko epaiketa prestatzeko gaitasunik,

24

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

prozesuz kanpoko izaerak eragotzi egiten baitu oinarritzea, organo judizialak aldeztu aurretik prozesuan sartu gabe, tarteko faserako trantsizioa edo ahozko judizioaren hasiera.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 Zirkularrak eta 3/2004 Instrukzioak adierazten dutenez, «ikerketa-eginbideak polizia-atestatu soilaren eta ikerketa judizialaren arteko bidean daude [...]. Gainditu egiten dute 297. artikulua atestatuei ematen dien salaketa hutsaren izaera, baita lekukoaren deklarazioarena ere; akusazioa oinarritzeko balio informatiboan parte hartzen dute, instrukzio judizialari dagokion judizialera igarotzea erabakitzeko, baina ez dute instrukzio-epailearen aurrean aurkakotasunez egindako eginbideen froga-baliorik».

Azken batean, Fiskaltzaren ikerketa-eginbideek ez dute gaitasunik organo judizial instrukziogilearen jardura ordezkatzeko, haren xedea mugatuagoa baita. Instrukzio *judizialaren* aurrean, ikerketa-eginbideen xedea da fiskalak akzio penalaren erabilerari buruzko erabaki funtsatu bat hartu ahal izateko behar diren ikerketak egitea. Gure ordenamendu juridikoan, erabaki hori jurisdikzioarako eskubidearen (*ius ut procedatur*) berariazko adierazpen gisa ulertzen da, eta, beraz, baita Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikulua aldarrikatutako babes judizial eragingarrirako eskubidearen adierazpen gisa ere. Hauxe dio Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 11ko 980/2016 Epaiak (ildo beretik, ikusi Auzitegi Gorenaren 1394/2009 epaia, urtarrilaren 25ekoa):

[Prozesu aurreko ikerketa-eginbideek] agortu egiten dute bere funtzionaltasuna fiskalak salaketa artxibatzeko edo egokitzen jotzen dituen akzio penalen egikaritzea sustatzeko hartutako erabakiaren euskarri gisa balio dutenean. Ministerio Publikoak Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikularen eta Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikularen babesean gauzatutako ikerketa-eginbideek ezin dute haien izaera aldatu eta ezin dira bihurtu froga-egintza.

25

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Egintza prozesalaren kontzeptuak berak eragozten du, zeina oso loturik baitago benetako funtzio jurisdikzionala gauzatzeko oinarri diren konstituzio-printzipioetara.

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikuluko 1. eta 3. apartatuek Fiskaltzaren prozesu aurreko ikerketa-eginbideen xedea akzio penalaren egikaritzarekin lotzen dute, eta, horregatik, legegileak artxibatu egin behar ditu salaketak edo kereilak, haiek jartzea justifikatzen duen daturik edo elementurik ez dagoenean, edo beharrezkoa ez denean, jada prozedura judizial bat hasi delako.

Auzitegi Gorenaren abenduaren 19ko 882/2014 Epaiak adierazten duenez, Fiskaltzaren prozesu aurreko ikerketa-eginbideak «prozesu judiziala hasteko bide bat dira». Antzeko terminoetan, Auzitegi Gorenaren apirilaren 21eko 228/2015 Epaiak gogorarazten du Ministerio Publikoaren jardura ez dela «jurisdikzio-funtzio bat, baizik eta organo jurisdikzionalaren aurrean ekintza artikulatzeko prestatze-funtzio bat».

Aurreko argudioek aukera ematen dute azaltzeko zergatik legegileak ez duen aurrekusi Fiskaltzaren eginbideak sekretutzat jotzeko aukera, edo zein arrazoiengatik ez zaion zilegi kautelazko neurriak hartzea, neurri horiek benetakoak izanda ere; izan ere, bi kasuetan, horiek hartzeko oinarri gisa jartzen diren kriminalitate-zantzuak aurkitzeak eragin du akzio penala egikaritzea.

Hori dela eta, fiskalek akzio penala egikaritzea justifikatzen duten kriminalitate-zantzu arrazional eta garrantzitsuak daudela egiaztatzen duten unetik aurrera, utzi egingo diote prozesu aurreko ikerketa-eginbideak egiteari, eta amaitutzat

emango dituzte, beren helburua bete baitute.

Aurreko gogoetek orientazio orokorreko irizpidetzat balio behar duten arren, egia esan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/1995 Kontsultak eta 4/2013 Zirkularrak aurreratu zuten bezala,

26

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

ezin da zehatz-mehatz definitu zer irizpide baliatu behar dituzten fiskalek ikerketa-eginbideak noiz amaitu erabakitzeko, bai eta egoitza judizialean zuzenean egin behar diren eginbideak zehazteko ere. Hamaikatxo dira kontuan izan beharreko faktoreak, ikertu daitezkeen egitateen aniztasuna kontuan hartuta.

Auzitegi Gorenaren martxoaren 22ko 228/2020 Epaiak eta apirilaren 21eko 228/2015 Epaiak adierazten dutenez, «Fiskaltza ez dago behartuta ikerketa bere eginbideetan agortzera, eta erabateko autonomia du eginbideak instrukzio-epaileari noiz bidali erabakitzeko».

Nolanahi ere, prozesu aurreko ikerketa-eginbideak amaitutzat emateko aukera baloratzeko, fiskalek alderdi hauek aztertuko dituzte:

- i) Preskripzio-epeak akzio penala erabiliz etetea sustatzeko beharra.
- ii) Kautela-neurriak hartzeko eskatu beharra.
- iii) Ikerketa sekretupean egitea komeni den.
- iv) Epailearen baimena behar duten eginbideak egin beharra.

Jarraibide horiek prozesu osteko ikerketa-eginbideei ere aplikatuko zaizkie, aurrerago esango denaren kalte gabe.

Aurreko argudioek aholkatzen dute instrukzio-fiskala esamoldea ez erabiltzea ikerketa-eginbideak hasi eta/edo izapidetzeko ardura duen fiskalari erreferentzia egiteko. Horregatik, lurralde osoan jarduera-batasuna bermatzeko, fiskalek «fiskal ikertzaile» edo «ikerketaren ardura duen fiskal» terminoa erabiliko dute.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

4.2 Abiaraztea

4.2.1 Salaketa erregistratzea eta banatzea

Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiarazteak honako kausa hauek izan ditzake: salaketa bat, polizia-atestatu bat igortzea, Europako ikerketa-agindu batean edo erreguzko batzorde batean jasotako informazioa, organo judizialek edo administratiboek edo Fiskaltzak berak erabakitako lekukotza-kenkariak, edo, azken batean, delitu-egitate baten ustezko betearazpenaren berri izatea ahalbidetzen duten informazioak helaraztea edozein bidetatik. Gerta daiteke ofizioz ere, fiskalak egitateen berri zuzenean izatearen ondorioz.

Fiskalaren bulegoan salaketa edo polizia-atestatua jaso ondoren, erregistratu egingo da, eta zenbaki independente eta korrelatibo bat esleituko zaio. Jarraian, burutzak egiaztatuko du —fiskaltzen eskura dauden plataformak eta aplikazio informatikoak erabiliz— egitate berei buruzko prozedura judicial bat abian dagoen edo artxibatuta dagoen. Aurrekoa egiaztatu eta gero, fiskalburuak salaketaren edo atestatuaren xedea aztertuko du, eta, ondoren, honela jokatu du:

A) Salaketa edo atestatua ez bada atal espezializatu baten berezko gai bati buruzkoa, buruzagitzak eskumen objektiboa eta lurraldekoa aztertuko ditu.

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 19. artikulua araberan, gertakariez arduratzeko eskumena Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzari, Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuen aurkako Fiskaltza Bereziari edo Drogen aurkako Fiskaltza Bereziari dagokienean, haien buruzagitzari helaraziko zaie, dagozkion ondorioetarako. Ebazten bada



Europako Fiskaltzari dagokiola, uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren arabera, zirkular honen 4.5 epigrafean xedatutakoa beteko da.

Fiskalburuak irizten badio bere zuzendaritzapeko fiskaltzak ez duela eskumenik lurraldeari dagokionez salaketaz edo atestatuaz arduratzeko, bere ustez eskumena duen fiskaltzari bidaliko dizkio, bere burutzaren bidez, zirkular honen 4.4 epigrafean xedatutakoaren arabera.

Bere fiskaltzaren eskumenerako gaia bada, buruzagitzak, zuzenean edo ezarritako banaketa-sistemaren arabera dagokion fiskalak, salaketa edo atestaturik zorroztz aztertu eta honako hauek emango ditu: eginbideak hasteko eta erabat artxibatze dekretoa; ikerketa-eginbideak hasteko eta gauzatzeko dekretoa; prozedura hasteko eta gauzatzeko dekretoa, eta, ondoren, salaketa edo kereila jartzeko dekretoa, edo, kasuak hala eskatzen badu, jasotako salaketa organo judicial eskudunari helaraztea, ikerketa-eginbideak hasi eta zuzenean berriz bidaltzeko erabaki arrazoitua hartu ondoren.

B) Salaketa edo atestaturik atal espezializatu baten berezko gai bati buruzkoa bada, burutzak dagokion atalera bideratuko ditu.

Egitateak ezagutzeko eskumena, haien konplexutasuna edo izaera kontuan harturik, bi atal espezializaturik edo gehiagori badagokie, buruzagitzak honako erabaki hauekoren bat hartuko du:

i) Egitateak materialki lotuta ez badaude, Prozedura Kriminalaren Legearen 17.1 eta 2 artikulua dienerik jarraikiz, eta hori saihesteko arrazoirik ikusten ez bada, burutzak bere espezialitate-eremuko egitateei dagozkien atal espezializaturik esleitu ahal izango die bere bulegoa, eta egoera horren berri eman beharko die atal horiei guztiei.



Kasu horietan, atalen arteko komunikazioa eta koordinazioa alde batera utzi gabe, hasiera eta/edo artxiboa modu independentean ebatziko du atal bakoitzak, eta, kasuak hala eskatzen badu, bereizita egingo dira ikerketak.

ii) Egitateak materialki lotuta badaude, Prozedura Kriminalaren Legearen 17.1 eta 2 artikulua zehaztutakoari jarraikiz, edo beste edozein arrazoiengatik komenigarritzat jotzen bada elkarrekin ikertzea, buruzagitzak lantalde bat sortzea erabakiko du, inplikaturik diren fiskal delegatuek osatua. Horretarako, talde bateratu bat sortzea adostuko duen dekretu bat emango du, eta, han, hura osatzen duten fiskalen esku-hartzea arautuko duten jardun-irizpideak finkatuko ditu.

Buruzagitzak dagokion atal espezializatuari salaketa edo atestaturia eman ondoren, fiskal delegatuak bere eskumen objektiboa eta lurraldekoa egiaztatuko ditu. Eskumenik ez duela iritzi gero, txosten arrazoitu bat egingo du, eta buruzagitzari helaraziko dio, zirkular honetan xedatutakoaren arabera bidezkoa dena ebatz dezan. Bere burua eskuduntzat jotzen badu, fiskal delegatuak, salaketa edo atestaturia zorrotz aztertu ondoren, dagozkion ikerketa-eginbideak abiaraziko ditu, eta bere gain hartuko ditu izapideak, edo ezarritako banaketa-sistemaren arabera txandakatuko ditu.

Fiskaltzaren lurralde-ataletan edo atal espezializatueta zuzenean aurkeztutako salaketak edo atestaturiak burutzara bidali beharko dira, erregistratu eta banatu ahal izateko. Hala ere, salbuetsita geratzen dira salaketa edo atestaturia zabaltzaileen kasuak, baldin eta xede dituzten egitateekin loturik dagoeneko abiarazi badira ikerketa-eginbideak. Kasu horretan, ondoren sartu ahal izango dira prozeduran.



Fiskaltza –eta, harekin batera, Justizia Administrazioa– instrumentalizatzeko arriskua urruntzeko, fiskalek bereziki zuhur jokatu behar duten beren ustez prozesuaren helburuekin zerikusirik ez duten interesak lortzea bilatzen duten salaketen aurrean. Auzitegi Gorenaren 2016ko urriaren 6ko Autoaren arabera, politikaren judizializazioak «konfrontazio politikoko eremu bihurtzen du eztabaida prozesalaren arloa». Auzitegi-praktikak agerian uzten du behin eta berriz gehiegikeriak egin direla helburu sasikoek eragindako salaketak eta kereilak jartzean. Tramitera onartu izanak, batzuetan, Justizia Administrazioaren instrumentalizazio maltzurra ekarri du, eta fenomeno hori bereziki kezagarria da bititza politikoa helburu elektoralistekin judizializatzen den kasuetan.

Halaber, egokitzat jotzen da zenbait kautela kontuan hartzea buruzagitzek egindako salaketen eta atestatuaren erregistroan:

- i) Fiskalen bulegoetan aurrez aurre aurkezten badira, jatorrizkoan eta kopietan gaur egun erabiltzen den sarrera-zigilua inprimatzeaz gain, bigarren zigilu ofizial bat ere jarriko da, eta han zehaztuko da «izapidetzeko onartu gabe» dagoela salaketa eta/edo atestatua.
- ii) Agiria telematikoki aurkezten bada, jaso izanaren agiriak zehaztu beharko du, halaber, salaketa eta/edo atestatua izapidetzeko onartu gabe dagoela.

Nolanahi ere, salaketa bat erregistratze hutsak ez du ekarriko prozesu aurreko ikerketa-eginbide batzuk abiarazteari buruzko erabakirik. Egoera hori argi eta garbi adierazi beharko dute fiskaltzetako buruek eta/edo bozeramaileek, aurkeztutako salaketak izapidetzeari buruz egiten duten edozein jakinarazpen publikotan.



4.2.2 Ikerketa judizial baten identitate objektiboa

Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikulua esanbidez debekatzen ez badu ere, ulertu behar da ezinezkoa dela prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiaraztea, baldin eta organo judizial batek dagoeneko egitate horien berri badu.

Hori dela eta, fiskalburuek delitu-itxura duten egitateen berri dutenean —dela salaketaren bidez, dela polizia-atestatuaren bidez, dela ofizioz—, egitate berei buruzko prozedura judizial bat ba ote dagoen egiaztatuko dute datu-baseen, informazio-sistemen, eskura dituzten aplikazio informatikoen edo beste edozein mekanismoren bidez.

Ikerketa-eginbide batzuk izapidetzen ari diren bitartean, eginbide horien ardura duen fiskalak egiaztatzen badu abian dagoen prozedura judizial bat dagoela, berehala erabakiko du eginbide horiek amaitzea eta organo judizialari berriz bidaltzea, eta, horretarako, dekretu arrazoitu bat emango du. Buruzagitzari dagokio polizia-salaketa edo -atestatua organo judizial eskudunari helaraztea, baldin eta ikerketaren ardura duen fiskalak irizten badio betetzen dela hautemandako identitatea. Gaiaren garrantzia kontuan hartuta, prozedura judizialaz arduratzea dagokion fiskalari salaketa edo kereila instrukzio-epaitegiari helarazteko aukera baloratuko da. Horretarako, bereziki kontuan hartuko da salaketan edo atestatuan adierazitako egitateetatik ondorioztatzen bada premiaz sustatu behar direla jarduketa prozesalak.

Iritziko zaio badela identitate objektiboa prozedura fiskalaren eta judizialaren artean, *notitia criminis*aren xedea bat datorrenean organo judizialak ikertutako egitateekin; hau da, ikertu beharreko egitateekin —ikertutako subjektuak edozein direla ere—, bai eta



abenduaren 2koa; 344/2019 Epaia, uztailaren 4koa; 214/2018 Epaia, maiatzaren 8koa; 18/2016 Epaia, urtarrilaren 26koa, beste askoren artean).

4.2.3 Salaketa anonimoak

Gutziz indarrekoztat jo behar dira salaketa anonimoei buruz Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/1993 Instrukzioan bildutako gogoetak (*Fiskaltzari eta herritarren babes judizial eraginkorrerako eta bidegabeko atzerapenik gabeko prozesu publikorako eskubideen defentsa. Sumarioaren sekretua zaintzeko betebeharra. Salaketa anonimoa: notitia criminis gisa duen birtualtasuna*), honako hau xedatzen duenean:

Badirudi ezerk ez duela eragozten zuzeneko ezagutza hori, askotariko jatorria izan dezakeena, zuzendu gabeko salaketa anonimo batean oinarritzea. Salaketa zentzu juridiko-formalean ulertzeko behar dena kontzeptualki integrazteko desegokia izango bada ere, zalantzarik gabe izan behar du gai prestaketa-ikerketak sortzeko beharra susmarazteko. Kasuak hala eskatzen badu, egoki irizitako ikerketa-eginbideak gauzatu ondoren, fiskalak instrukzio-epaitegiari eskatu ahal izango dio aurretiazko eginbideak has ditzala eta, horiekin batera, abiaraz dezala prozesu penalaren lehen fasea.

Auzitegi Gorenaren maiatzaren 13ko 141/2020 Epaia adierazten duen bezala, salaketa anonimoan jasotako gertakariei haztapen indartuko epaiketa egin behar bazaie ere, «horrek ez du eragozten informazio horrek, osorik balioetsi eta bere argumentu-kongruentzia eta ematen dituzten datuen egiantza modu sendoan aztertu ondoren, epaileari, fiskalari edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei bere karguaren ondorioz ezagutzen dituzten delitu itxurako egitateak ikertzeko betebeharra sorraraztea» (ikus



Gaur egun, oso interkonektatuta dagoen gizarte digital batean bizi gara, eta herritar guztiak izan daitezke informazioaren hartzaile eta hedatzaile. Doktrinaren iritzian, aurreikus daitezke delazio anonimoak nabarmen areagotuko direla gizarte-korrante bat sendotzearen ondorioz, zeinaren ezaugarria baita konpromiso berezia hartu dela Justizia Administrazioarekiko laguntza- eta lankidetzak egiteko, eta, jakina, gero eta gehiago erabiltzen direlako teknologia berriak albiste kriminala transmititzeko.

Delazio anonimoak sortu ohi dituen mesfidantzen aurrean, gaur egun justiziariekiko lankidetzak sustatzeko neurri baliagarria dela esaten da. Hainbat lege-tresnak sustatzen eta bultzatzen dute herritarren lankidetzarako postontziak eta barne-salaketarako bideak sortzea, salatzailearen anonimotasuna edo, gutxienez, konfidentzialtasuna bermatzeko. Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren Gida Teknikoak, zeina 2010ean onetsi baitzen, hauxe adierazten du: «Agian komeniko litzateke estatu partaideek pentsatzea bideragarria dela salatzaileen anonimotasuna bermatzea». Iradokizun hori, era berean, errepikatu egiten da Nazio Batuek 2013an enpresentzat egindako Etikaren aldeko eta Ustelkeriaren aurkako Programan.

Europar, joera berri horren adierazgarri dira, batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 EB Zuzentaraua, 2015eko maiatzaren 20koa, *finantza-sistema kapitalak zurrizteko edo terrorismoa finantzatzeko erabiltzea prebenitzeari buruzkoa*, eta, bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, 2019ko urriaren 23koa, *Batasunaren zuzenbidearen urraketei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa*.



Auzitegi Gorenaren otsailaren 6ko 35/2020 Epaiaren arabera, «salaketa-bide horiek ezartzeko beharizan horri buruz doktrinak jasotzen duenez [...], [2019ko urriaren 23ko (EB) 2019/1937 Zuzentarauak] justifikatzen du egiaztatuta dagoela informatzaileak edo salatzaileak direla erakundeen barruan egindako iruzur-

delituak aurkitzeko biderik garrantzitsuena; eta beren enpresan edo erakunde publikoan delitu-praktiken berri duten pertsonak salaketa ez jartzeko arrazoi nagusia dela, funtsean, ez direla sentitzen behar bezain babesturik arau-haustea salatzen dizkion erakunde horrek har ditzakeen balizko errepresalien aurka».

Azken batean, Fiskaltzaren aurrean egindako salaketan ager daitezkeen irregulartasun formalak alde batera utzita, ezerk ez du eragotziko hura izapidetzea eta, ondorioz, dagozkion ikerketa-eginbideak abiaraztea, jakinarazitako delitu-itxurako egitateek egiantz-zantzuak dituztenean.

4.2.4 Autoinkulpazio masiboak

Autoinkulpazio masiboak protesta-bide bat dira. Haien bidez, modu kolektiboan aldarrikatu nahi da legitimotzat jotzen diren jokabide jakin batzuen kriminalizazioa arbuizatzea, eta, hala, elkartasuna adierazi nahi zaio prozedura penal batean inputatua izan denari. Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 20ko 136/1999 Epaiak adierazten duenez, jokabide horiek laguntza politikoa emateko ariketa hutsa dira, eta, beraz, ikertutako pertsona bati laguntzeko ekintza horiek ez dakarte berez erantzukizun penalik ikertutako eta zilegitzat jotako gertaerengatik.



Ondorioz, fiskalek mota horretako salaketak erabat artxibatu egingo dituzte, baldin eta ez badute ikusten kriminalitate-zantzurik hirugarren bat auzipetzean arauarekin edo haren aplikazioarekin ados ez daudela adierazteko, salbu eta jokabide hori apologia-modalitate gisa tipifikatzen bada.

4.2.5 Abiarazpen-dekretua

Poliziaren salaketa edo atestaturia eta aurkeztutako material guztia zehatz-mehatz

aztertu ondoren, fiskal eskudunak, zirkular honen 4.2.1 epigrafean xedatutakoarekin bat etorriz, azkar emango du ikerketa-eginbideak hasteko dekretua.

Fiskaltzaren Erregelamenduaren 10.1 artikulua eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren *Fiskaltzaren egintzen formari buruzko* 1/2005 Instrukzioaren arabera, dekretu bidez abiaraziko dira ikerketa-eginbideak.

Nolanahi ere, prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiarazteko dekretuak alderdi hauek jasoko ditu:

- i) Ikertutako gertakarien zerrenda laburra.
- ii) Susmagarritzat jotzen den pertsonaren identitatea, halakorik balitz.
- iii) Ikertutako egitateen behin-behineko kalifikazioa.
- iv) Kasuan-kasuan, egin beharrekotzat jotzen diren eginbideak.
- v) Egindako jarduketei buruzko aipamena, egiaztatzeko ez dagoela egitate berberei buruzko prozesu judizialik, ez abian, ez artxibatuta.
- vi) Ikerketaren ardura duen fiskalaren nortasuna.



Horren guztiaren salbuespen izango dira erabat artxibatzeko kasuak (zirkular honen 4.7.2 epigrafean adierazitakoari jarraituko zaio), bai eta organo judizialari zuzenean bidaltzekoak ere; kasu horretan, 4.7.3 epigrafean adierazitakoa bete beharko da.

Aurreko parametroak abiarazten den unetik bertatik zedarritzeak lagundu egiten du hasiera goiztiarrak saihesten, prozeduraren xedea hasiera-hasieratik definitzen, beharrezkoak ez diren eginbideak egitea prebenitzen, eta berehalako judizializazioa bidezkoa den erabakitzen. Era berean, ageri diren zantzuak

ikusita, susmagarriari prozeduran sarrera eman behar zaion aztertzea errazten du, zirkular honen 4.6 epigrafean adierazitako baldintzetan.

Ikerketa-eginbideak abiarazteko dekretua eman ondoren, idatzoharra egingo da. Logistika- eta estatistika-arrazoiak direla-eta, komeni da prozesu aurreko ikerketa-eginbideek zenbaki korrelatiboak izatea, independenteak ikerketa-eginbide osagarriei eta prozesu ostekoei dagozkienetatik.

Ikerketa-eginbideen xedea gertakari jakin batzuk izan behar dira. Ikerketan zehar itxuraz delitu-esanahia duten egitateak azalerraten badira, hasieran ikertutakoez bestelakoak, beste ikerketa-eginbide batzuk abiaraztea erabakiko da, nola eta ez den ikusten bien arteko lotura-harremana, Prozedura Kriminalaren Legearen 17. artikuluari jarraikiz. Kasu horietan, ikerketa-eginbide berriei gehitu beharko zaie kasualitatez aurkitu zirenen lekukotza osoa, eta lehen aipatutako irizpidearen arabera dagokien erregistro-zenbakia eman beharko zaie.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko Ikuskaritza Fiskalak horretarako eskain ditzakeen jarraibideen kalte gabe, buruzagitzei dagokie ikerketa-eginbideen prozeduren zaintzari dagokionez egokitzat jotzen dituzten neurriak hartzea,



amaitu ondoren gorde beharreko dokumentazioa, bai eta artxibatutako espedienteak nola gorde eta gorde behar diren ere.

4.3 Eskumen objektiboa

4.3.1 Irizpide orokorrak

4.3.1.1 Arau orokorrak

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 23. artikulua jatorrizko idazkerak (50/1981, abenduaren 30ekoa) adierazten zuenez, «Fiskaltzako kideak autoritate

dira ondorio guztietarako. Erakundearen ordezkari gisa jardungo dute beti, eta dagokion buruak eskuordetuta. Fiskal bat, bere eginkizunak betetzean, prozesuaren edo jardueraren edozein unetan, bere nagusi hurrenak beste batekin ordezkatu ahal izango du, arrazoi sendoek gomendatzen badute hala egitea. Kontseilu Fiskalari jakinaraziko zaio ordezte hori».

Manuaren hitzez hitzeko edukiak aukera ematen zuen ondorioztatzeko fiskalburuei soilik zegokiela Fiskaltzaren ikerketa-eginbideak hasteko eta izapidetzeko eskumena, hargatik eragotzi gabe fiskalburuek ahalmen horren egikaritzea delegatu ahal izatea zuzentzen zuten plantillako fiskaletako edozeinen alde.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren *Fiskaltzaren barne-funtzionamendurako arauetarako* buruzko 1/1987 Instrukzioak adierazita bezala, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 23. artikulua aldaketa nabarmen bat sartu zuen 1926ko Estatutuarekin alderaturik; izan ere, *fiskalak laguntzaile edo zuzeneko buruaren ordezkari huts izateari utzi* eta erakundearen eskubide osoko ordezkari bihurtu ziren, hargatik eragotzi gabe estatus berri hori baldintzaturik egotea



haien eginkizun zehatzak betetzea fiskalburuek eskuordetua izatea.

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 23. artikulua (urriaren 9ko 24/2007 Legearen bidez) Fiskaltzako kideen autonomia finkatu zuen; hala, beren eskumenen izaera eskuordetuari buruzko aipamena ezabatu zuen, eta ezarri zuen haiek guztiek, salbuespenik gabe, erakundearen ordezkari gisa jarduten dutela.

Fiskal guztiak jo daitezke erabat eskudun ikerketa-eginbideak hasteko eta izapidetzeko, baina antolamendu-arloko arazoek zehazten dute organo fiskal bakoitzeko buruzagitzeari esleitu behar zaiela prozedura hasteko agindua emateko

eskumena. Hala ere, *notitia criminis*aren xedea atal espezializatu baten ardurapeko egitateak direnean, haren fiskal delegatuak ireki eta izapidetuko ditu ikerketa-eginbideak, eta fiskalburuak oniritzia eman beharko die prozedura hasteko proiektuei. Horrekin, jarduera-batasunaren printzipioa benetan gauzatzea eta Fiskaltzaren espezializazioaren aldeko apustua uztartu nahi dira; hala, bikaintasun juridikoa bermatuko duen sistema bat ezarri nahi da, bai eta Fiskaltzaren jardueraren objektibotasuna eta inpartzialtasuna ere.

Ezerk ez du eragozten atal espezializatuetakoko fiskalburuek eta fiskal delegatuek, lana banatzeko eginkizunak betez (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 22.5 artikulua), beren plantillako edo, kasuaren arabera, zuzentzen duten atal espezializatuko beste kide batzuei ikerketa-eginbideak hastea eta/edo izapidetzea esleitzea, egoki deritzotenean.

Urriaren 9ko 24/2007 Legearen bidez Fiskaltzaren Estatutu Organikoan eginiko erreformak modu erabakigarrian bultzatu du fiskalen espezializazioa jakintza juridikoko hainbat arlotan, eta horrek erakutsi du ondorio positiboak izan dituela denboran zehar.



Zenbait arlotan espezializatutako atalak sortu dira, hala nola ingurumenean eta hirigintzan, bide-segurtasunean, emakumearen aurkako indarkerian, laneko segurtasun eta osasunean, kriminalitate informatikoan edo delinkuentzia ekonomikoan, adibideren bat jartzearren. Neurri hori bereziki eraginkorra da bereziki konplexuak diren fenomeno kriminal batzuei modu egokian aurre egiteko, eta, era berean, Fiskaltzaren jarduera-batasuna bermatzen lagundu du.

Izan ere, fiskal espezialistek dute beren jakintza-eremuan sartzen diren egitateak aztertzeke prestasun handiena, bai eta Fiskaltzak lurralde nazional osoan jarduteko duen batasuna bermatzeko ere, haien bidez ezartzen baita ondoen Estatuko Fiskaltza Nagusiaren doktrina, salako fiskal koordinatzaileek eta delegatuek eskainitako jarduteko jarraibideak, eta espezialisten jardunaldietatik

eratorritako ondorioak.

Hala ere, Fiskaltzaren organo bakoitzak berezitasunak dituen plantillaren beraren dimentsiotik, giza baliabideen banaketatik edo espezialitatearen arloko eskumeneko prozeduren bolumenetik eratorrita, buruzagitzak, atal espezializatuko fiskal delegatuak alde aurretik eskatuta, bere gain hartu ahal izango du ikerketa-eginbideak abiaraztea eta bideratzea, edo, kasuak hala eskatzen badu, atal horretan sartuta ez dagoen fiskal bat izendatu ahal izango du horretarako.

Gaia ez badagokio atal espezializatu bati, buruzagitzak dagozkion ikerketa-eginbideak egingo ditu, aurrez ezarritako banaketa-sistemaren arabera. Eskumena duen fiskalak ez badu banaketa-araurik, buruzagitzak bere gain hartu ahal izango du haren bulegoa, edo, kasuaren arabera, egokitzen jotzen duen plantillako fiskalari esleitu ahal izango dio, dekretu arrazoitu bidez.

40

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Fiskaltzaren Estatutu Organikoak fiskalburuei lana zuzentzeko, zerbitzuak antolatzeko eta banatzeko aitortzen dizkien ahalmenak alde batera utzi gabe, komeni da fiskaltzek neurriak hartzea fiskal guztiek prozesuaren aurreko ikerketa-eginbideak izapidetu ditzaten. Adierazi bezala, ikerketa kriminalaren zuzendaritza Fiskaltzari esleitzen zaion unea iristen denean —berandu baino lehen—, ikerketa-eginbideak egiten aritutako fiskalak hobeto prestatu egongo dira eredu prozesal berriaren erronkei aurre egiteko. Horregatik komeni da lana banatzeko sistemak ezartzea, Fiskaltzako kide guztiak prozesuz kanpoko jarduerari dagokion ikerketa penala zuzentzearen zirrikituetan ohitu ahal izateko.

Nolanahi ere, prozesu aurreko ikerketa-eginbideak hasteko eta amaitzeko dekretu-proiektuak, bai eta salaketa- edo kereila-proiektuak ere, kasuan kasuko buruzagitzari edo buruzagitzak izendatutako fiskalari jakinaraziko zaizkio, dagokion aurretiko bisatua egin dezan. Atal espezializatuetakoko fiskal delegatuek

ere aldez aurreko bisatu horren pean jarri beharko dituzte prozedura hasteko, amaitzeko eta artxibatzeko, salaketa jartzeko eta kereila jartzeko dekretu-proiektuak.

Atal espezializatu bateko fiskal delegatuak beste fiskal bati esleitzen badio ikerketa-eginbideak abiaraztea eta/edo izapidetzea, azken horrek aldez aurretik oniritzia eman beharko die abiarazteko eta amaitzeko dekretu-proiektuei. Fiskal delegatuak proiektuari oniritzia eman eta fiskal ikertzaileak dagozkion zuzenketak egin ondoren, fiskal delegatuak dagokion buruzagitzara edo hark izendatutakora bidaliko du, oniritzi-oharrarekin batera, behin betiko ikus-onespena eman diezaion.

Aurreko gogoetek ez dute ahultzen jarduketa-batasunaren printzipioaren erabateko indarraldia, ezta Fiskaltzako kideen ordezkagarritasuna ere,



eta, beraz, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 23. artikulua araberak ikerketa baten zuzendaritza aldatzeak *ad extra* ondorioz ez izatea, baita Estatuko fiskal nagusiak Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 26. artikulua aplikatuz ikerketa jakin baterako fiskal jakin bat izendatzeak ere. Baieztatu behar da, jakina, ez dela bidezkoa legeak aurrez zehaztutako epaile arruntaren printzipioa Fiskaltzaren egitura organikora eramatea. Azken buruan, ordenamendu juridikoak hierarkian gorago daudenei aitortzen die fiskal bati ikerketa zehatz bat esleitzeko ahalmena, edo dagoeneko hasita dauden eginbide batzuk ezagutzen ari dena ordezteko erabakia hartzekoa, efikazia- eta efizientzia-arrazoiak direla-eta hala komeni denean (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 22., 23. eta 26. artikulua). Gogoan izan behar da, gainera, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 23. artikuluari jarraikiz, eskumenak bereganatzeko edo beste fiskal batek ordezkatzeko kasuak Kontseilu Fiskalari jakinaraziko zaizkiola beti, eta hark bere iritzia adierazi ahal izango du.

4.3.1.2 Fiskaltza bereziak eta Auzitegi Nazionalekoak

Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzari, Drogaren aurkako Fiskaltzari eta Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuaren aurkako Fiskaltzari dagokienez, gaiaren arabera eskumena Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 19. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehazten baita, buruzagitzei dagokie, nolana ere, ikerketa-eginbideak hastea, hargatik eragotzi gabe beren bulegoa plantillako kide batzuen edo guztien artean banatu ahal izatea, aldez aurretik ezarritako txandaren arabera, edo, halakorik ezean, banaka arrazoituz. Izan ere, hala dago zehaztuta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2010 Instrukzioan (*«Drogen legez kanpoko trafikoa prebenitzeko eta zigortzeko Fiskaltza Bereziaren eta haren fiskal delegatuen eskuduntza eta eskumenei buruzko» 12/2005 Instrukzioa urriaren 9ko 24/2007 Legera egokitzeari buruzkoa*) eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2006 Instrukzioan (*ustelkeriarekin lotutako delitu ekonomikoak zigortzeko eta delinkuentzia antolatuan adituak diren fiskaltza bereziaren eskudantziei eta antolaketari buruzkoa*).

42

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Gogoan izan behar da fiskaltza horien arteko balizko eskumen-gaiak —bai ikerketa-eginbideen esparruan, bai judizialki izapidetutako gaietan— xehetasunez aztertzen direla Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2010 Instrukzioan, (*drogen legez kanpoko trafikoa prebenitzeko eta zigortzeko Fiskaltza Bereziaren eta haren fiskal ordezkarien eskudantziei eta eskumenei buruzko 12/2005 Instrukzioa urriaren 9ko 24/2007 Legera egokitzeari buruzkoa*), eta bertan adierazitako irizpideei jarraitu behar zaiela.

4.3.1.3 Pertsona forudunak

Pertsona forudunei eragiten dieten ikerketa-eginbideak direnean, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2005 Kontsultan azaldutako eskumen-irizpideei jarraituko zaie. Irizpide horiek behar bezala eguneratuta daude zirkular honetan, lege-erreformen eta jurisprudentzia-irizpide berrien arabera.

Horretarako, bi kasu bereizi behar dira:

i) Ikertutako pertsona batek edo ikertu guztiek foru berezia dutenak:

Ikerketa-eginbideak hasia bidezkoa bada, forudun izatearen ondorioz auzitegi eskudunaren aurrean jarraitutako prozedurez arduratzea dagokion fiskaltzari esleituko zaio eskumena, hark gauzatu behar baititu egin beharreko egintzak, kasuak hala eskatzen duenean.

ii) Ikerketak pertsona talde bati eragiten dionean, eta horietako batek edo batzuek baino ez dutenean foru berezia:

Ikerketa egiteko eskumena ikertutako egitateak egin diren tokiko fiskaltzari dagokio.

43

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Fiskaltza honek egokitzen jotzen dituen eginbideak egingo ditu egitatea eta parte-hartzaileen erantzukizuna egiaztatzeko, forudunaren delitu-jokabidea indibidualizatuta geratu arte.

Pertsona forudunari zer egotzi ez dagoenean, fiskaltza honek hari buruzko jarduketak artxibatzea erabaki ahal izango du, forudunak ez diren pertsonen aurrean ikerketarekin jarraitzeko aukera alde batera utzi gabe.

Foruduna inputatzeko arrazoizko oinarria izan daitekeen zantzuren bat badago, ikerketa gauzatzen ari den fiskaltzak ez du egingo deklaratzeko zitaziorik, ikerketaren berri eman besterik ez, defentsa-eskubidea egikaritu ahal izan dezan, eginbideetan pertsonatuz, sartuz eta esku hartuz. Nolanahi ere, fiskaltza ikertzaileak foru-babesaren arabera eskudun den organo fiskalari igorriko dizkio jarduketak, forudunari deklarazioa hartzeko edo, kasuaren arabera, dagozkion ekintzak egin ditzan edo eginbideak artxiba ditzan.

Forudunei eta forugabeei egotzitako egitateak batera ikertuko ditu forudunen kasuan eskumena duen fiskaltzak, honako kasu hauetan:

a) Foruduna forugabeak gauzatutako jokabidearen eragile, ezinbesteko laguntzaile edo konplizetzat jotzen denean; izan ere, kasu horietan, komenigarria da ikerketa bat egitea eta, hala badagokio, batera epaitzea, ikertzen edo garbitzen den benetako izaera faktikoa lortzeko [ikusi Auzitegi Gorenaren 2009ko uztailaren 1eko Autoa (20206/2009 errekurtsua), 2015eko ekainaren 24ko Autoa (20619/2015 errekurtsua) eta 2018ko abenduaren 27ko Autoa (20907/2017 errekurtsua)].

44

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

b) Forudunak ez diren pertsonen ekarpena garrantzitsua denean forudunari egotzitako jokabidearen tipikotasuna zehazteko, bereziki delitu-plan bat gauzatzean zereginen banaketa funtzionala egiten den kasuetan [ikusi Auzitegi Gorenaren 2018ko otsailaren 15eko Autoa (20907/2017 errekurtsua) eta 2018ko maiatzaren 31ko Autoa (20907/2017 errekurtsua)].

c) Tipoko elementuren bat egoteari buruzko balorazioa forugabea den pertsonaren jardunaren arabera denean [ikusi Auzitegi Gorenaren 2017ko azaroaren 24ko Autoa (20907/2017 errekurtsua)].

d) Beste edozein kasutan, parte-hartzaileen —forudunak zein forugabeak— arteko lotura material banaezina dagoela ikusten bada, eta delitu-egitatea batera ikertzea eta epaitzea justifikatzen badu (ikusi Auzitegi Gorenaren 459/2019 Epaia, urriaren 14koa; eta Auzitegi Gorenaren 20460/2022 Autoa, ekainaren 21eko Autoa; 2018ko maiatzaren 31ko Autoa; 2018ko otsailaren 15eko Autoa; 2015eko irailaren 9ko Autoa; eta 2015eko uztailaren 22ko Autoa).

Kasu horietatik kanpo, foruagatik eskumena duen fiskaltza forudunari egotzitako egitateak ikertzera mugatuko da.

Prozesu-foru berezia dutenei zigor-arloan leporatu dakizkiekeen jokabideak xede

dituzten ikerketa-eginbideak izapidetzeko ardura duten fiskalek beren egitateei buruzko egitatetzat hartuko dituzte, eta egitate horien garrantzia dela-eta, jakinaren gainean ipiniko dute Estatuko fiskal nagusia, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 25. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta, beraz, Idazkaritza Teknikoaren bidez, unean-unean helaraziko dituzte hura garatu bitartean gertatzen diren gorabehera garrantzitsu guztiak (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 13. artikulua; Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 122. artikulua; Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2012 Zirkularra; eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2004, 7/2005 eta 4/2007 Jarraibideak).



4.3.2 Atal espezializatuak

Espezializazio-printzipioa bi alderdi organikotan eta funtzionaletan sustatzea izan da Estatuko Fiskaltza Nagusiak azken urteotan garatutako jardueraren ildo nagusietako bat, eta ezinbesteko tresna izan da konplexutasun juridiko bereziko gaietan jarduera-batasunaren printzipioa indartzeko.

Esparru organikoan, printzipio hori ezartzearen ondorioz, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren unitate espezializatuak sortu dira, salako fiskal bat buru dela, eta, horretaz gainera, lurralde-fiskaltzetan espezializatutako atalak ezarri dira.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko salako fiskal delegatuen eta unitate espezializatuetakoko koordinatzaileen funtsezko eginkizuna da jarduera-batasunaren printzipioa antolatzea, dela espezializazioaren xede diren gaietan irizpide bateratuak ezarriz, dela atal espezializatuen jardunaren jarraipena, koordinazioa eta gainbegiratzea eginez.

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. artikulua araberak, Estatuko Fiskaltza Nagusiko unitate espezializatuetakoko koordinatzaile eta salako fiskalek lurraldeko edozein tokitan jazotako egitateei buruzko ikerketa-eginbideak egin ahal izango

dituzte, baldin eta Estatuko fiskal nagusiak horretarako baimena ematen badu garrantzi bereziko arrazoiengatik, zeinak kasu zehatz bakoitzean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuta baloratuko baitira.

Salako fiskal delegatuek lurralde nazionalako edozein lekutan gertatutako gertakariengatik ikerketa-eginbideak abiarazteko eta izapidetzeko eskumena izango dute, baldin eta Estatuko fiskal nagusiak horretarako ahalmena ematen badie,

46

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

uste izateagatik garrantzi bereziko gaiak direla.

Aurreko kasuetatik kanpo, salako fiskal espezialistek ez dute izango ahalmenik inolako ikerketarik egiteko, eta ezin izango dute ireki gobernu-espediterik, prozesuaren aurreko eginbiderik edo antzeko beste edozein izapiderik, zigor-arloko ikerketa-egintzak gauzatzeko. Jasotzen dituzten salaketak, polizia-atestatuak edo antzeko agiriak gobernu-espeditentean dokumentatuko dira, eta automatikoki bidaliko zaizkio lurralde-eskumena duen fiskaltzari, Prozedura Kriminalaren Legearen 14., 14 *bis*, 15. eta 15. *bis* artikuluetan jasotako arauen arabera.

Salbuespen gisa, arrazoi operatiboek eta gaiaren berezitasun bereziak eraginda, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Kriminalitate Informatikoaren Unitate Espezializatuari aukera ematen zaio atxikitako polizia-unitateez baliatzeko dagozkion ikerketa-eginbideak hasi ondoren, baina *forum delicti comissia* zehazteko bakarrik, betiere ezinbestekoa bada ustezko erantzulearen identifikazioa zehaztu dezaketen izaera teknologikoko eginbideak egitea. Era berean, datuak segurtatzeko edo kontserbatzeko neurriak hartzea beharrezkoa denean, Prozedura Kriminalaren Legearen 588. *octies* artikuluan aurreikusita bezala. Ikerketa-eginbide horiek ahalik eta azkarren izapidetuko dira, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikuluko epea ez agortzeko.

Salako fiskal espezialistek ere ez dute izango ahalmenik jaso ditzaketen salaketak edo polizia-atestatuak artxibatzeko, nahiz eta kontatutako gertakariak objektiboki atipikoak izan; izan ere, 4.7.2 epigrafean adierazten den bezala, erabat artxibatu behar den kasuetan ere, beharrezkoa izango da aldez aurretik ikerketa-eginbideak hastea. Kasu horietan, salaketa gai horretaz arduratzea dagokion fiskaltzara bidali besterik ez dute egingo, zirkular honetan ezarritako irizpideen arabera.

47

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Estatuko fiskal nagusiaren baimena —dekretu arrazoituaren forman emana— bere ekimenez edo sala espezialistako fiskalaren proposamenez hartu ahal izango da; sala horretan, kasuan kasuko ikerketa-eginbideetan zuzenean esku hartzea justifikatzen duten arrazoiak adierazi beharko dira.

Salako fiskal espezialistak ikerketari buruz hartzen diren erabaki garrantzitsuenen berri emango die lurralde-fiskaltzako buruzagitzari eta dagokion fiskal nagusiari, batez ere, zuzenean edo zeharka fiskalburu gisa betetzen dituzten eginkizunetan eragina duten alderdiei dagokienez.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren *salako fiskal koordinatzaileen eta salako fiskal delegatuen eginkizunei buruzko zenbait gairi buruzko 1/2015* Instrukzioan xedatutakoaren arabera, salako fiskal espezialistaren esku-hartzea zuzenean gauzatu ahal izango da, bere kabuz edo lurralde-fiskal delegatuari emandako jarraibide zehatzen bidez, eta hark dagozkion ikerketa-eginbideak abiaraziko ditu.

Ildo horretatik, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. artikuluko 1.a), 2.a) eta 3. apartatuek zehazten dutenez, salako fiskal koordinatzailearen esku-hartzea zuzenean edo zeharka egin ahal izango da lurraldeko fiskal ordezkariari zuzendutako jarraibide partikularren bidez. Irizpide sistematikoek eta legegileak «edo» juntagailu hautakorra erabili izanak aukera ematen dute ondorioztatzeko salako fiskal koordinatzaileak ez duela ahalmenik bi moduetako edozeinetan esku

hartzeko. Hori dela eta, Estatuko Fiskaltza Nagusiko titularra izendatzeko dekretuak zehaztu behar du salako fiskal koordinatzaileari gai horretan esku hartzeko baimena ematen zaion, zuzenean edo zeharka, fiskal delegatuei emandako jarraibideen bidez. Hala ere, genero-indarkeriako kasuetan, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20.1.a) artikulua edukiari erreparatuta,

48

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

ondoriozta daiteke Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurkako Sala Koordinatzaileko fiskalak zuzenean —ez zeharka, jarraibideen bidez— esku hartu ahal izango duela ikerketa-eginbideak abiarazi eta izapidetzerakoan, hargatik eragotzi gabe Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20.1.c) artikulua gainbegiratzeko eta koordinatzeko ematen dituen ahalmenak.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko titularrak gaia bereziki garrantzitsua dela ikusi ondoren, salako fiskal koordinatzaileak bertan esku hartuko du amaitu arte, izapidetze judiziala barne, harik eta hark dekretu arrazoitu bidez kontrakoa xedatzen duen arte.

Aurreko gogoeta horiek salako fiskal delegatuei ere aplikatu behar zaizkie.

Salako fiskalek Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. artikulua esleitutako eginkizunak modu eraginkorrean bete ahal izango dituztela bermatzeko, eta, zehazki, beren eskumeneko gaitan jarduera-batasuna ahalbidetuko duten irizpideak ezartzen direla ziurtatzeko, zuzeneko esku-hartzea zein gaitan justifikatuta dagoen edo gainbegiratze estuagoa komeni den baloratu ahal izateko, funtsezkoa da dagokion espezialitateko lurralde-fiskal delegatuek Estatuko Fiskaltza Nagusiaren unitate espezializatu bakoitzaren eskumen-eremuetan garatutako ikerketak jakinaraztea. Horrek guztiak ez du galaraziko Estatuko fiskal nagusiari jakinarazteko betebeharra, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 25. artikuluan garrantzi bereziko gaiei dagokienez aurreikusitakoarekin bat.

Horrenbestez, salako fiskal espezialistek zehazten dituzten kasuetan edo

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren doktrinak hala ezartzen duenean, lurralde-fiskal delegatuek honako alderdi hauen berri emango diote Estatuko Fiskaltza Nagusiaren unitate espezializatuari:

49

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

- i) Hasitako ikerketa-eginbideak, prozedura hasteko dekretuen kopia erantsita.
- ii) Ikerketa-eginbideak hasia baztertzeko duten dekretuak, horien kopia aurkeztuz.
- iii) Ikerketa-eginbideak artxibatzea erabakitzen duten dekretuak, horien kopia aurkeztuz.
- iv) Hasitako ikerketa-eginbideen barruan Fiskaltzak jarritako salaketak edo kereilak.

Dokumentuak posta elektronikoz edo antzeko beste komunikabideren baten bidez bidaliko dira, Estatuko Fiskaltza Nagusiko unitate espezializatuak errazago kudea ditzaten, eta ziurtatzeko, orobat, informazioa azkar, eraginkortasunez eta arin helarazten dela.

Ikerketaren xedea hobeto ezagutu behar denean, salako fiskal espezialistek jarduketan berri izan ahalko dute pertsonalki, bai jarduketan kopia lurralde-fiskal delegatuari eskatuz, bai dagokion fiskaltzan agertuz. Halakoetan, horren berri emango diote dagokion buruzagitzari.

Era berean, lurraldeko fiskalburuek salako fiskal espezialistei jakinaraziko dizkiete espezialitate bateko fiskal delegatuekin eta atal espezializatuak fiskalekin sortzen diren eztabaidak, bereziki, lehenengoek atzera botatzen badituzte azken horiek ikerketa-eginbideak abiarazteari edo artxibatzeari buruz edo salaketa edo kereila aurkezteari buruz hartutako erabakiak, bai eta hasieran fiskal espezialistei emandako eskumena bereganatzen denean ere.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Organo bakoitzeko fiskalburuei fiskaltzen zuzendaritzan eta kontrolean estatutuek ematen dizkieten ahalmenei kalterik egin gabe, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. artikulua ematen dien gainbegiratze-funtzioak aukera ematen du salako fiskal espezialistek oharrak egin ditzaten beren eskumeneko gaiei buruzko ikerketa-eginbideak hasi, izapidetu eta ebazteari buruz, eta, bereziki, garrantzi sozial eta/edo juridikoagatik garrantzi berezikotzat jotzen diren gaiei buruz; izan ere, ez luke zentzurik izango kualifikazio tekniko handia alferrik galtzea, idazkiak burokratikoki jaso eta artxibatzea mugatuz haien esku-hartzea. Hala ere, gogoratu behar da, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren doktrinaren arabera, ohar edo iradokizun horiek ez dutela izaera loteslerik.

Ikerketaren garrantzi berezia baloratzeko orduan, kontuan hartuko dira Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2015 Instrukzioan ezarritako irizpideak, salako fiskal koordinatzaileek eta delegatuek gai horri buruz emandako jarraibideak, eta fiskal espezialisten jardunaldien ondorioetan ezarritako orientazio-irizpideak —izan ere, horiek lotesleak ez izan arren, funtsezko tresna dira Fiskaltzaren jarduerabatasuna bermatzeko—.

Garrantzi berezia izaki, egitateak Estatuko fiskal nagusiari jakinarazi behar zaizkionean, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 25. artikuluari jarraikiz, fiskalburuek jakinaren gainean ipiniko dute, bai hura, bai dagokion sala espezialistako fiskala, eta, horretarako, jakinarazpen bana bidaliko diete bakoitzari.

Era berean, salako fiskalek, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2015 Instrukzioan aurreikusitakoaren antzera, Estatuko Fiskal Nagusiaren aurrean planteatu ahal izango dituzte fiskalburuek edo lurralde-fiskal delegatuek ikerketa-eginbideak abiarazteari, artxibatzeari edo judizializatzeari buruz egindako oharren inguruan sortzen dituzten desadostasunak.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

4.3.3 Fiskal nagusien eskumena

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 22.4 artikulua arabera, fiskal nagusiek, fiskaltza zuzentzeaz gainera, dagokien autonomia-erkidegoko lurralde osoan jardungo dute, eta beren gain hartuko dituzte Fiskaltzaren ordezkaritza eta buruzagitza, Estatuko fiskal nagusiaren eskudantziei kalterik egin gabe. Ahalmen horri esker, baieztatu daitezke goragoko fiskalek ikerketa-eginbideak abiarazi eta izapidetu ditzaketela, ez beren justizia-auzitegi nagusiko arlo zibileko eta zigor-arloko salaren ardurapeko delituengatik bakarrik, baizik eta beren eskumeneko lurraldean egindako edozein delitu-egitaterengatik ere bai. Aldiz, autonomia-erkidegoko fiskaltza osatzen duten gainerako fiskalek ez dute eskumenik kasuan kasuko justizia-auzitegi nagusiak epaitu behar ez dituen gertakariengatik ikerketa-eginbideak abiarazteko eta izapidetzeko.

Fiskal nagusiek modu haztatuan erabiliko dute ahalmen hori, eta *a priori* probintziako edo arloko fiskaltzaren eskumenekoak diren ikerketak beren gain hartuko dituzte, baina soilik hori justifikatzen duten salbuespenezko arrazoiak ageri direnean. Prozedura abiarazteko dekretuan jaso beharko da arrazoiak hori, eta hainbat zirkunstantziaren ondorio izan daitezke, hala nola auziaren probintziaz gaindikoa garrantzia, garrantzi berezia edo Fiskaltzaren irizpide-batasuna bermatzeko komenigarritasuna.

Horrenbestez, arau orokorra da autonomia-erkidegoko fiskaltzak salaketa bat jasotzen badu dagokion justizia-auzitegi nagusiari ez dagokion delitu-egitate bati buruz, probintziako edo arlo eskuduneko fiskalburuari bidali beharko diola, non eta ez diren gertatzen



salbuespenezko arrazoiak, fiskal nagusiak ikerketa-eginbideak abiaraztea justifikatzen dutenak.

Goragoko fiskalek ikerketa-eginbideak izapidetzea beren gain hartzen dutenean, eginbide horiek amaitu ahal izango dituzte, artxibatu edo judizializatu ala ez erabakiz, edo, bestela, probintzia-fiskaltzara edo arlo eskuduneko fiskaltzara igortzea erabaki ahal izango dute, dekretu arrazoitu bidez, haien jardunak justifikatuta egoteari uzten dionean.

4.4 Lurralde-eskumena

Gure ordenamendu juridikoan ez dago fiskala izateko eskubiderik, legez zehazturik. Fiskaltza bakarra da Estatu osorako, eta haren kideek berdin jarduten dute erakundearen ordezkari gisa (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 22. eta 23. artikulua).

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 21. artikulua fiskaltzen lurralde-eskumena arautzen du, Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuen aurkako Fiskaltza Bereziaren, Drogaren aurkako Fiskaltza Bereziaren eta Auzitegi Nazionalako Fiskaltzaren eskumen objektiboaren ondoriozko salbuespenei kalterik egin gabe (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 19. artikulua), bai eta sala-fiskal espezialistenak ere (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. eta 22. artikulua).

Horretarako, erreproduzitzat jo behar dira Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989 eta 4/2013 Zirkularretan eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2005 Kontsultan ezarritako jarraibideak: arau orokor gisa, ikerketa egiteko eskumena fiskalari ematen zaio, jarduteko legitimatuta dagoen jurisdikzio-organoen eskumenaren bidez.

Horrenbestez, lurraldeetako fiskaltzek ez dute ikerketa paralelorik egingo, baldin eta ikerketa horien xedea guztiz edo partzialki bat badator.



Hori saihesteko, fiskaltza batean beste fiskaltza baten lurraldean gauzatutako egitateak ikertzen badira, fiskaltzako buruzagitzak fiskaltzari jakinarazi beharko dio, ikerketa abiarazi edo, kasuaren arabera, zabaldu den unetik bertatik. Betebehar horrek iraun egingo du, baita ikertutako egitateen zati bat beste lurralde batean egin denean ere. Jakinarazpen hori idatziz egingo da, eta ikertutako egitateen laburpen bat jasoko du, baita fiskaltza izapidetzeko eskuduntzat jotzeko arrazoien azalpen labur bat ere.

Egitateak hainbat lurraldetan egin izanaren ondorioz, xede bera duten hainbat ikerketa egin direla egiaztatuz gero, eta hainbat fiskaltza objektiboki eta lurraldeari dagokionez eskudunak direla egiaztatuz gero, horien berri izan duen lehenengo fiskaltzari egokituko zaio ikerketa horien berri izatea. Kasu horietan, gainerako fiskaltzak berehala inhibituko dira haren alde, eta ordura arte gauzatutako eginbide guztiak igorriko dituzte.

Orain aztertzen ari garen ondoreetarako, ulertuko da fiskaltza batek delituaren berri jaso zuen unetik izan duela ikertutako egitateen berri, horiek erregistratu ziren eguna edo ikerketa-eginbideak abiarazi ziren ala ez kontuan hartu gabe. Fiskaltza batek baino gehiagok egitate kriminalaren berri aldi berean jaso dutenean, plantilla handiena duen fiskaltza izango da eskuduna. Fiskal kopuru bera izatearen salbuespenezko kasuan, mailarik gaileneneko fiskalak izango du eskumena.

Buruzagitzak ondorioztatzen badu —eginbiderik egin beharrik gabe—, Prozedura Kriminalaren Legearen 14. artikulua eta hurrengoaren arabera, bere lurraldeko organo judizialak batek ere ez duela eskumenik salatutako edo ikerketaren xede diren egitateez arduratzeko,



jarduketak organo judizial eskudunaren aurrean jarduteko legitimatutzat jotzen duen fiskaltzari igorriko dizkio. Kasu horretan, jada egin ez badu, ez du abiaraziko ikerketa-eginbiderik, eta, horren ordean, gobernu-espeditentea irekiko du, dekretu arrazoitu bidez, zeinean eskumena duela uste duen fiskaltzaren alde inhibitzea erabakiko baitu.

Fiskaltzen arteko komunikazio-bide informalak artikulatzea komeni dela alde batera utzi gabe eta askotariko helburuak betetze aldera, prozedura jakin bat ezagutzeko lurralde-eskumenik eza buruzagitzen bitartez bakarrik bideratu ahal izango da formalki. Horrenbestez, baztertu egingo dira fiskaltzaren buru ez direnen artean zuzenean egindako inhibitzioak eta/edo inhibitzio-eskaerak, jarduten duten fiskalen artean adostasuna egon arren.

Lurralde-eskumenik eza ikerketa-eginbideak hasi ondoren zehazten den kasuetan, esku hartzen duen fiskalak berehala jakinaraziko dio inguruabar hori dagokion buruzagitzari, eta, horretarako, txosten bat egingo du, alderdi hauek jasota:

- i) Ikertutako gertakarien zerrenda laburra.
- ii) Ikertutako pertsonaren identitatea.
- iii) Gertakarien behin-behineko kalifikazioa.
- iv) Prozedura hasi den eguna.
- v) Lurralde-eskumena eskuduntzat jotzen duen fiskaltzari dagokiola uste izateko arrazoiei buruzko azalpen labur bat, zeina kasu guztietan ere berariaz identifikatu beharko baita.



duenean beste fiskaltza batek ikertutako egitateez arduratzeko eta bere aldeko prozedura inhibitzea sustatu nahi duenean.

Lurralde-eskumenari buruzko eztabaida sortuz gero, planteatzen duen fiskalburuak txosten arrazoitu bat bidali beharko dio bere homologoari, eta bere alde —edo hirugarren baten alde— erabat edo partzialki inhibitzeko edo, kasuak hala eskatzen badu, sustatutako inhibitzioa onartzeko eskatuko dio. Bere komunikazioetan adostasunik lortzen ez bada, ados ez dagoenak eskaera egin ahal izango dio hierarkian gorago dagoen kide komunari, eta hark bidezkoa dena ebatziko du, tartean diren fiskalburuen eta salako fiskal espezialistaren iritzia jaso ondoren, haren jarduera-eremuaren barruko delitu-egitateengatiko ikerketa denean. Eztabaida hainbat autonomia-erkidegotako lurralde-fiskaltzen artean sortzen bada, Estatuko Fiskal Nagusiari planteatuko zaio desadostasuna, eta hark ebatziko du, tartean diren fiskalburuei eta dagokion salako fiskal espezialistari entzun ondoren (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 5/2007 Instrukzioa). Nolanahi ere, desadostasuna errepikatzeko, irizpide-aldaketa justifikatzen duten datu berriak agertu beharko dira.

Eztabaida konpontzen ez den bitartean, ikerketa zuzentzen duen fiskalak ikerketa behar bezala burutzeko egokitzat jotzen dituen eginbideak egiten jarraituko du, eta beharrezkoa izateko epea luzatzeko eskatuko du. Hala ere, ikerketak amaitu ondoren, eta ikerketa zapuztu daitekeen kasuetan izan ezik, jarduten ari den fiskalak ez du emango amaitutzat, ez eta artxibatzea edo salaketa edo kereila jartzea erabakiko ere.

Bestalde, gogorarazi behar da salako fiskal espezialistek eskumena izango dutela lurralde nazionaleko edozein lekutan jazotako gertakariengatiko ikerketa-eginbideak hasteko eta izapidetzeko, betiere Estatuko fiskal nagusiak berariaz eta aldez aurretik horretarako ahalmena eman badie, garrantzi bereziko gaiak direla iritzita



Bide Segurtasuna eta Atzerritartasuna Koordinatzeko Salako fiskalei eta Lurralde Fiskaltzen Atalei buruzkoa, eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2011 Instrukzioa, Kriminalitate Informatikoko Salako fiskalari eta Fiskaltzetako kriminalitate informatikoko atalei buruzkoa).

4.5 Europako Fiskaltzarekiko harremanak

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 86. eta 325. artikuluek Europako Fiskaltza sortzeko oinarriak ezarri zituzten, Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dieten arau-hausteei aurre egiteko.

Bi arau-xedapen horiek garatzeko, Kontseiluaren 2017/1939 (EB) Erregelamendua onetsi zen, 2017ko urriaren 12koa, *Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzaren indartua ezartzen duena*. Erregelamenduaren 11. kontuan hartuzkoan adierazten den bezala, «Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak xedatzen du Europako Fiskaltzaren eskumen materialen eremua Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dieten arau-hauste penaletara mugatzen dela, Erregelamendu honen arabera. Horrela, bada, Europako Fiskaltzaren eginkizunak izango dira Europar Batasunaren finantza-interesen aurkako delituen egileak ikertzea, auzipetzea eta epaiketara eramatea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/137 (EB) Zuzentarauaren arabera, bai eta horiekin lotura bereizezina duten delituak ere».

Europako Fiskaltza sortzeko Lankidetzaren Indartua ezartzen duen Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamendua aplikatzeko uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoa onetsi ondotik, Europako Fiskaltza Espainian sartu izanak aholkatzen du



Fiskaltzako kideei gutxieneko jarraibideak ematea bi erakundeen arteko harremanak eta komunikazioak bideratzeko moduari buruz, bai eta etorkizunean sor daitezkeen eskumen-eztabaiden aurrean jarduteko moduari buruz ere.

Uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren 4.1 artikulua araberak, Europako fiskal delegatuek eskumena dute Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dieten delituen egileen eta gainerako partaideen aurkako akzio penala ikertzeko eta gauzatzeko, merezi duten kalifikazio juridiko zehatza edozein dela ere. Eskumen hori berariaz zehazten da manu beraren bigarren apartatuan, Zigor Kodean tipifikatutako delitu batzuei dagokienez.

Beren eginkizunak betetzean, Europako fiskal delegatuek Fiskaltzako kideen lankidetzak eskatu ahal izango dute jardura zehatzak gauzatzeko, eta horretarako Estatuko Fiskaltza Nagusira jo beharko dute (uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren 5.3 artikulua).

Ondorioz, eginbide zehatz bat edo batzuk gauzatzeko edozein lankidetzak eskaera zuzenean jasotzen duten fiskal nazionalak Europako Fiskaltzari jakinaraziko diote Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bidez bideratu behar dituztela eskaerak (uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren 22. artikulua).

Aldiz, fiskalek uste dutenean Europako Fiskaltzari dagokiola Fiskaltzaren ikerketa-eginbide batzuen esparruan ikertzen ari den gai baten gaineko eskumena, berehala jakinaraziko diote —dagokion buruzagitzaren bitartez— Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuen aurkako Fiskaltza Bereziko salako fiskal buruari, eta hark, berriz,



Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Idazkaritza Teknikoari. Eskumena Europako Fiskaltzari dagokiola ondorioztatzen bada, Estatuko Fiskaltza Nagusiko titularrak edo hark izendatzen duenak Europako fiskal delegatuei jakinaraziko die, bereganatzeko eskubidea egikaritu ahal izateko (uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren 19.1 artikulua).

Jakinarazpen horren ondoren, Europako Fiskaltzak gaiaren eskumena bere gain ez hartzea erabakitzen badu, Estatuko fiskal nagusiak ebatziko du

desadostasuna, uztailaren 1eko 9/2021 Legearen 9.1 artikulua dionari jarraikiz, eta, horretarako, alde aurretik Salako Fiskalen Batzordea deituko du (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 21. bis artikulua).

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulua edukia hitzez hitz hartuta, badirudi saihetsezina dela eginbide hori. Hala ere, manuaren azterketa sistematiko eta teleologikoak aukera ematen du baieztatzeko akzio penalaren egikaritzari buruz erabakitzeko ezinbestekotzat jotzen denean bakarrik egin beharko dela.

Ikertutako pertsonaren deklarazio judizialak izaera bikoitza du. Ikerketa-egintza izateaz gainera, defentsa-eskubidea gauzatzearekin estuki lotutako eginbide bat da. Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 19ko 128/1993 Epaia, apirilaren 19ko

129/1993 Epaiak, irailaren 20ko 273/1993 Epaiak eta urriaren 17ko 277/1993 Epaiak gogorarazten dutenez, prozesu penalaren eremuan defentsarako konstituzio-eskubidea indarrean egoteak esan nahi du inor ezin dela akusatu formalki ikertu gabe eta, aurrekoaren ondorioz, instrukzio-epaileak instrukzioa amaitu aurretik entzun gabe. Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 29ko 5/2019 Autoaren hitzetan, «aurretiazko entzunaldiaren berme gisa ikertua deklaratzearen baldintza koherentea da zuzenbide-estatu demokratiko batean zuzenbidearen eta prozesu penalaren printzipio inspiratzaileekin, eta halaxe gogorarazi dugu, halaber, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 21eko 197/1995 Epaian (6. oinarri juridikoa) eta urriaren 2ko 161/1997 Epaian (5. oinarri juridikoa). [...] Deklarazio hori, frogabidea edo ikerketa-egintza izateaz gainera, funtsean defentsa-adierazpen edo -bide egokitzat jo behar da».

Aurreko gogoetak ezin dira automatikoki eraman Fiskaltzaren prozesuz kanpoko jarduerara. Susmagarriaren deklarazioa egitea ez da ezinbestekoa fiskalak salaketa edo kereila jarriz zigor-arloko prozesu bat hasteko eska dezan. Ikerketa-eginbideek ez dute prozedura judizialaren izaera bera.



Gorago esan den bezala, Fiskaltzaren ikerketak helburu mugatua du: akzio penala gauzatzeari buruz erabakitzea.

Hala ere, fiskalek pertsona jakin bati delitu-egitate bat egozte ahalbidetzen duen egozpen-oinarri materiala ikusten duten unetik bertatik —hau da, subjektu jakin batek ez-zilegitasun penal bat egiten parte hartu izanaren gaineko susmo sendoak dituzten unetik—, automatikoki egotzi beharko zaio *susmagarritasuna* pertsona horri. Kasu horretan, jarduketak berehala judizializatu ezean, fiskalek honako alderdi hauen berri emango diote susmagarriari —hizkera erraz eta eskuragarrian eta ulertzen duen hizkuntza batean—:

- i) Egozten zaizkion egitateak.
- ii) Egitateon behin-behineko kalifikazio juridikoa.
- iii) Abokatu ordezkariaren bidez eginbideen edukia eskuratzeko aukera.

iv) Orduetik aurrera egiten diren eginbideetan aurkakotasunez esku hartzeko eskubidea.

Aurreko informazioa eta susmagarriak dituen eskubideak (Prozedura Kriminalaren Legearen 118. artikulua) egiten den aktaren hasieran jasoko da berariaz, eta susmagarriak berak eta haren abokatu ordezkariak sinatuko dute. Prozedura pertsona juridiko baten aurkakoa denean, Prozedura Kriminalaren Legearen 119. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Susmagarriari egindako zitazioan, berak aukeratutako abokatua epe jakin batean izendatu behar duela ohartaraziko zaio, eta, bestela, ofiziozko bat izendatuko zaiola jakinaraziko zaio. Azken kasu horretan, fiskalek



dagokion abokatuen elkargoko dekanotzarengana joko dute, eta ofiziozko abokatua izendatzeko eskatuko dute.

Beste askoren artean, Auzitegi Gorenaren uztailaren 11ko 601/2013, maiatzaren 11ko 364/2011, martxoaren 7ko 179/2007 eta urriaren 29ko 512/2018 epaiek adierazten duten bezala, gogorarazi behar da «inputatua [susmagarria] ez dela jarri behar lekukoaren deklarazioen araubidearen mende, baldin eta egindako eginbideetatik erraz ondoriozta badaiteke haren aurka egitate zigorgarri batean parte hartu izanaren susmoa ageri dela, bai prozesu penala hasteko edozein bitartekotan hala agertzen delako, bai jarduketan egoeratik ondorioztatzen delako, bai edozein kautelazko neurriren edo egozpen formaleko egintzaren mende jarri delako (Prozedura Kriminalaren Legearen 118. artikulua), inputazioa ez baita behar-beharrezkoa dena baino gehiago atzeratu behar; izan ere, defentsa-eskubidearen sorrera oinarrizko eskubide hura zapuztea eragiten duen inputazioarekin lotuta dago (Prozedura Kriminalaren Legearen 118. artikulua), instrukzioko epaileak arbitrarioki atzeratzen badu inputazioaren berri ematea. Hori dela eta, jarduera prozesal hori Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua

aurkakotzat jo beharko litzateke, eta, beraz, debekatutako frogaren zehapen prozesala legokioko».

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2018 Zirkularrak (*Prozesu penaletan ikertutakoen informazio-eskubideari buruzkoa*) adierazten duen bezala, ikerketa-eginbideen eremuan susmagarriaren deklarazioak Prozedura Kriminalaren Legeak organo judizialean ikertutako pertsonak emandakoetarako aurreikusten dituen berme berberak izango ditu; horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

i) Susmagarriari deklarazioa jasotzeko zitazioak nahitaez jasoko du deklarazioa egiteko arrazoia, eta argi eta garbi jakinaraziko zaio zer eskubide dituen; halaber, ohartaraziko zaio arrazoi justifikaturik gabe agertzeari uzten badio, atxilotzeko agindua eman ahal izango dela.



ii) Susmagarriak, haren letraduak eta, hala denean, haren prokuradoreak Fiskaltzaren eginbideetan egindako jarduketetara jo ahal izango dute, beren deklarazioa behar bezala prestatu ahal izateko aurrerapen nahikoarekin. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234.2 artikulua arabera, onartu behar da aukera dutela jarduketan kopia sinpleak edo horien lekukotzak lortzeko. Kopiak edo lekukotzak eskuratzeko, dagokion jasotze-eginbidea egin beharko da. Eginbide horretan, kopiak zein egunetan entregatu diren eta kopiak jasotzen dituen pertsonaren eta lekukotzak ematen dituen funtzionarioaren nortasuna adierazi beharko dira. Kopia horiek formatu digitalean edo fisikoan egin ahal izango dira —fiskalak aukeratuko du—.

iii) Susmagarriaren deklarazioa, kasu guztietan ere, eginbideen ardura duen fiskala bertan dela egingo da, eta aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio, modu argi eta ulergarrian, egozten zaizkion egitateak, behin-behineko kalifikazio juridikoa, xedeari dagokionez gertatzen diren aldaketa garrantzitsuak, eta ordutik

aurrera egiten diren eginbideetan esku hartzeko eskubidea.

iv) Susmagarriak eskubidea izango du isilik egoteko, egiten zaizkion galderetako bati edo batzuei ez erantzuteko —bere abokatuaren galderei soilik erantzun ahal izango die—, bere buruaren aurka ez deklaratzeko eta bere burua errudun ez aitortzeko.

Susmagarria desgaitasuna duen pertsona bat bada eta gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriak behar baditu, beharrezkoak diren doikuntzak egingo dira, eta informazioa argi, behar bezala eta eskuragarri emango zaio, haren ezaugarri pertsonaletara eta beharretara egokituta, erabaki horrekin lotutako xedea eta ondorioak ezagutzeko aukera izan dezan. Beharrezkoa izanez gero, irakurketa errazeko bitartekoak eta komunikaziorako laguntzak erabiliko dira, betiere Prozedura Zibilaren Legeren 7. *bis* artikuluan jasotako moduan (ekainaren 2ko 8/2021 Legeak sartutako idazkeraren arabera).



Desgaitasuna duten pertsonak haien aukerako pertsona batekin egon ahal izango dira agintariekin eta funtzionarioekin lehen harremana duenetik.

v) Aktan adierazpenaren iraupena jasoko da, eta ekitaldiaren hasiera-ordua eta minutua eta amaiera adieraziko dira. Agerraldia atzeratzen bada, fiskalak atzerapenaren arrazoen azalpena emango die deklaratzailari eta haren abokatu ordezkariari.

vi) Susmagarriak eta haren letraduak deklarazioa irakurri ahal izango dute, eta, behar izanez gero, haien ustez behar bezala transkribatu ez dena aldatzeko eskatu ahalko dute. Fiskalarekin adostasunik ez badago, aktan jasoko da desadostasuna. Aukera hori eskaini beharko da, halaber, deklarazioa transkripzioarekin ez ezik, ikus-entzunezko euskarrian ere jaso denean, hargatik eragotzi gabe kasu horietan transkripzioari eman beharreko hondar-balioa. Parte-hartzaile guztiek sinatuko dute akta, eta kopia bat emango zaio deklarazio-

egileari.

vii) Fiskalak bere deklarazioa erabakitzeke duen ahalmenaren kalterik gabe — horretarako baldintzak betetzen direnean—, susmagarriak susmagarritasun izaera eskuratzen duenean noiznahi eskatu ahal izango du bere deklarazioa, Prozedura Kriminalaren Legearen 400. artikulua egiten dituen aurreikuspenen arabera, zeina analogiaz aplikatu beharrekotzat jotzen baita.

Era berean, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5.2 artikulua arabera, susmagarria atxilotzen den kasuetan, errespetatu egin beharko dira Prozedura Kriminalaren Legearen 520. artikuluan aitorturiko eskubideak.

Jarduera-batasuna bermatze aldera, komeni da zehaztea, ikerketa susmagarri baten baino gehiagoren aurkakoa denean aldi berean, pertsona guztiei aukera emango zaiela aurkakotasunez esku hartzeko fiskalak gainerako susmagarriei egiten dizkien adierazpenetan, bakoitzak bere abokatu ordezkariaren bidez.



5.2 Argazki bidezko errekonozimenduak

Argazki bidezko errekonozimenduak eginbide egokia dira ikertutako egitateen egiletza ikertzeko, hau da, hainbat pertsonaren argazki bat edo batzuk erakustea, eta, horien artean, delitu-egitate bat egin izanaren susmagarri direnenak.

Eginbide atipikoa da, eta ez du berariazko aitorturik gure ordenamendu juridikoan. Hala ere, jurisprudentziak behin eta berriz onartu du hori egitea, eta auzitegi-praktika tresna baliagarria izan da ikerketa bideratzeko eta gertakarien egilea identifikatu ahal izateko.

Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 20ko 18/2017 Epaiak adierazten duen bezala,

«argazki bidezko errekonozimendua froga-mailara iristeko beharrezkoa da lekukoak osoko bilkuran berrestea, edo horretan gertakarien egilea aitortzen duenean, eta alderdiei galdeketa gurutzatua egin ahal izango zaie ikusi dituela dioen gertakariei eta egindako aitopeneri buruz». Antzeko adierazpenak egiten dituzte, besteak beste, Auzitegi Gorenaren abenduaren 30eko 901/2014, maiatzaren 25eko 444/2016, urriaren 24ko 501/2018 eta urtarrilaren 16ko 41/2020 epaiek.

Gai logistiko eta praktikoek aholkatzen dute fiskalek eginbide hori Polizia Judizialaren esku uztea. Kasu horietan, honako jarraibide hauek bete behar direla azpimarratuko da, eta gogoraraziko da ikerketa-eginbide hori akituta geratuko litzatekeela polizia-funtzionarioek identifikazioan parte hartzen dutenei argazkien identitateei buruzko edozein iradokizun edo ohar bidaliko baliete:

93

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

- i) Errekonozimenduari ekin aurretik, ekitaldiaren garrantzia eta esanahia jakinaraziko zaio lekukoari, eta adieraziko zaio egitateen egilea ikusgai jarriko diren pertsonen artean egon daitekeela ala ez.
- ii) Lekukoari ahalik eta argazki kopuru askotarikoena erakutsiko zaio, eta gutxienez kasu askotan ezaugarri fisikoetan antzekotasunak dituzten fisionomiak integratuko dira.
- iii) Pertsona bat baino gehiago deitzen bada eginbide hori gauzatzeko, modu independentean esku hartuko dute, beren artean beharrezkoa den inkomunikazioarekin, eginbidearen objektibotasuna zalantzan jartzen duten elkarrekiko eraginak saihesteko. Era berean, interferentzia posibleak saihesteko, esku-hartze horietako bakoitzerako argazkien erakusketa-ordena aldatu beharko da.
- iv) Aktan jasoko dira erakutsitako argazki guztiak, eta lekukoaren sinadura jasoko da, errekonozituriko irudiari buruz.

v) Lekukoari eskatuko zaio errekonozimendua egiteko ziurtasuna edo zalantza adieraz dezala, eta izan ditzakeen zalantzak zehazteko eskatuko zaio. Lekukoei ez zaie eskatuko ziurtasun-ehunekoei buruzko iritzia emateko, subjektiboa baita ziurtasun-mailaren zenbakizko kuantifikazioa, lekukoak berez egindako adierazpen guztiak dokumentatzearen kalte gabe.

Era berean, adierazi behar da, ahal den guztietan, eginbide hori dokumentatzeko, irudia eta soinua grabatzeko bitartekoak erabiliko direla, idatzizko akta egin beharra alde batera utzi gabe.



5.3 Taldeko identifikazio-saioak

Doktrinak baieztatu duenez, delitu-egitatea gauzatzen parte hartu dutenen nortasunari buruzko zalantzak argitzeko dagoen metodorik irekien eta zuzenenetako bat da.

Prozedura Kriminalaren Legearen 368. artikulua eta hurrengoek izaera judiziala ematen diote taldeko identifikazio saioen eginbideari, baina ez dago oztoporik ulertzeko eginbide hori Polizia Judizialaren edo Fiskaltzaren ekimenez ere egin daitekeela prozesuz kanpoko fase batean (ikus Auzitegi Gorenaren 711/2002 Epaia, apirilaren 22koa; 1202/2003 Epaia, irailaren 23koa; 503/2008 Epaia, uztailaren 17koa; 428/2013 Epaia, maiatzaren 29koa; 901/2014 Epaia, abenduaren 30ekoa; 444/2016 Epaia, maiatzaren 25ekoa; 18/2017 Epaia, urtarrilaren 20koa; eta 134/2017 Epaia, martxoaren 2koa).

Taldeko identifikazio-saioen eginbidea ez da alde aurretik eratua; izan ere, adostasuna dago honako honetan: «instrukzio-fasean taldean eginiko identifikazio-saioa bera ere ez da balioetsi daitekeen froga-eginbide bat; izan ere, eginbide hori, nahiz eta berme guztiekin egin, ezin da jo froga aurreratutzat eta

aldeztatik eratzat, ahozko judizioan erreproduzitu ezinezkotzat, errepikaezina delakoan. Errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko frogabaliotzko eta nahikotzat jo ahal izateko, eginbidea ahozko epaiketan erreproduzitu behar da, biktimak edo lekukoak epaiketa horretan berretsiz, haren deklarazioa kontraesanean jarri ahal izateko, ahoz eta berehala» (Auzitegi Gorenaren azaroaren 30eko 786/2017 Epaia).

Hala ere, osoko bilkuran eginbidearen emaitza sartzeko aukera, lekukoak ahozko judizioan deklaratu ezin duela ikusten bada, organo judizialak Prozedura Kriminalaren Legearen 368. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera praktikaturako errekonozimenduetara mugatuko da, Prozedura Kriminalaren Legearen 730. artikuluan arabera.

95

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Eginbide hori gauzatzeko, aipaturako manuetan agindutakoa beteko da, salbuespen bakarrarekin: epailearen eta Justizia Administrazioaren letraduaren presentziari eta esku-hartzeari buruzkoa, eta, beraz, saihetsezina izango da susmagarriaren abokatu ordezkariaren laguntza.

Gure ordenamendu juridikoak ez du zehazten zenbat pertsonak, susmagarriaz gainera, osatu behar duten taldeko identifikazio-saioa, ezta nola jarri behar diren ere, baina fiskalek zainduko dute taldeak gutxienez bost kide izatea —tartean, susmagarria—, bai eta ilaran eta aldi berean lekukoaren aurrean erakustea ere, lekukoak haren aurpegia edo, hala badagokio, errekonozimendupean dagoen gorputz-zatia behar bezala ikusteko moduan.

Susmagarria atxilotuta badago, zaindu egin behar da eginbidea egiten denean egoera horren berri ez izatea, eta horren berri ematen duen zeinurik ez egotea.

Eginbidea gauzatzeko deitu diren lekukoak bat baino gehiago badira, modu independentean esku hartuko dute, beren artean beharrezkoa den inkomunikazioarekin, eginbidearen objektibotasuna zalantzan jartzen duten elkarrekiko eraginak saihesteko. Era berean, interferentzia horiek saihesteko, taldeko identifikazio-saioaren osagaien erakustaldi-ordena aldatuko da esku-hartze horietako bakoitzerako.

Fiskalek aitortpena egiteko ziurtasuna edo zalantza adierazteko eskatuko diote lekukoari, eta izan ditzakeen zalantzak zehazteko eskatuko diote.

96

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Hala ere, lekukoari ez diote eskatuko ziurtasun-ehunekoei buruzko iritzia emateko, subjektiboa baita ziurtasun-mailaren zenbakizko kuantifikazioa, horrek ezertan galarazi gabe berez egiten dituen adierazpen guztiak dokumentatzea.

Taldeko identifikazio-saioa zuzentzen duen fiskalak akta egingo du, eta bertan inguruabar hauek adieraziko dira:

- i) Identifikazio-saioan agertu diren kideen nortasuna, izen-abizenak, NANA, pasaportearen edo beste edozein identifikazio-agiri ofizial adierazita.
- ii) Lekukoaren nortasuna, izen-abizenak eta NANA, pasaportearen edo beste edozein identifikazio-agiri ofizial adierazita.
- iii) Fiskalaren nortasuna, izen-abizenak adierazita.
- iv) Defentsaren letraduaren nortasuna, izen-abizenak eta elkargokide-datuak adierazita.
- v) Lekukoak eginbidean zehar egindako adierazpenak.
- vi) Defentsaren letraduaren adierazpenak, horiek jasotzeko borondatea berariaz adierazten duenean.

Fiskalak arduratuko dira aktari identifikazio-saioan agertu direnen konposizioaren argazki bat eransteaz, eginbidea egiten denean. Ahal den guztietan, eginbidearen akta idatzia egin behar bada ere, irudia eta soinua grabatzeko bitarteko teknikoak

erabiliz dokumentatuko da.

Ahotsa errekonozitzeko eginbideak egitea onartuko da (ikusi Konstituzio Auzitegiaren 1530/2005 Epaia, apirilaren 12koa). Izan ere, Prozedura Kriminalaren Legeak 373. artikulua xedatzen duenez, auzipetuaren nortasunari buruzko zalantza bat sortuz gero, objektua lortzeko behar diren bitarteko guztiak erabiliko dira nortasun hori egiaztatzeko.

97

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Hori horrela den heinean, taldeko identifikazio-saioak egiteko aukerak ez dira mugatu behar ikusizko saioetara.

Fiskalek eginbide hori polizia judizialaren esku uzten dutenean, eginbide hori egitean aurreko jarraibideak betetzen direla zainduko dute. Nahasbiderik ez sortzeko, zehaztu behar da kasu horietan dagokion polizia-unitateko kideei dagokiela egin beharreko akta egitea.

5.4 Begi-ikuskapenak

Begi-ikuskapena delituaren tokia aztertu eta deskribatzean datzan ikerketa-bide bat da, haren betearazpenaren eta egiletzaren errealitatea egiaztatzeko eta egon daitezkeen aztarnak aurkitzeko.

Jurisdikzio-konfigurazioa izan arren (Prozedura Kriminalaren Legearen 326.etik 333.era bitarteko artikulua), Polizia Judizialak ofizioz egin ohi du eginbide hori, presazkoa eta errepikaezina den zigor-prozesua hasi aurretik (Prozedura Kriminalaren Legearen 13. eta 282. artikulua). Hala ere, ezerk ez du eragotziko fiskalek erabaki ahal izatea, beharrezkotzat joz gero, eta zeregin hori polizia judizialeko kideen esku utzi beharko da.

Fiskalek ikuskapena jarraibide hauen arabera egiten dela zainduko dute:

i) Ahal den guztietan, zona zigilatu egingo da, haren egoera aldatu ez dadin eta gerora egoki irizten bazaio ikuskatu ahal izan dadin.

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

ii) Espazio edo leku itxiak badira, irteerak eta sarbideak jasoko dira, eta horien egoera eta ezaugarriak deskribatuko dira.

iii) Gertakariaren lekuaren deskribapena egingo da, aurkitutako objektuak eta pertsonak barne, baita haien egoera eta kokalekua ere.

iv) Argazki-erreportaje bat egingo da, eta, ahal izanez gero, bideo-erreportaje bat ere bai.

v) Aurkitu diren delitu-aztarnak jaso eta zainduko dira, non eta nola aurkitu diren adieraziz, eta horien argazkiak egingo dira manipulatu aurretik.

vi) Tokiaren krokis bat egitea komeni den baloratuko da.

Aurkitutako aztarnak gordetzea polizia judizialaren ardura izango da, eta zaintza-katea une oro bermatzeaz arduratuko da. Horretarako, aztarnaren data eta ordua dokumentatuko dira, eta aztarnaren entrega egiten duten funtzionarioak eta jasotzen dutenak identifikatuko dira, bai eta aztarnaren deskribapen laburra eta argazki-erreportajea ere. Era berean, aztarnaren pisua agerraraziko da, haren izaera eta ikertutako delitua kontuan hartuta bidezkoztat jotzen denean.

Auzitegi Gorenaren apirilaren 24ko 387/2013 Epaiak adierazten duenez, «Prozedura Kriminalaren Legearen 333. artikulua [...] ezartzen duenez, aurreko artikuluetan zerrendatutako eginbideak gauzatzean [begi-ikuskapena] “norbait auzipetu bada egitate zigorgarriaren ustezko egile gisa, eginbideak gauzatzeko unean bertan egon ahal izango da, dela bakarrik dela berak aukeratutako edo ofizioz izendatutako defendatzailearekin batera, baldin eta hala eskatu badu”. [...]

ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Era berean, inputatuaren presentzia eragotz dezakeen inguruabar justifikaturik ez badago, Polizia Judizialak, instrukzioko epaileak bezalaxe, ikuskapen-eginbidera joaten saiatu behar du, aurkakotasunik eza saihesteko».

Aurreko gogoeta horiek Fiskaltzaren ikerketara estrapolatu daitezke, eta, horregatik, fiskalek beren jarduna egokitu egingo dute Prozedura Kriminalaren Legearen 333. artikuluan jasotako aurreikuspenetara.

5.5 Polizia-zaintzak eta -jarraipenak

Espazio publikoetako polizia-behaketek eta -zaintzek gaur egun ez dute lege-aurreikuspenik gure prozesu-antolamenduan.

Ordenamendu juridikoak ez du araurik edo manurik bideratzen zaintza diskretuak edo bisualak arautzeko. Auzitegi Gorenaren martxoaren 10eko 610/2016 Epaiak adierazten duen bezala, «aurrekari jurisprudenzial argi eta axiomatikoak ere baditugu, arau espezifikorik ezean, jarduketa-protokolo bati forma eman diezaioketenak; sala honen apirilaren 20ko 329/2016 epaiak adierazten du agente batek bere begiz edonoren esku dagoena jasotzeak ez duela urratzen inoren oinarrizko eskubiderik. Polizia-agenteak polizia gisa konta dezake zaintza-eta jarraipen-lanak egiten ari zela ikusi eta behatu zuena. Gure konstituzio-sistemak ez du oztoporik jartzen esparru publikoetan ikerketa penal baten esparruan oharrak eta jarraipenak egiteko».

Fiskalek polizia judizialari agindu diezaiokete polizia-zaintzak eta -jarraipenak egiteko, eginbidea zein pertsonari edo pertsonari egin behar zaion adierazita. Era berean, onargarria izango da eginbidea objektu edo leku jakin baten gainean egitea. Kasu horietan, agente jarduleek jarraitu beharreko jarraibideak eta irizpideak emango dituzte fiskalek,

ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

eta zehaztu egingo dute eginbidea zein egunetan, ordutan eta lekutan egin behar den, egoki irizten diotenean.

Eginbidea gauzatzea erabakitzen duen dekretuak zehaztuko du, ezagutzen den kasurako, zein subjektuen gainean ari den edo diren, eta praktikaren bidez lortu nahi den emaitza zehaztuko du. Iraupena ere aurreikusi beharko da, nahiz eta ondoz ondoko luzapenak onartu ahal izango diren ikerketaren emaitzak hala justifikatzen duenean.

Horretaz gainera, fiskalek Polizia Judizialari eskatu ahal izango diote bideozaintzako mekanismo teknikoak erabil ditzala, zaintzapean dauden subjektuen, objektuen edo lekuen irudia grabatzeko, betiere bide publikoan gertatzen diren ekintzak jasotzera mugatzen badira. Prozedura Kriminalaren Legearen 588. *quinquies* artikulua arautzen du aukera hori: «Polizia Judizialak, zeinahi bitarteko tekniko erabilita, pertsona ikertuaren irudiak lortu eta grabatu ahal izango ditu, berau toki edo espazio publiko batean dagoenean, beharrezkoa baldin bada hura identifikatzeko, delituaren tresnak edo efektuak kokatzeko edota egitateak argitzen lagunduko duten datu garrantzizkoak lortzeko». Aipaturiko manuairen bigarren apartatuak jasotzen duenez, «Neurria aurrera eraman ahal izango da ikertuak ez diren beste pertsona batzuei eragiten dienean ere, betiere, hala egin ezean, modu garrantzitsuan murrizten bada zainketaren erabilgarritasuna, edota pertsona horien, ikertuaren eta ikerketaren xede diren egitateen arteko erlazioen aztarna funtsatuak daudenean».

Auzitegi Gorenaren urriaren 17ko 1932/2013 Autoak adierazten duen bezala (antzeko terminoetan, ikusi Auzitegi Gorenaren 180/2021 Epaia, martxoaren 14koa; eta 99/2020 Epaia, martxoaren 10ekoa) «lehen aipatutako baldintzetan eta familiaren intimitatean bidegabeki sartu gabe lortutako argazki- eta bideo-materialak froga-balio ukaezina du, betiere ahozko judizioko saioetan erreproduzitzen bada. [...]



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Polizia judizialaren jarduketak dira, eta Prozedura Kriminalaren Legearen 282. artikulua babesten ditu; izan ere, polizia judizialaren eskuduntzen artean daude delitu publikoak egiaztatzeko eta delitugileak aurkitzeko beharrezkoak diren eginbideak, kontuan hartuta grabazioak helburu horrekin egiten direla. [...] Beraz, ez dira prebentziozko grabazio soilak, delitua ikertzera eta egileak aurkitzera bideratutako polizia-eginbideak baizik».

Jurisprudenzia-doktrina hori, Auzitegi Gorenaren martxoaren 27ko 200/2017 Epaiak adierazten duen bezala, «13/2015 Lege Organikoak gauzatutako erreforma prozesalean islatu da, 588. *quinquies* a) artikulua berria txertatu ondotik, zeinak ezartzen baitu Polizia Judizialak edozein bitarteko teknikoren bidez ikertutako pertsonaren irudiak lortu eta grabatu ahal izango dituela leku edo espazio publiko batean dagoenean, nahiz eta neurriak ikertua ez den pertsonengan eragina izan, eta, legearen hitzaurrean jasotzen den bezala, kasu horietan ez da beharrezkoa izango baimen judiziala ematea, ez baitaio eragiten Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan jasotako oinarritzko eskubideetako bati ere».

Hala ere, gogoratu behar da espazio publikoetan elkarrizketak lortzeko beharrezkoa izango dela aldez aurretik epailearen baimena izatea, Prozedura Kriminalaren Legearen 588. *quater* a) artikulua araberak. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2019 Zirkularrak (*gailu elektronikoak erabiliz ahozko komunikazioak jaso eta grabatzeari buruzkoa*) jasotzen duen bezala, «leku publikoetan komunikazioak grabatzeko edo jasotzeko, epaileak baimena eman behar du beti. Nahiz eta kontraesana dirudien, adierazi den bezala, komunikazioa polizia-agente batek zuzenean entzun dezakeela baimen judizialaren beharrik gabe, eta, hala ere, ezin dela hura grabatzera jo —kontuan izanik frogari berme handiagoz hornituko lukeela ikertuaren onurarako— baimen judizial hori izan ezean, legegintza-aukera horrek grabazioa ikertuaren irudietara mugatzen den kasuetan bakarrik balio izango du, aldi berean soinua grabatzen ez denean».



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

5.6 Dokumentazioa eta informazioa eskatzea

Fiskalek era guztietako agiriak aurkezteko eskatu ahal izango dute, ikerketak egiteko egokitzat eta baliagarritzat jotzen badira; salbuespena izango dira eskuratzeko eta aztertzeke epailearen aurretiazko baimena behar duten agiriak.

Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren 7.1 artikulua araberan, «administrazio publikoek, bai eta edozein pertsona fisiko edo juridikok ere, eskatzen dizkieten eta arau-hauste penalak ikertzeko eta epaitzeko edo zigorrak betearazteko beharrezkoak diren datu, txosten, aurrekari eta egiaztagiria emango dizkiete agintari judizialei, Fiskaltzari edo Polizia Judizialari. Polizia Judizialaren eskaera uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 549.1 artikulua esleitzen dizkion eginkizunak betetzera soilik egokitu beharko da, eta beti egin beharko da modu arrazoitu, zehatz eta espezifikoa, betiere agintaritzaren judizialari eta fiskalari horren berri emanez». Eta kasu horietan, 7/2021 Lege Organikoaren 7. artikulua horren 4. apartatuaren araberan, «interesdunari ez zaio jakinaraziko bere datuak agintari eskuduneri transmititu zaizkienik, ez eta agintari horiek datu horiek edozein modutan eskuratu dituztenik ere, ikerketa-jarduera bermatze aldera. Helburu berarekin, ordenamendu juridikoaren araberan agintari eskudunekin lankidetzan aritzeko betebeharrak espezifikoa duten subjektuek [...] ez diote interesdunari jakinaraziko beren datuak agintari horiei transmititu zaizkiela, ez eta agintari horiek beste edozein modutan datuak eskuratzeko erraztu dutela ere, beren betebeharrak espezifikoa betetz».



Erakunde publikoek zaindutako dokumentuen kasuan, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 4.3 artikulua ahalmena ematen die Fiskaltza osatzen dutenei «edozein motatako agintarien eta horien agenteen laguntza eskatzeko», eta, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 4.5 artikulua ezartzen duenez, «Fiskaltzak artikulua honetan eta hurrengoan zerrendatzen diren ahalmenak erabiliz eskaera egiten dien agintari, funtzionario edo organismo edo partikularrek nahitaez erantzun beharko diote errekerimenduari, legezko mugen barruan».

Administrazio eta organismo publikoek nortasun juridiko propioa dute, beren kideen nortasunetik berezia. Horregatik, errekerimendua Zigor Kodearen 31. *bis* eta *quinquies* artikulua araberak ikerturiko merkataritza-sozietate publiko bati egiten zaion salbuespen bakarrarekin, ez da ikusi behar inolako oztoporik administrazio eta erakunde publikoei dokumentazioa aurkez dezaten eskatzeko, baita lege-ohartarazpen bidez ere, ikerketaren helburua agintari edo funtzionario publikoen erantzukizun kriminal posibleak argitzea denean. Kasu horietan, ez du izango inolako kalterik isilik egoteko eta norbere burua ez inkriminatzeko oinarritzko eskubideak, alde batera utzita susmagarriek erakundearen egitura organikoan betetzen duten posizio zehatza. Izan ere, jasotako dokumentuen titulartasuna eta horiek zaintzeko erantzukizuna beti egokituko zaie administrazio edo erakunde publikoei, eta ez ikertutako pertsona fisiko zehatzei.

Akusazioari dagokio frogazama prozesu penalean, eta ikertuak ezin du bere gain hartu autoinkriminazioa dakarren frogaelementurik aurkezteko betebeharra. Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 15eko 21/2021 Epaiaren hitzetan, «Estrasburgoko Auzitegiaren [Giza Eskubideen Europako Auzitegia] jurisprudentzia aztertu ondok, ondorioztatzen da autoinkriminaziorik ezaren bermearen porrota hautemateko ez dela ezinbestekoa hertsapen-adierazpena zigor-izaerako prozesuaren barruan lortu izana, eta,



hasiera batean, onargarria da informazioa derrigortze bidez lortzea Estatuaren *ius puniendia* gauzatzen ez den aurretiazko prozedura batean gertatu izana, eta gerora bakarrik sartzea prozesu penal batean, inkriminazio-ondorioekin. Autoinkriminaziorik ezaren bermean garrantzizkoena izango litzateke informazio-ematea hertsatzailea izatea, informazioa lortzen den prozedura-testuingurua edozein izanda ere, eta izaera penaleko edo zehatzaileko prozesu batean eragiten duen edo eragin lezakeen inkriminazio-ondorioa» [ikusi Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2004ko apirilaren 8ko epaia (*Weh vs Austria* kasua); 2009ko martxoaren 10ekoa (*Bykov vs Errusia*) eta 2016ko irailaren 13koa (*Ibrahim* eta beste batzuk vs Erresuma Batua)].

Azken batean, autokonkriminaziorik ezaren bermeak bere babesa hedatzen du, soil-soilik, elementu inkriminatzaileak ekarri beharreko derrigortzea susmagarri/ikertu berarengan edo etorkizunean susmagarri izan daitekeenarengan proiektatzen denean, baina ez hirugarren bat helburu duenean, nahiz eta pertsona juridiko horren egituran sartuta egon (ikusi Konstituzio Auzitegiaren 21/2021 Epaia, otsailaren 15ekoa; 68/2006 Epaia, martxoaren 13koa; 18/2005 Epaia, otsailaren 1ekoa; eta 277/2018 Epaia, ekainaren 8koa; 374/2017 Epaia, maiatzaren 24koa). Irizpide hori aplika dakieke pertsona juridiko pribatuei ere.

Hala ere, alferrikako eztabaidak saihesteko, fiskalak saiatuko dira kasu horietan beren errekerimenduak pertsona susmagarriak ez direnei zuzentzen, eta Administrazioari edo erakunde publikoari eskatuko diote pertsona susmagarrien esku-hartzea eragozteko, errekerimenduak behar bezala betetzen direla bermatzeko, bai eta defentsa-eskubidearen balizko afektazioen arriskua baztertzeko ere. Kautela-neurri berberak hartuko dira pertsona juridikoen edo erakunde pribatuen kasuan.



Agintari, funtzionario edo erakunde publiko ez direnek ere, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 4.5 artikulua araber, Fiskaltzaren errekerimenduei erantzun beharko diete, eta fiskalak legitimatuta daude errekerimendua egiteko Ministerio Publikoaren agindua arrazoirik gabe betetzen ez dutenei, Zigor Kodearen 556. artikuluko desobeditze-delituan eroriko direla ohartarazita.

Garrantzi berezia duenez, zehaztu behar da auzitegiek baliozkotasuna eman diotela Fiskaltzak ikerketa-eginbideen barruan banku-erakundeengandik bildutako dokumentazioari (ikusituz Auzitegi Gorenaren 986/2006 Epaia, ekainaren 19koa; 374/2020 Epaia, uztailaren 8koa). Ildo horretatik, egokia da Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2010 Zirkularra aipatzea (*prozesu penalaren eremuko ondare-ikerketan fiskalak dituen funtzioei buruzkoa*). Zirkular horretan honako hau adierazten da: «Badira izaera orokorreko zenbait jarduketa, banketxeei, erakundeei edo organismoei zuzendutako manuak jaulkitzera bideratuak, zeinen bidez ondare-informazioa eskatzen baita, eta horiei buruz ez dago zalantzarik: fiskalak egin ditzake halakoak, ikerketaren xedean zehazturiko helburuetarako. Hori horrela, Auzitegi Gorenaren ekainaren 19ko 986/2006 Epaia ezetsi egin zuen errekurtsio bat, banketxeek fiskalaren ikerketa-eginbideetan emandako informazioak baimen judizialaren bidez berretsi ez zirelako ipinia, eta, Auzitegi Gorenak gogorarazi zuenez, fiskalak eska diezaieke administrazio publikoei, erakundeei, sozietateei eta partikularrei, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 4., 5., eta 18. *bis* artikuluen araber, beren ikerketetan zehar beharrezko irizitako informazioa».

Ondare-ikerketari dagokionez, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2010 Zirkularrak zehazten ditu, besteak beste, fiskalak dokumentazio eta informazio erabilgarria jasotzeko balia ditzakeen zenbait erakunde:

Esan behar da organismo eta erakunde publiko eta pribatu asko daudela, eta fiskalak horietara jo dezakeela ikerketa-eginbideetan behar dituen datuak biltzeko.



Zehazki, banku-produktuei dagokienez, honako hauek aipa daitezke: Aurrezki Kutxen Espainiako Konfederazioa, Bankuen Espainiako Elkartea; sozietate eta enpresei buruzko ikerketei dagokienez, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia edo Merkataritza Erregistroak; ondasun higigarrien gaineko ikerketarako, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Automobilen Erregistroa, Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusiaren Itsasontzien Matrikulen Erregistroa, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren Aireontzien Matrikulen Erregistroa eta Ondasun Higigarrien Erregistroa; ondasun higiezinaren egoerari dagokionez, Jabetza Erregistroak edo Katastroko Zuzendaritza Nagusia. Azpimarratzekoa da, ondorio horietarako duen erabilgarritasunagatik, Notariotzako Indize Informatiko Bakarra, zeinak hamabostean behin jasotzen baitu telematikoki notariotzan baimendutako dokumentuei buruzko datu guztien jakinarazpena, Notariotzaren Kontseilu Nagusiari helarazia.

Kontuan izan behar da, halaber, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak berariaz gaitzen duela fiskala Zerga Administrazioari behar diren datu, txosten edo aurrekariak eskatzeko, laidotutako pertsonaren eskariz bakarrik pertsegitu ezin daitezkeen delituak ikertzeko edo jazartzeko eginkizunak betetzeko.

Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 43.3 artikulua ahalmena ematen dio Fiskaltzari Finantza Titularitateen Fitxategian sartzeko, kapital-zuriketarekin eta/edo terrorismoaren finantzaketarekin lotutako delituak ikertzean. Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak areagotu egiten ditu fitxategi horretara sartzeko aukerak, eta aukera eman die fiskalei edozein delitu astun ikertzeko kontsulta egiteko.

Era berean, fiskalak Aktiboak Berreskuratzeko eta Kudeatzeko Bulegora jo ahal izango dute susmagarriaren titulartasuneko ondasunak edo eskubideak aurkitzeko, Aktiboak Berreskuratzeko eta Kudeatzeko Bulegoa arautzen duen urriaren 23ko 948/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.



Konfiskazio autonomoaren prozedura prestatzeko ikerketa-eginbideen esparruan, hauxe xedatzen du Prozedura Kriminalaren Legearen 803. *ter q*) artikulua hiru apartatuak: «Fiskaltzak finantza-erakundeetara, organismo eta erregistro publikoetara eta pertsona fisiko edo juridikoetara jo ahal izango du, beren araudi espezifikoaren esparruan, betearazpenaren pean dagoenaren ondasun edo eskubide ezagunen zerrenda eman dezaten».

Era berean, fiskalek beren ikerketa-eginbideetan bildu eta txertatu ahal izango dituzte segurtasun pribatuko kameraren bidez lortutako grabazioak, haien frogabalioa modu baketsuan onartu baitu gure jurisprudentziak (ikusi Auzitegi Gorenaren 99/2020 Epaia, martxoaren 10ekoa). Toki publikoetako grabazioak direnean, ez da epailearen baimenik behar, nahiz eta sarbide mugatuko tokiak izan (ikusi Auzitegi Gorenaren 1220/2011 Epaia, azaroaren 11koa; 124/2014 Epaia, otsailaren 3koa; 67/2014 Epaia, urtarrilaren 28koa; 649/2019 Epaia, abenduaren 20koa; eta 135/2019 Epaia, martxoaren 12koa).

Auzitegi Gorenaren abenduaren 20ko 649/2019 Epaia (ildo bertsutik, ikusi Auzitegi Gorenaren 129/2019 Epaia, otsailaren 26koa, eta 99/2020 Epaia, martxoaren 10ekoa) «zilegi da bideozaintza egitea bitarteko espazio deiturikoen eremu komunetan, hala nola kafetegietan, saltokietan, urbanizazioen igarotze publikoko eremuetan eta abarretan [...]. [...] Saltokietan segurtasun- eta zaintza-kamerak jartzeko aukera bermatuta dago Datuak Babesteko Agentziak horretarako egindako azterlanean; haren *Segurtasunerako eta beste helburu batzuetarako bideokamerak erabiltzeari buruzko gidan*, babesa ematen zaio aukera horri. [...] Doktrinak dioten bezala, bideokamerak instalatzearen funtsezko helburua delituaren prebentzioa da. Gogoan izan behar dugu, halaber, *Segurtasun Pribatuari buruzko* apirilaren 4ko 5/2014 Legearen 41. artikulua (4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, *Herritarren Segurtasuna Babestekoa*) babesten duela, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak administrazio-kontrol jakin baten mende dagoela. Kontrol hori ez betetzeak administrazio-zuzenketak ekarriko ditu, baina, azaldu den bezala, ez ditu baliogabetzen prozesu-ondorioetarako hartzen dituzten irudiak, oinarrizko eskubideak urratzen ez badituzte.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Hala, partikularrek aurkeztutako filmazioak froga dokumental bihur daitezke prozesu penalean (Prozedura Kriminalaren Legearen 726 artikulua)».

Fiskalek jaso ditzaketen kazetaritza-grabazioak ere onartuko dira froga-iturri gisa (ikusi Auzitegi Gorenaren 180/2012 Epaia, martxoaren 14koa), kamera ezkutuaren teknikaren bidez lortutakoak barne, betiere jurisprudentziak horretarako eskatzen dituen aldez aurreko baldintzak betetzen badira (ikusi, ildo horretan, Auzitegi Gorenaren 167/2020 Epaia, maiatzaren 19koa).

Prozedura Kriminalaren Legearen 588. *ter m)* artikulua araberan, fiskalek telefono-zenbaki baten edo beste edozein komunikabideren titulartasuna eskatu ahal izango dute. Eta, alderantziz, subjektu jakin baten titulartasuneko edozein komunikabideri lotutako telefono-zenbakiak edo identifikazio-datuak erreklamatu ahal izango dituzte. Horretarako, legitimazioa izango dute telekomunikazio-sare batean sartzeko edo informazio-gizarteko zerbitzu batean sartzeko errekerimendua egiteko telekomunikazio-zerbitzuak ematen dituztenei, ohartaraziz utzi ezean desobeditze-delitua egingo dutela. Kasu horietan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren *komunikazio telefoniko eta telematikoen interzeptazioari buruzko 2/2019* Zirkularrean jasotako irizpideen araberan jardungo dute fiskalek.

Ondare-ikerketari dagokionez, komeni da gogoraraztea indarrean dagoela Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2010 Zirkularra, prozesu penalaren eremuko ondare-ikerketan fiskalak dituen funtzioei buruzkoa.

5.7 Gardentasun-atarietarako sarbidea

Fiskalek zuzenean lortu ahal izango dute informazioa gardentasun-atarietatik. Atari horietarako sarbidea publikoa da, *Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko* abenduaren 9ko 19/2013 Legearen araberan.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Administrazio eta organismo publikoek aldian-aldian argitaratu eta eguneratu behar dute beren jardueraren gardentasuna bermatzeko garrantzitsutzat jotzen den informazioa. Zehazki, beharturik daude garatzen dituzten funtzioei, aplikagarri zaien araudiari edo antolaketa-egiturari buruzko informazio zehatza argitaratzera, horretarako organigrama eguneratu bat txertatuz, organoetako arduradunak, haien profila eta ibilbide profesionala, eta jardueren eta ondarearen erregistroa identifikatzeko. Era berean, garrantzi juridikoa duten informazio guztiak argitaratu behar dituzte, hala nola jarraibideak, instrukzioak, akordioak, zirkularrak edo herritarrek edo edozein entitate edo erakundek egindako kontsultei emandako erantzunak, betiere interpretazio juridikoa jasotzen badute edo ondorio juridikoak badituzte, baita egindako kontratuak ere, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazioaren eta adjudikazioaren zenbatekoa, adjudikazio-prozedura, sinatutako hitzarmenen eta kudeaketa-gomendioen zerrenda, sinatzaileak aipatuta, bai eta horien xedea, iraupena eta aldaketak ere. Horrekin batera, kasuan kasuko administrazio edo erakunde publikoaren aurrekontuak argitaratu behar dira, aurrekontu-partida nagusien deskribapenarekin eta horien betearazpen-egoerari buruzko informazio eguneratuarekin, emandako dirulaguntza eta laguntza publikoei buruzko datuekin edo goi-kargudunek urtero jasotako ordainsariekin, ikerketan zehar interesgarriak izan daitezkeen beste gai askoren artean.

Kasu horretan, fiskalek egiaztapen-eginbidearen bidez dokumentatuko dute gardentasun-atarirako sarbidea, edukietarako sarbide-lotura eta data adierazita, eta ikerketa egiteko garrantzitsutzat jotzen den informazioaren kopia bat erantsiko dute. Hori guztia, alde batera utzi gabe gerora, jarduketak judizializatu ondoren, ezinbestekoa izango dela dokumentazio horren lekukotza ofiziala, beharrezkotzat jotzen denean.



5.8 Iturri digital irekietarako sarbidea

Fiskalek ahalmen osoa dute —zuzenean edo polizia judizialaren bidez— irekitako iturri digitalak arakatzeko, sare sozialak barne, ikerketan zehar garrantzitsuak izan daitezkeen zantzuak aurkitzeko. Zilegi izango da jarduketetan pertsona susmagarriaren nahiz hirugarrenen argazkiak, bideoak eta iruzkinak sartzea, betiere prozeduraren xedearen arabera egokitzat eta erabilgarritzat jotzen badira, aurkitutako informazioaren arabera datu horiei eman dakiekeen balio zehatzaren kalterik gabe.

Auzitegi Gorenaren martxoaren 4ko 197/2021 Epaiak adierazten duen bezala, «informazio horretarako sarbidea [...] edozein erabiltzailek egin dezake. Ez da behar baimen judizialik publikoa dena lortzeko, eta sarearen erabiltzaileak berak sartu du edukia sarean».

Kasu horietan, fiskalek dagokion iturrirako sarbidea dokumentatuko dute, jasotze-eginbidearen bidez, eta edukietara sartzeko erabili duten esteka eta sarbide-data identifikatuko dituzte; orobat, ikerketan zehar garrantzitsutzat jotzen direnen kopia bat erantsiko dute. Hori guztia eginda ere, beharrezkoa izango da Justizia Administrazioaren letraduak eginbidea sustatzea jarduketak judizializatu ondoren, beharrezkotzat jotzen den kasurako.

Proba digitalaren iturrirako sarbidea ziurtatzeko, fiskalek zerbitzu-emailearen edukiak blokeatzea eskatuko dute, 7.2 epigrafean azaldutako baldintzetan.



5.9 Partikularrek lortutako froga-iturriak

Onartuko da partikularrek bildutako froga-iturriak Fiskaltzaren ikerketa-eginbideetan sartzea, fiskalek eman beharreko balioari kalterik egin gabe.

Erabaki isolatuak egon badauden arren (ikusitoki Auzitegi Gorenaren 793/2013 Epaia, urriaren 28koa; 45/2014 Epaia, otsailaren 7koa; eta 116/2017 Epaia, otsailaren 23koa), tradizionalki gehiengoa izan dira partikular batek lortutako frogatik kanpo uztea eta oinarrizko eskubideak urratzea erabaki duten ebazpen judizialak (ikusitoki Auzitegi Gorenaren 239/2014 Epaia, apirilaren 1ekoa; 569/2013 Epaia, ekainaren 26koa; eta 1066/2009 Epaia, azaroaren 4koa).

Legez kontra lortutako froga-iturri bati eman behar dioten balioa haztatze aldera, fiskalek kontuan hartu beharko dituzte Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 16ko 97/2019 Epaia emandako jarraibideak. Epaia hartan, Auzitegi Gorenak hauxe zehazten du: «Oro har, kontuan hartu behar da eskubide substantiboaren jatorrizko urraketa, aztertzen ari garen kasuan, partikular batek egin izanaren datuak ez duela inola ere aldatzen berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidearen ikuspegitik aplikagarria den konstituzionaltasun-kanona (Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikulua). Beraz, kasu horietan ere, lortutako froga-elementuak baztertzea izan behar da abiapuntua edo arau orokorra, nahiz eta, kasu zehatz bakoitzean, organo judizialak antzeman dezakeen, jada azaldu diren parametroen arabera, ez dagoela prozesuko tutoretza-premiarik gauzatutako urraketa dagokionez, eta, salbuespenezko kasu horietan, froga sortari buruzko elementu eztabaidagarriak sartu behar ditu».

Horretarako, honako parametro hauek hartuko dituzte kontuan fiskalek Konstituzio Auzitegiak adierazitako irizpidearen arabera:



- i) Arau-haustearen izaera eta ezaugarriak, eta agintari publikoek egindako ikerketarekin duen lotura instrumentala, objektiboa edo subjektiboa haztatzea.

ii) Jarduketaren emaitza eta, zehazki, bortxatutako eskubidearen funtsezko muinean duen eragina.

iii) Jokoa dagoen oinarrizko eskubidearen eraginkortasuna *pro futuro* zalantzan jarriko duten jardunbideak bultzatzeko arriskua, baldin eta froga hori kasu zehatz horretan onartzen bada (hau da, etorkizunean izan dezakeen dei-efektua).

Aipamen berezia merezi dute partikularrek hartutako elkarrizketen grabazioek, susmagarriak egitateak aitortzen dituenean. Auzitegi Gorenaren maiatzaren 19ko 167/2020 Epaiak jarraibide batzuk ematen ditu, gai horri buruz orain arte egindako jurisprudentzia-doktrina gaitzesteko:

a) Zigor-arloko prozesuan solaskideetako batek egindako elkarrizketa pribatuen grabazioak erabiltzeak ez du urratzen komunikazioen sekreturako eskubidea.

b) Ez du urratzen, orobat, intimitaterako eskubidea ere, salbu eta elkarrizketaren edukiak solaskide baten intimitate pertsonalaren edo familiarraren muinari eragiten badio.

c) Engainuaren bidez abiarazitako prozesuz kanpoko aitorpena lortzeko erakunde-nagusitasuneko posizio batetik (agintaritzaren agenteak edo hierarkiako nagusiak) egindako grabazioek urratu egiten dute beren buruaren aurka ez deklaratzeko eta beren burua errudun ez aitortzeko oinarrizko eskubidea, eta, ondorioz, froga-deuseztasuna eragiten dute.



d) Eremu partikularrean egindako grabazioek ez dute urratzen bere buruaren aurka ez deklaratzeko eta bere burua errudun ez aitortzeko oinarrizko eskubidea.

e) Berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidea urra dezake, baldin eta pertsona aurrez pentsatutako asmo baten bidez eraman bada topaketa batera, grabaketa bat egitera, haren aurka erabil daitezkeen egitateak adieraziko

dituelakoan. Kasu horretan, gertatzen diren inguruabarrak haztatu beharko dira.

5.10 Kazetaritza-informazioak

Ikerketapean jarritako kasu zehatzaren arabera ager daitezkeen ñabardura berezien kalte gabe, jurisprudentzia nagusiak froga-balioa eman die kazetaritza-informazioei.

Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 16ko 5/2004 epaiak (antzeko terminoetan, ikusi Konstituzio Auzitegiaren 99/2004 Epaia, maiatzaren 27koa) honako hau adierazi zuen: «Epaia eman duen salaren erabakian, behar bezala arrazoituta, ezin da egokitzea jo eta baimendu kazetaritza-informazioak frogabide gisa erabiltzea».

Informazio horiek bereziki baliotsuak izan daitezke susmagarriak ikerketaren xedeari buruz libreki eta berez egindako adierazpenak errepikatzen dituenean.

Auzitegi Gorenaren martxoaren 26ko 8/2005 Epaia adierazten duen bezala (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 61. artikuluko sala berezia), «kazetaritza-informazioekin loturik eta sala honen doktrinari jarraikiz, zeina 2003ko martxoaren 27ko Epaian baitago jasota, esan daiteke kazetaritza-argitalpen batean txertatutako albiste batek kanpoko errealitate baten pertzepzio jakin bat besterik ez dakarrela, eta errealitate hori bertan esku hartzen duen profesionalak hauteman eta transmititzen duela.



Baina epai horrek baieztapen horri gehitzen dio gure Prozedura Zibilaren Legean (ikus 299.3 artikulua, *Alderdi Politikoak arautzen dituen* 6/2002 Lege Organikoaren 9.4 artikuluan ere aurreikusitako frogabideei dagokienez) ez dagoela frogabide legitimoen zerrenda tasatu edo erabat itxirik, baizik eta bertan onartzen dela auzitegiaren epaiketa osa dezakeen beste edozein ere agertzea. Horri esker, kasu jakin batzuetan egiaztatutzat jo daitezke, banaka eta kasuz

kasu, komunikabide sozialek jasotako datuak, betiere ezagutza orokorreko gertakari egiaztatuak edo prozesuan gezurtatu edo zalantzan jarri ez diren pertsona edo erakunde politikoaren adierazpenak islatzen badituzte. Bestalde, argi dago horrelako argitalpenetatik lor daitezkeen judizio-datuak profesionalak modu objektiboan sartzen dituen edukietatik soilik eratorzen direla, eta horrek, berez, froga-balioetik kanpo uzten ditu albiste hartan bertan sar daitezkeen balio-iritziak».

Ondorioz, fiskalek ikerketaren helburuetarako garrantzitsutzat jotzen dituzten kazetaritza-albisteak gehitu ahal izango dituzte beren ikerketa-eginbideetan. Datuak jasota uzteko eginbidearen bidez sartuko dira, eta fiskalak eskuratu zuen formatuan bertan erantsiko da albistea.

5.11 Lekukoen deklarazioak

Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikulua bigarren apartatuak jasotzen duenez, «Fiskaltzak edozein pertsona bere aurrean agerrarazteko agindua eman dezake, deklarazioa hartzeko, legeak zitazio judizialerako ezartzen dituen baldintzekin egin ere. Deklarazio horretan, Lege honetan epailearen edo auzitegiaren aurrean emandako deklaraziorako adierazitako berme berak egongo dira».



Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 4.5 artikulua bigarren apartatuarekin lotu behar da aurreko manu hori, alegia: «Fiskaltzari artikulua honetan eta hurrengoan adierazitako ahalmenak egikaritzen lagundu behar dioten agintariak, funtzionarioak, erakundeak edo partikularrek legearen mugen barruan bete beharko dute eskatutakoa. Era berean, eta muga berarekin, fiskalaren aurrean agerraldia egin beharko dute fiskalak hala xedatutakoan».

Bi manu horiek batera irakurrita, ondoriozta daiteke beren eginbideetan zehar fiskalek lekuko-deklarazioa jaso ahal izango dietela egokitza jotzen dituzten

pertsona guztiei, ikerketa aurrera eramateko egokitzat eta baliagarritzat jotzen badute. Kasu horietan, fiskalaren aurrean deklaratzera deitutako pertsona nahitaez agertu beharko da, eta fiskalek legitimazioa izango dute arrazoirik gabe beren eginbeharra betetzen ez dutenei errekerimendua egiteko, desobedientzia-delitua egingo dutela ohartaraziz (Zigor Kodearen 556. artikulua).

Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen zioen azalpenean zehazten denez, haren aplikazio-eremu objektiboa prozesu kanpoko jarduerara zabaltzen da —Fiskaltzarena barne—; izan ere, honako hau adierazten du: «Biktimari emandako babesa eta laguntza ez dira prozesuak soilik, eta ez daude horrek prozesu batean duen posizioaren mende, prozesutik kanpoko dimentsioa baitute. Biktimaren errekonozimenduaren, babesaren eta laguntzaren kontzeptu zabalean daude oinarrituta, biktimaren zaintza osoa lortzearen».



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Horrekin logika gordez, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 3.1 artikulua zehazten duenez, «biktima orok du babes, informazio, laguntza eta arretarako eskubidea, bai eta zigor-arloko prozesuan era aktiboan parte hartzeko eta begirunezko tratua, profesionala, banakatu eta bereizkeriarik gabekoa jasotzeko eskubidea ere, agintari edo funtzionarioekiko lehen harremanetik bertatik, biktimentzako laguntza-zerbitzuen eta justizia leheneratzaileko zerbitzuen jardunean, prozesu osoan eta hori amaitu ondorengo behar besteko denboran, arau-hauslearen nortasuna eta prozesuaren emaitza ezagutu edo ez». Era berean, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 7. artikulua biktimei dagokien auzi penalari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea arautzen du, eta laugarren apartatua zehazten du biktimari «eskatzen duenean, prozedura zer egoeran dagoen ere jakinaraziko diote, betiere auziaren behar bezalako garapena kaltetzen ez badu». Era berean, Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikulua zehazten duenez —Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 22. azken xedapenaren arabera egindako erreformaren ondotik—, Fiskaltzak itxuraz delituzkoa den egitate baten berri duenean «indarreko legerian jasotako eskubideen berri emango dio biktimari» eta «biktimaren beharren behin-behineko ebaluazioa eta ebazpena egingo ditu».

Konstituzio Auzitegiaren 2022ko irailaren 12ko Epaiaren arabera (3362-2020 zenbakiko babes-errekurtsoa), «biktimen interesa babestera bideratutako legea indartu egin da, prozesuan informatzeko eta parte hartzeko aukerak pixkanaka zabalduz joan diren legegintza-bilakaeraren ondorioz». [...] Bilakaera hori, gaur egun, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legean amaitzen da. [...] Jarduketa judizialak eskuratzeari dagokionez, bereziki, kontuan hartu behar da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234.1 artikulua arabera, aurka egindako ebazpenak eman ziren egunean indarrean zegoen idazketaren arabera, «interesdunek jarduketa judizialen egoerari buruz eskatzen duten informazio guztia eskuratu ahal izango dutela, eta informazio hori aztertu eta ezagutu ahal izango dutela, salbu eta isilpekotzat edo erreserbatutzat jotzen

badira, legearen arabera”. [...] Era berean, Aipatutako Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legearen 7. artikulua biktima orori aitortzen dio

172

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

zigor-auziari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, eta, zehatzago, ezartzen du biktimari, hala eskatzen duenean, prozeduraren egoerari buruzko informazioa emango zaiola, salbu eta horrek kalte egin badiezaioke kausaren garapen egokiari (7.4 artikulua). Halaber, delituaren zuzeneko biktimari aitortzen dio, lehen esan bezala, largespen-ebazpena jakinarazteko eskubidea, eta horretarako ez da beharrezkoa lehenago prozesu penalean pertsonatu izana (12. artikulua). Laburbilduz, legegileak aitortzen du biktimek eta kaltetuek —interes legitimoa duten beste pertsona batzuk alde batera utzita— informazio judiziala eskuratzeko duten eskubidea eskubide autonomoa dela, independentea alderdi prozesalaren parte izatetik. Beraz, ordenamenduaren egungo egoeran, delituaren ondorioz minduta edo kaltetuta dagoen pertsona orok, eta, jakina, delituaren biktimaren legezko estatutuari atxiki dakiokeen pertsona orok, *ope legis* eskubidea du, zeina Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikulua babespean baitago txertaturik; hala, zigor-arloko prozesuaren edozein unetan informazioa jasotzeko eskubidea du, bai eta prozesu horren jardun judizialetera jotzekoa ere. Eskubide hori berezkoa du kaltetuna edo biktima izateak, eta informazio hori eskuratzeko moduak erregulatzen dituzten arau organiko eta prozesalen interpretazioa eskubide hori benetan gauzatzeko modurik egokienean egiaztatu behar da beti».

Aurreko argudioak guztiz predikagarriak dira Fiskaltzaren ikerketa-eginbideetan. Izan ere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234.1 artikulua erreformak —arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor penalak betearazteko tratamenduari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren bidez— parekatu egin zuen eskaini beharreko tratamendua jarduketa judizialekin eta fiskalekin, eta barnean hartu zuen ordura arte existitzen ez zen erreferentzia bat: «bulego fiskala». Lege organiko honen izapidetze parlamentarioan aurkeztutako 60. zuzenketari jarraikiz sartu zen aldaketa hori. Zuzenketaren justifikazioa argigarria da inondik ere:



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

«Sistematizatuta eta eguneratuta utzi nahi dira, 2016/680 Zuzentarauaren transposizioaren argitan, organo judizialek eta fiskaltzek beren eskumeneko jarduerak edo prozesuak izapidetzean egindako datu pertsonalen tratamenduari buruzko alderdi bereziak, bai eta bulego judizialaren eta bulego fiskalaren kudeaketaren barruan egindakoa ere, hargatik eragotzi gabe honako arau honen aplikazio zuzena, betiere helburuak eta dagozkion babes-agintaritzak bereizita. [...] Arauketa epaitegi eta auzitegietan, fiskaltzan eta bulego judizial eta fiskaletan egindako datu pertsonalen tratamendura hedatzen da, eta Fiskaltzari dagokiona sartu da, arau honetan bateratu nahi baita datuak helburu jurisdikzionalekin tratatzeari dagokion guztia, haren estatutu organikoan horri buruzko erregulazioa garatu behar baita».

Oinarrizko eskubideen eraginkortasunaren aldeko interpretazio-printzipioarekin bat etorriz (Konstituzio Auzitegiaren 2/2017 Epaia, urtarrilaren 16koa; 112/2017 Epaia, urriaren 16koa; 131/2017 Epaia, azaroaren 13koa; 76/2021 Epaia, apirilaren 15ekoa), ulertu behar da Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulua, Prozedura Kriminalaren Legearen 773.2 artikulua, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 7.4 artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234.1 artikulua onartzen dutela biktimak Fiskaltzaren ikerketa-eginbideen edukia eskuratzeko aukera izatea. Aukera horrek, gainerakoan, biktima merezi duen protagonismoarekin ipintzen du.

Nolanahi ere den, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 2. artikulua ematen duen biktima kontzeptuari jarraitu behar zaio; hau da, «zuzeneko biktima gisa, bere buruaren edo ondarearen gaineko kalterik pairatu duen pertsona fisiko ororentzat, bereziki delitua egiteak zuzenean eragindako lesio fisikoak edo psikikoak, kalte emozionalak edo kalte ekonomikoak badira». Bestalde, delituaren erantzuleak ez badira, «zeharkako biktimatzat» hartuko dira, delituak zuzenean eragindako pertsona bat hiltzen edo desagertzen denean:



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

1.- Legez edo izatez bananduta ez dagoen ezkontidea eta biktima hiltzeko edo desagertzeko momentuan harekin batera bizi ziren biktimaren edo legez edo izatez banandu gabeko ezkontidearen seme-alabak; heriotza edo desagertzea gertatu arte biktimari afektibitatezko antzeko harremanagatik lotuta zegoen pertsona eta biktima hil edo desagertu zenean berarekin bizi ziren seme-alabak; zaintzapean zituen guraso eta ahaideak –lerro zuzenean edo alboko lerroz hirugarren graduaren barruan– eta haren tutoretza edo kuradoretzapean edo familia-harreraren araubidepean zeuden pertsonak. 2.- Aurrekorik izan ezean, lerro zuzeneko gainontzeko senideentzat eta anai-arrebentzat, horien artean biktimaren legezko ordezkariak duena lehenetsita.

Lege horren xedapenak ez zaizkie aplikatuko delituaren ondoriozko kalteak nozitu dituzten hirugarrenei; hots, kaltetuei. Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 2. artikulua berariaz baztertzen ditu legearen aplikazio-eremu subjektibotik. Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 7.4 artikulua biktimen alde aldarrikatutako jarduketetara jotzeko eskubidea, beraz, ez da hedatzen kaltetuetara.

Irizpide teleologiko eta sistematikoek aholkatzen dute, hala ere, jardueretara sartzeko, aldez aurretik idatzizko eskaera egin behar dela ikerketa amaitu ondoren; hau da, amaiera-dekretua eman ondoren, eta, kasuaren arabera, artxibatu edo organo judicial eskudunari berriz bidali ondoren, salaketa edo kereila jarri ondoren edo Prozedura Kriminalaren Legearen 803. bis d) artikuluko zigorra ezartzeko proposamena bidali ondoren. Dena den, ikerketa amaitu ondoren ere, espedienterako sarbidea baztertu egin beharko da, kausaren garapen egokiari kalte egin diezaiokenean.

Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 7.4 artikulua biktimei, hala eskatzen dutenean, prozedura zein egoeratan dagoen jakinarazteko betebeharra ezartzen du. Fiskalek emango dute informazio hori, ahoz edo idatziz, laburpen labur baten bidez. Laburpen horretan, ikerketa-eginbideen hasiera-data, ikertutako ustezko delituak, ordura arte egindako eginbideak eta ikerketa amaitzeko aurreikusten den data adieraziko dira.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Inola ere ez da emango lekukoak eta/edo perituak identifikatzea ahalbidetzen duen daturik. Hala ere, fiskalek susmagarriaren nortasuna jakinarazi ahal izango dute, biktimak berariaz hala eskatzen badu eta eskaera justifikatutzat jotzen bada.

Fiskalek biktimari informazioa ematearen aurka egin ahal izango dute, baldin eta uste badute horrek prozeduraren garapen egokia kaltetu dezakeela; kasu horretan, eskaera dekretu arrazoitu bidez errefusatu besterik ez dute egingo. Era berean, alde batera utzi ahal izango dituzte haien ustez arrazoi berberengatik erreserbatuta egon behar duten informazioak. Azken kasu horretan, fiskalak dekretu bat emango du informazio hori debekatzeko arrazoiak azaltzeko, eta biktimak ere ez du ebazpen hori eskuratzeko aukerarik izango, erabaki hori hartzea justifikatu zuten arrazoiak desagertzen ez diren bitartean.

Ikerketa amaitu ondoren, jarduketetara sartzeko, zuzeneko azterketa egin ahal izango du fiskaltzaren bulegoetan, fiskalaren edo langile laguntzaileen aurrean, biktimak berak, edo bere lege-ordezkariek. Azterketa hori egiten denean, eginbide bat egingo da hori jasota uzteko, zeinean adieraziko baita noiz gertatu den eta nor diren espedientean sartu diren pertsonak. Biktimaren lege-ordezkarien kasuan, biktimaren izenean jarduteko ahalmena dutela behar bezala egiaztatzea eskatuko da, eta hori ere aktan jasoko da.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234.2 artikulua araberan, biktimei aukera eman behar zaie jarduketan kopia sinpleak edo horien lekukotza lortzeko. Kopia edo lekukotzak eskuratzeko, dagokion jasotze-eginbidea egin beharko da. Eginbide horretan, kopia zein egunetan entregatu diren eta kopia jasotzen dituen pertsonaren eta lekukotzak ematen dituen funtzionarioaren nortasuna adierazi beharko dira. Kopia horiek formatu digitalean edo fisikoan egin ahal izango dira —fiskalak aukeratuko du—.



Botere Judizialaren Lege Organikoaren 232. artikulua eta hurrengoak eta Prozedura Kriminalaren Legearen 301. artikulua sistematikoki aztertuta, bai eta Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legea eta Konstituzio Auzitegiak emandako jurisprudentzia-doktrina ere, ondoriozta daiteke artxibatutako ikerketa-eginbideen edukia erreserbatutzat jo behar dela, eta, horregatik, susmagarriak eta biktimak baino ezingo dituztela haiek eskuratu —edo, kasuaren arabera, kopiak lortu—. Izan ere, ikerketa-eginbideak organo judizialari igorri gabe artxibatzea behin-behinekotzat joko da beti, organo judizial batek geroago jardun penalak has ditzakeelakoan.

Aurrekoa gorabehera, prozedura judizial bat hasi ondoren, fiskalek ikerketa-eginbideetara sartzeko eskaerak ukatuko dituzte, eta eskatzailea dagokion prozeduraz arduratzen den organo judizialera bidaliko dute.

Aurreko kasuetatik kanpo, ez zaie jarduketetara sartzen utziko interes legitimoa dutela adierazten dutenei edo are egiaztatzen dutenei. Fiskaltzaren Erregelamenduaren 8.3 artikulua aipatzen duen erreserba-betebeharrak indar berezia du ikerketa penalen kasuan; izan ere, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 24ko 28/2020 Epaiak adierazten duenez, «pertsone fisiko bat delitu bat egitearekin lotzen duten albisteek (Konstituzio Auzitegiaren 58/2018 Epaiak) edo instrukzio-fasean egiten den ikerketarekin lotzen dutenek (Konstituzio Auzitegiaren 14/2003 Epaiak) eragina izan dezakete haren ospean». Gogoeta horiek justifikatu egiten du Fiskaltzaren ikerketa-eginbideen konfidentziasuna gordetzea —artxibatu ondoren, organo judizialera bidali gabe—, pertsona susmagarrien intimitatea ez ezik, biktimena, kaltetuena eta lekukoena ere babesteko.

Hala ere, ezerk ez du eragozten ikerketa-eginbideetan jasotzen diren datuak eskuratzeko interes legitimoa aipatzen duenak, ordenamendu juridikoak aitortzen dizkion eskubideak egikaritzeko, organo judizial edo administratiboei —hots, dagozkien demanda edo erreklamazioez arduratzeko ardura dutenei— eskatu ahal izatea Fiskaltzari eska diezazkiotela beren ikerketa-eginbideen lekukotzak.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Hori guztia dela eta, fiskalek baztertu egingo dituzte, arau orokor gisa, ikerketa-eginbideetara sartzeko eskaerak susmagarri ez direnen kasuan, horiek izapidetzen ari diren edo organo judizialera igorri gabe artxibatu diren kontuan hartu gabe. Nolanahi ere, sarbidea eman ahal izango zaio interes akademikoa, zientifikoa edo antzekoa duela frogatzen duenari, sektoreko legediak horretarako aukera ematen duenean.

16.4 Biktimen, pertsona susmagarrien, lekukoen eta perituen datuen tratamendua

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. *quinquies* artikulua zehazten duenez, «1. Prozesu-ebazpenek eta -jarduketek datu pertsonalak jaso beharko dituzte, egokiak eta tratatzen diren helburuei dagokienez beharrezkoa dena mugatuak, bereziki babes judizial eraginkorrerako eskubidea bermatzeko, eta inola ere ezin izango da gertatu defentsa-gabeziarik. 2. Epaille eta magistratuek, fiskalek eta Justizia Administrazioaren letraduek, beren eskumenen arabera, beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango dituzte ebazpenen datu pertsonalak eta prozesua izapidetzen den bitartean alderdiek eskura ditzaketen dokumentuak ezabatzeko, betiere beharrezkoak ez badira babes judizial eragingarrirako eskubidea bermatzeko, eta inoiz ezin izango da gertatu defentsa-gabeziarik».

Ez da oztoporik ikusten Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. *quinquies* artikuluan jasotako arauak Fiskaltzaren prozesuz kanpoko jarduerari aplikatzea galarazteko; izan ere, biktimen, susmagarrien, lekukoen eta perituen datu pertsonaletara sartzeko, hala nola helbide pertsonalera, nortasun-agirira, telefono-zenbakira, helbide elektronikora edo antzekoetara jotzeko, defentsarako eta/edo babes judizial eraginkorrerako eskubideak hobeto erabiltzen laguntzeaz gain, behar ez den moduan mugatzen du intimitaterako eskubidea.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Aurreko gogoeta horiek kontuan hartuta, fiskal nagusiek eta fiskalburuek jarraibide egokiak emango dizkiote Polizia Judizialari, polizia-eginbideetan ez sartzeko biktimen, auzipetuen, lekukoen eta perituen helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa, nortasun-agiria, helbide profesionala edo antzeko beste edozein datu pertsonal.

Ahal den neurrian, izaera pertsonaleko datu horiek aparteko dokumentu edo artxibo batean jaso beharko dira, eta, han, polizia-eginbideetan aipatzen diren biktimak, auzipetuak, lekukoak eta perituak zerrendatuko dira, beharrezkotzat joz gero zitazioa egin ahal izateko. Zerrenda hori polizia-atestatuarekin batera aurkeztu beharko da, gutun-azal itxian edo, digitalki bidaliz gero, aparteko artxibo batean, eta Fiskaltzak bakarrik izango du horretarako sarbidea. Fiskalak datu horiek behar bezala zaintzeaz arduratuko dira, eta susmagarriari eta/edo haren abokatuari datuak eskuratzea eragotziko diote, bai eta beste edozein pertsonari ere, prozeduran interes legitimoa dutela egiazta badezakete ere.

Arrazoi teknikoek polizia judizialeko unitateei aurreko neurriak berehala betetzea eragozten dietenean, neurri horiek pixkanaka ezartzen saiatuko dira.

Susmagarriaren defentsa-eskubidea benetan gauzatzen dela bermatze aldera, lehenago aipatutako datu pertsonaletako bat eskuratzeko aukera ematea komeni dela ohartzuz gero, Polizia Judizialak eginbide bat egingo du datuak jasota uzteko, eta, han, Polizia Judizialari jakinarazi zaion datu zehatza eta datu hori ematea justifikatzen duten arrazoiak adieraziko ditu.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Datu jakin bat edo batzuk ezagutu beharrak ez du justifikatuko gainerako datu pertsonaletarako sarbidea, baldin eta datu horien berri izatea ez bada beharrezkoa susmagariaren defentsa-eskubidea benetan gauzatzen dela bermatzeko.

Modu berean, ikerketa-eginbideak izapidetzean, fiskalek kontu hartuko dute biktimen, auzipetuen, lekukoen eta perituen datu pertsonalak ez sartzeko. Datu horiek dokumentu erantsi batean jaso beharko dira. Dokumentu hori eginbideei erantsiko zaie gutun-azal itxian edo aparteko artxibo batean, espediente digitalaren kasuan, eta alderdiek ezingo dute eskuratu. Salaketa edo kereila jarriz gero, edo zigorra ezartzeko proposamen-dekretua emanaz gero (Prozedura Kriminalaren Legearen 803. *bis d*) artikulua), agiri horiek organo judizialera bidali beharko dira, alderdiek edukia eskuratu ezin dutela bermatzeko moduan, harik eta organo judizialak kontrakoa xedatzen duen arte. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. *quinquies* artikuluaaren bigarren apartatuaren bat etorriz, salaketa edo kereila aurkeztean, fiskalek datu pertsonalen izaera erreserbatua mantentzeko eskatuko diote salaketa edo kereila zuzentzen duen organo judizialari, alderdiei sarbidea eragotziz.

Susmagarria ohartzen bada komenigarria dela datu pertsonalen bat eskuratzea bere defentsa-eskubidea bermatzeko, ikerketaren ardura duen fiskalak dekretu arrazoitu bat emango du, hori justifikatzen duten arrazoiak azalduz.

17. Datu pertsonalak babesteko eskubidea

Fiskaltzaren Erregelamenduaren 22.1 artikulua honako hau xedatzen du: «Fiskaltza, bere eskumenen esparruan eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz, bere eginkizunak betez egiten duen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna da».



Ildo beretik jotzen du Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2019 Instrukzioak (*Fiskaltzaren eremuan datuak babesteari buruzkoa*).

Era berean, *arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzko* maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak agintaritza eskuduntzat jotzen du Fiskaltza (4.2 artikulua) eta ezartzen du arestian aipatutako helburuekin egiten den datu pertsonalen tratamendua lege organiko horretan xedatutakoaren arabera arautuko dela, hargatik eragotzi gabe Botere Judizialaren Lege Organikoan, aplikatzekoak diren lege prozesalean eta, hala badagokio, Fiskaltzaren Estatutu Organikoan ezarritako xedapenak.

Datuak babesteko printzipioak modu eraginkorrean babesteko eta tratamenduan beharrezkoak diren bermeak integratzeko, arduradunak egokiak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatu behar ditu. Gainera, bermatu behar du tratamenduaren helburu espezifiko bakoitzerako beharrezkoak diren datu pertsonalak baino ez direla tratatuko lehenespenez. Neurri tekniko horien artean, datu pertsonalen izengabetzea hartu ahal izango da, aipatutako lege organikoan ezarritako printzipioak aplikatzen laguntzeko, bereziki, datu pertsonalak minimizatzeari buruzkoa (7/2021 Lege Organikoaren 28. artikulua).

Bestalde, Botere Judizialaren Lege Organikoak xedatzen du prozesu-ebazpenek eta -jarduketek tratatu diren helburuei dagokienez egokiak eta behar dena mugatuak diren datu pertsonalak jaso beharko dituztela, bereziki babes judizial eraginkorrerako eskubidea bermatzeko, eta ezin izango dela, inola ere, defentsa-gabeziarik sortu. Era berean, xedatzen du fiskalek, beren eskumenen arabera, beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango dituztela ebazpenen datu pertsonalak eta prozesua izapidetzen den bitartean alderdiek eskura ditzaketen dokumentuak ezabatzeko, betiere horiek beharrezkoak ez badira babes judizial eraginkorrerako eskubidea bermatzeko (236. *quinquies* artikulua).



Ondorioz, eginbideak izapidetzean, jarduera horien helburuetarako egokiak eta beharrezkoak diren datuak baino ez dituzte bildu eta jaso beharko fiskalek. Era berean, eginbideak izapidetzean ematen diren dekretuetan saihestu egingo da planteatutako gaiari buruz erabakitzeke edo ebazteke beharrezkoak ez diren datu pertsonalak jasotzea.

Aurreko jarraibideak modu arrazoituan eta haztatuan aplikatuko dira, betiere kontuan hartuta interesdunek datuak babesteko duten eskubidea ezin zaiola gailendu babes judizial eragingarrirako eskubideari, eta ezin duela eragotzi Fiskaltzak Konstituzioan, legez eta estatutuetan agindutako eginkizunak gauzatzea, eta datuak minimizatzeko printzipioaren aplikazioa ezin dela areagotu ematen diren ebazpenak kriptiko edo ulertezin bihurtzeko moduan.

Hartzaileei gogorarazteko nahitaez bete behar dutela datuak arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera tratatzeko betebeharra (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. *quinquies* 3 artikulua), Fiskaltzak emandako dekretuak jakinarazteko eta dokumentazioa bidaltzeko ofizioetan, klausula hau sartu beharko da orri-oin gisa:

Erantsitako dokumentuan ager daitezkeen datu pertsonalen komunikazioa — aldez aurretik izengabetu edo anonimizatu gabeak izaki— Fiskaltzari agindutako lege- eta estatutu-funtzioak betez eta datuak babesteko indarrean dagoen araudiaren babesean egiten da.



Aipatutako araudia datu pertsonal horien jasotzaileari edo hartzaileei ere aplikatuko zaie, eta datu horiek ezin izango dira geroago tratatu, egungo komunikazioa eragin duen helburuaz bestelako batekin. Nolanahi ere, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira baimenik gabeko edo legez

Interesdunek informazioa eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatzeari dagokionez, ikerketa-eginbideei buruz indarrean dagoen araudiak ez du ezartzen nola bideratu behar diren eginbide horiek, eta, horregatik, tratamendu horren izaera jurisdikzionala kontuan hartuta (7/2021 Lege Organikoaren 2.2 artikulua, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. *bis* 1 artikuluaekin lotuta), Botere Judizialaren Lege Organikoan jasotzen den araudi urrira jo beharko da, eta, hala badagokio, 7/2021 Lege Organikoan jasotako erregulazio osagarria.

Informazio eskubidea 7/2021 Lege Organikoaren 20. artikuluan jasotzen da, eta tratamenduaren arduradunaren betebeharra da interesdunari, modu zehatzean, ulergarrian, erraz eta hizkera argi eta errazean ematea 21. artikuluan jasotako informazioa (besteak beste, tratamenduaren arduraduna identifikatzea, haren helburuak, arlo horretan dituen eskubideak), bai eta 14. artikulutik (tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakiak debekatzea), 22.etik 26.era bitarteko artikuluetatik (datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzea, bai eta eskubide horiek murriztea ere) eta 39. artikulutik (segurtasun urraketak jakinaraztea) eratorritakoa ere.

Datuak babesteko araudian jasotako sarbide-eskubideari dagokionez, kontuan hartu behar da eskubide hori desberdina dela, eta ez duela zerikusirik Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234. artikuluan aurreikusitako jardueren edukia eskuratzeko eskubidearekin; gai hori zirkular honen 16.3 epigrafean jorratzen da.



Datuak babesteko araudian araututako irispide-eskubidea 7/2021 Lege Organikoaren 22. artikuluan jasotzen da —agintaritzaren eskudunek arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor penalak

betearazteko egindako datu pertsonalen tratamenduaren esparruan—. Eskubide horrek, funtsean, esan nahi du interesdunak eskubidea duela tratamenduaren arduradunarengana jotzeko, bere datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez jakiteko, eta, hala bada, honako hauei buruzko informazioa jasotzeko: tratamenduaren helburuak eta oinarri juridikoa, kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak, datu pertsonalak jakinarazi zitzaizkien hartzaileei edo hartzaile-kategoriei buruzko informazioa, datu pertsonalak gordetzeko aurreikusitako epea, edo, ezinezkoa bada, epe hori zehazteko erabilitako irizpideak, arduradunari interesdunari buruzko datu pertsonalak zuzentzeko edo ezabatzeko eskatzeko eskubidea edo datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea, kontrol-agintaritza eskudun baten aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea, tratamenduaren xede diren datu pertsonalen komunikazioa, bai eta datu horien jatorriari buruz dagoen edozein informazio ere, pertsona fisiko baten identitatea jakinarazi gabe.

Bestalde, 7/2021 Lege Organikoaren 23. artikuluan honako hauek jasotzen dira: interesdunari dagozkion datu pertsonal zehaztugabeak zuzentzeko eskubidea, bai eta tratamenduaren xede diren datu pertsonalak osatzekoa ere; datuak ezabatzeko eskubidea, baldin eta, besteak beste, ez badira beharrezkoak legezko betebeharrak betetzeko bildu ziren edo ezabatu behar diren helburuei dagokienez; eta datuen tratamendua mugatzeko eskubidea, baldin eta interesdunak zalantzan jartzen badu haien zehaztasuna, eta ezin bada zehaztu datu horiek zehatzak diren ala ez.



Kontuan izan behar da, ikerketa-eginbideen eremuan, eskubide horien egikaritza mugatuta dagoela, eskubide horiek oztopatu edo zaildu ez daitezten. Hala, Botere Judizialaren Lege Organikoak, datu pertsonaletarako sarbide-eskubideari buruzkoa baino ez bada ere, xedatzen du eskubide hori ukatu egingo dela informazioa biltzeko prozesu-eginbideak isilpekotzat edo

erreserbatutzat jotzen direnean (236. *septies* 2 artikulua).

Era berean, 7/2021 Lege Organikoaren 24. artikulua onartzen du tratamenduaren arduradunak ahalmena duela 21. artikuluan aipatzen den informazioa geroratzeko, mugatzeko edo omititzeko, bai eta 22. eta 23. artikuluetan jasotako eskubideak baliatzeko eskaerak erabat edo partzialki ukatzeko ere, betiere kontuan hartuta ukituriko pertsonaren oinarrizko eskubideak eta interes legitimoak, beharrezkoa eta proportzionala bada, besteak beste, honako helburu hauek lortzeko: ikerlanak, ikerketak edo prozedura judizialak oztopatzea eragozteko; arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeari kalterik ez eragitea, edo zigor penalak betearaztea eta beste pertsona batzuen eskubideak eta askatasunak babestea.

Ikerketa-eginbideen izaera erreserbatuaren eta tratamenduaren arduradunak informazio- eta sarbide-eskubideak eta 7/2021 Lege Organikoaren 23. artikuluan jasotakoak geroratzeko, mugatzeko edo omititzeko duen ahalmenaren ondorioz, ondoriozta liteke horien esparruan ezinezkoa dela interesdunek datuak babesteko eskubideak baliatzea.

Hala ere, 2016/680 Zuzentarauak aukera ematen die estatu kideei interesdunei informazioa atzeratzeko, mugatzeko edo omititzeko legez-erabakien onartzeko, edo datu pertsonaletarako sarbidea erabat edo partzialki mugatzeko (betiere neurri horiek beharrezkoak eta neurritzkoak badira gizarte demokratiko batean, eta eragindako pertsona fisikoaren oinarrizko eskubideak eta interes legitimoak behar bezala errespetatuz), baina, horretarako, tratamenduaren arduradunak ebaluatu egin behar du, banakako azterketa baten bidez



eta kasuan-kasuan, egokia den ala ez eskuratzeko eskubidea erabat edo partzialki mugatzea (15. artikulua eta 44. kontuan hartuzkoa), eta, gainera,

adierazten du interesdunaren eskubideen murrizketa orok Gutunean eta Giza Eskubideen Europako Konbentzioan xedatutakoa bete behar duela, Justizia Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudenziak interpretatutakoaren arabera, hurrenez hurren, eta, bereziki, eskubide eta askatasun horien funtsezko edukia errespetatu behar duela (46. kontuan hartuzkoa).

Ondorioz, gai hori ebazteko orduan, fiskalek kontuan izan beharko dute, lehenik eta behin eta azaldu den bezala, eskubide horien gainetik ikerketa-eginbideen amaiera ona gailendu behar dela; beraz, eginbide horiek oztopatu edo zaildu ahal badira, ez dira kontuan hartuko, interesdunen kategoria guztiei dagokienez, informazio- eta sarbide-eskubideak eta 7/2021 Lege Organikoaren 23. artikuluan jasotakoak. Hala ere, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta, eta jokoan dauden oinarrizko interesak eta eskubideak haztatuta, aipatutako eskubideak osorik edo zati batean baliatzea erraztu eta/edo aintzat hartu ahal izango da. Horretarako, funtsean, ikertutako pertsonak edo pertsonak haiei eragin diezaieketen ikerketa-eginbiderik baden edo ez jakitea baloratu beharko da, bai eta artxibatuta dauden ala ez jakitea ere, eta kontuan hartu beharreko faktorea izango da, orobat, pertsona interesdunaren kategoria, baldin eta kategoria hori ez badago ikertua dagoenarekin lotuta.

Datuak eskuratzeko eskubidea edo aipatutako 23. artikuluan jasotakoak egikaritzen badira, eta horiek ukatzea erabakitzen bada, murrizketaren arrazoiak alde batera utzi ahal izango dira edo idazkera neutro batek ordeztu ahal izango ditu, murrizketaren arrazoiak azaltzeak ikerketa-eginbideen helburuak arriskuan jar ditzakeenean, eta interesdunari jakinaraziko zaio bere eskubideak egikaritu ditzakeela Fiskaltzaren Datuak Babesteko Unitatearen bidez.



erabakiaren oinarri diren egitezko edo zuzenbideko oinarriak dokumentatuko dira, eta informazio hori Fiskaltzaren Datuak Babesteko Unitatearen esku geratuko da (7/2021 Lege Organikoaren 22., 24. eta 25. artikulua eta Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 12. eta 20.4 artikulua).

Azkenik, datuetan sartzeko eskubidea edo 23. artikuluan jasotakoak modu maltzurrian erabil ez daitezzen —eskaera horiek izapidetzen ari den unitate, organo edo fiskaltzaz bestelako unitate, organo edo fiskaltzetara bideratzeko ikerketa-eginbiderik ba ote den jakiteko—, eskaera jasotzen duen fiskaltzak edo unitateak ez du inolako erantzunik emango, harik eta ebazteko eskumena duen fiskaltzak (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. *septies* 1 artikulua eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2019 Instrukzioa) nola jokatu erabaki arte, eta eskaera jasotzen duen fiskaltzak edo unitateak erantzun neutroa eman ahal izango du ondorio horietarako, eginbideak egon daitezkeela jakinarazi ez dadin.

18. Fiskalen laguntzak

Ikerketa-eginbideak izapidetzen ari diren bitartean, fiskaltzari dagokion lurralde-mugapetik kanpo jarduketaren bat egitea eska dezakete fiskalek. Jarduera hori ikerketa zuzentzen duenak zuzenean egin dezakeen arren, ezerk ez du eragozten kasu horietan eginbidea egin behar den lurraldeko fiskaltzaren laguntza erreklamatzeko.

Laguntza-eskaerak dagokien fiskaltzako fiskalburuen bidez bideratu beharko dira beti.



eskuordetuta gauzatuko ditu jarduketak. Horregatik, ez da beharrezkoa izango ikerketa-eginbide berriak abiaraztea; aitzitik, garatutako jarduketa zehatza dokumentatzen duten aktetan edo eginbideetan nahikoa izango da fiskaltza ikertzaileak esleitutako ikerketa-eginbideen erreferentzia-zenbakia adieraztea, eta jasota uztea jarduketak fiskaltzak eskatutako laguntza fiskalaren arabera egiten direla.

Nahiz eta gure ordenamendu juridikoak ez duen berariaz arautu fiskaltzen arteko komunikazioen eta laguntzen araubidea ikerketa-lanetan, aukera hori onartu izan dute Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1989, 2/2000, 9/2011 eta 4/2013 Zirkularrek, bai eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2000 Instrukzioak ere.

Hala ere, behar-beharrezkoa denean soilik joko da fiskalaren laguntzara. Kasu horietan, fiskaltzen arteko komunikazioetan bizkortasuna eta malgutasuna izango dira nagusi, eta saihestekoak izango dira prozedura luza dezaketen praktika burokratikoak.

Fiskalaren laguntzara jotzea saihestuko da, baldin eta ebazpen edo dokumentu bat jakinarazi nahi denean bakarrik, beste eginbide gehigarriak egin gabe, edo, are gehiago, laguntza pertsonala behar ez duten errekerimenduak egiten direnean. Kasu horietan, ikerketa-eginbideak posta ziurtatuaren bidez izapidetzen dituen fiskalak egingo ditu jakinarazpenak, edo jaso direla modu frogagarrian egiaztatzen duen edozein bide erabiliz. Arau horretatik salbuetsita egongo dira jakinarazpenarekin batera errekerimendu bat aurkezten duten kasu bakanak, baldin eta, duten garrantzia edo ondorioak direla-eta, fiskalak errekerimendu hori egitea eskatzen badu.



logistikoak direla eta, fiskalen laguntzara jo dezakete lurralde nazional osoan jarduteko.

Susmagarriaren, lekukoaren edo perituaren deklarazioa bere bizilekuko fiskaltzan egitea komenigarritzat jotzen bada, ikerketa zuzentzen duenak haren laguntza eskatu ahal izango du, deklarazioa bideokonferentzia bidez egiteko. Behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan bakarrik onartuko da deklarazioa beste fiskaltza bateko fiskalak egin ahal izatea, betiere ikerketaren ardura duen fiskalak eskuordetuta.

Fiskaltzaren lurralde-eremutik kanpo egin beharreko polizia-eginbideak, ahal dela, ikerketa zuzentzen duen fiskala dagoen lurraldeko polizia judizialeko unitateen esku utziko dira. Hala ere, ikerketaren ibilbidea arintze aldera, ez du ezerk eragotziko, unean uneko eta garrantzi gutxiko jarduketan kasuan, fiskalak zuzenean agindu ahal izatea eginbide horiek egin behar diren lurraldeko polizia-unitateei.

19. Fiskaltzako laguntzaileak

Fiskaltzetan destinoa duten kidego orokorretako funtzionarioek eta gainerako langile laguntzaileek, besteak beste, honako eginkizun hauek beteko dituzte ikerketa-eginbideak izapidetzearekin lotuta:

i) Aurkezten diren idazkiak eta dokumentuak erregistratzea, jasotzea eta ikerketaren ardura duen fiskalari horren berri ematea.

189

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

ii) Ikerketaren ardura duen fiskalak agindutako prozedura izapidetzea eta jasota uzteko eginbideak egitea.

iii) Espedientea ikustea eta, hala badagokio, idazkien eta dokumentuen

kopia sinpleak egitea, fiskalak baimena eman ondoren eta jasotako jarraibideen arabera.

iv) Beharrezkoak diren baliabide teknikoek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea, eta, hala badagokio, dagozkion zerbitzu espezialistak egotea.

v) Jakinarazpenak, zitazioak, epatzeak eta errekerimenduak egiteko komunikazio-egintzak gauzatzea.

vi) Ziurtagiriak egitea, fiskalaren alde aurreko baimenarekin.

vii) Artxibo-lanak egitea.

viii) Fiskalarekin lankidetzan aritzea eginbideak izapidetzen diren bitartean bahitu daitezkeen diru-zenbatekoak gordailuan jartzeko, apirilaren 21eko 467/2006 Errege Dekretuaren 2. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz (*eskudirutan egindako gordailu eta kontsignazio judizialak, efektuak edo baloreak arautzen dituen*).

20. Klausula iragankorra

Zirkular hau argitaratu eta hurrengo egun naturalean aplikatuko zaie Fiskaltzak hasitako ikerketa-eginbideei.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren *ikerketa-eginbideei buruzko 4/2013* Zirkularraren indarraldian hasitako ikerketa-eginbideak haren arabera jarraituko dira izapidetzen.



21. Klausula indargabetzailea

Zirkular honek indargabetu egiten ditu:

- i) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2013 Zirkularra, *ikerketa-eginbideei buruzkoa*.
- ii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2015 Kotsulta, *interes legitimoa argudiatzen duenak ikerketa-eginbideetan egin dena eskuratzeari buruzkoa*.
- iii) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/1995 Kotsulta, *fiskalaren ikerketa-eginbideei buruzko bi gairi buruzkoa: xedea eta nahi den zorroztasun-eskakizuna*.
- iv) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren edozein arau-tresnaren gainerako xedapenak, zirkular honetan xedatutakoaren aurkakoak badira.



22. Ondorioak

A. Printzipio gidariak

1. Kontzeptu-zehaztapenak

Fiskaltzak ikerketa penalaren arloan prozesuz kanpo egiten duen jarduera ez da prozesu judiziala hasi aurretik egiten dena bakarrik. Fiskalak erabat gaituta daude prozesuz kanpoko jarduera egiteko prozedura judiziala izapidetzen den bitartean eta behin-behinean artxibatu ondoren.

«Prozesu aurreko ikerketa-eginbide» esaten zaie organo judizial batek prozesu penala hasi aurretik abiarazitakoei; «ikerketa-eginbide osagarri» prozesu judiziala izapidetzean hasitakoei; eta «prozesu osteko ikerketa-eginbide» prozesu judiziala behin-behinean largetsi ondoren hasitakoei.

2. Ikerketa-eginbideen subjektu pasiboa

Fiskalek «susmagarria» terminoa erabiliko dute Fiskaltzaren ikerketa-eginbideen subjektu pasiboari erreferentzia egiteko.

3. Prozesuz kanpoko ikerketaren prozedura-esparrua

Fiskaltzak delituak egin diren eta erantzuleak nor diren ikertzeko prozesuz kanpoko jarduera gauzatu beharko du, salbuespenik gabe, ikerketa-eginbideen kasuan kasuko prozeduraren barruan (prozesu aurrekoa, osagarria edo prozesu ostekoa).



4. Ikerketa prospektiboak eta generikoak debekatzea

Fiskalek uko egingo diote ikerketa-eginbideak hasteari, jasotako albiste kriminalaren seriotasunik eza nabarmena denean, inolako sostengu objektiborik ez duten hipotesi hutsetan oinarritzen denean eta hura delitu ez diren egitateak xede dituenen.

B. Polizia Judizialaren Zuzendaritza prozesu aurreko polizia-ikerketan

5. Ikerketa-eginbideak hasi aurreko polizia-ikerketan zehar, eta Idazkaritza Teknikoaren bidez bideratutako Estatuko fiskal nagusiaren alde aurreko baimenarekin, fiskalburuek jarraibide orokorrak eman ahal izango dizkiete polizia judizialeko unitateei ikerketa-irizpideen, jarduteko moduen, ikerketen koordinazioaren eta antzeko beste alderdi batzuen gainean.

Jarraibide orokorrek autonomia-erkidego bereko hainbat probintziatako polizia-unitateei eragiten dietenean, fiskal nagusiek emango dituzte.

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. eta 22. artikuluen arabera, salako fiskalek —koordinatzaileek eta delegatuek, zein bere espezialitatearen esparruan— polizia judizialeko unitateei zuzendutako zirkularrak eta jarraibide orokorrak onartzea proposatu ahal izango diote Estatuko fiskal nagusiar. Horiek onartzen direnean, salako fiskalak emango ditu zuzenean, edo, halakorik ezean, atal espezializatuetako lurralde-ordezkariek. Hala ere, azken horiek jarraibide horiek beren jarduera-eremuko polizia-unitateetara eramatera mugatuko dira.



6. Fiskalek ezin izango dute jarraibide berezirik eman ikerketa-eginbideen prozeduraren aurreko polizia-ikerketei buruz. Hala ere, polizia-ikerketaren zuzendaritza bere gain hartzeko ahalmen osoa izango dute, edozein fasetan egonda ere. Horretarako, prozesu aurreko ikerketa-eginbide egokiak abiaraziko dituzte, eta polizia judizialari lagundu ahal izango diote. Une horretatik aurrera, beharrezkotzat jotzen dituzten jarraibide edo agindu partikularrak emango dituzte.

7 Probintziako eta arloko fiskalburuei dagokie mekanismoak antolatzea, beren fiskaltzen inguruabar bereziak kontuan hartuta, Polizia Judizialak 769/1987 Errege Dekretuaren 20. artikulua arabera bete behar duen kontu-ematea

nola gauzatu behar den zehazteko.

Probintziako eta arloko fiskalburuek ahaleginak egingo dituzte aldian-aldian eman dakien garrantzi berezia duten ikerketen berri, Fiskaltzak bere gain har dezan ikerketa horien zuzendaritza, polizia-ikerketak itxi aurretik prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiaraziz eta, hala badagokio, atestaturako organo judizialean aurkeztuz.

Ikerketaren garrantzi berezia parametro hauen bidez zehaztuko dute: i) ikertutako gertakarien larritasuna, alarma soziala eta/edo garrantzi publikoa; ii) susmagariaren eta/edo biktimaren nabaritasun publikoa; iii) susmagarria foruduna izatea; iv) ikertutako gertakaria berritzailea edo berezia izatea; v) biktimen kopuru handia. Nolanahi ere, garrantzi berezikotzat joko dira agintari edo funtzionario publikoek kargua betetzean ustez egindako delituak xede dituzten ikerketak —Zigor Kodearen 24. eta 427. artikuluetan jasoak—.



C. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak

8. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideen xedea

Instrukzio-faseari dagokion ikerketa judizialaren aurrean, *prozesu aurreko ikerketa-eginbideen xedea* da beharrezkoak diren ikerketak egitea, Fiskaltzak erabaki funtsatu bat har dezan akzio penala gauzatzeari buruz. Horregatik, fiskalek akzio penala egikaritzea justifikatzen duten kriminalitate-zantzu arrazionalak daudela egiaztatzen duten unetik aurrera, prozesu aurreko ikerketa-eginbideak egiteari utziko diote, eta amaitutzat joko dituzte.

Fiskalek, zehaztu ahal izateko noiz eman behar dituzten amaitutzat ikerketa-eginbideak, honako inguruabar hauek baloratuko dituzte: i) preskripzio-epeak akzio penala erabiliz etetea sustatzeko aukera; ii) ikerketa isilpean egitea komeni den; iii) kautela-neurri pertsonalak edo errealak hartzeko beharra; eta

iv) epailearen baimena behar duten eginbideak egin beharra.

9. Salaketa edo atestaturia erregistratzea eta banatzea

Fiskalaren bulegoan salaketa edo polizia-atestaturia jaso ondoren, erregistratu egingo da, eta zenbaki independente eta korrelatibo bat esleituko zaio. Jarraian, burutzak egiaztatuko du —fiskaltzen eskura dauden plataformak eta aplikazio informatikoak erabiliz— egitate berei buruzko prozedura judicial bat abian dagoen edo artxibatuta dagoen. Aurrekoa egiaztatu eta gero, fiskalburuak salaketaren edo atestaturaren xedea aztertuko du, eta, ondoren, honela jokatuko du:

195

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

A) Salaketa edo atestaturia ez bada atal espezializatu baten berezko gai bati buruzkoa, buruzagitzak eskumen objektiboa eta lurraldekoa aztertuko ditu.

Gertakariez arduratzeko eskumena Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzari, Drogaren aurkako Fiskaltza Bereziari edo Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuaren aurkako Fiskaltza Bereziari badagokie, buruzagitzari helaraziko zaie, dagozkion ondorioetarako. Uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren arabera Europako Fiskaltzari dagokiola uste bada, zirkular honen 4.5 epigrafean xedatutakoa beteko da.

Fiskalburuak irizten badio bere zuzendaritzapeko fiskaltzak ez duela eskumenik lurraldeari dagokionez salaketaz edo atestaturiaz arduratzeko, bere ustez eskumena duen fiskaltzari bidaliko dizkio, bere burutzaren bidez.

Ez da beharrezkoa izango ikerketa-eginbideak hastea fiskalak gaia beste fiskaltza baten alde inhibitzea erabakitzen duen kasuetan, inolako eginbiderik egitea erabaki gabe.

Bere fiskaltzaren eskumeneko gaia bada, buruzagitzak, zuzenean edo

ezarritako banaketa-sistemaren arabera dagokion fiskalak, salaketa edo atestaturia zorrotz aztertu eta honako hauek emango ditu: eginbideak hasteko eta erabat artxibatzeko dekretua; ikerketa-eginbideak hasteko eta gauzatzeko dekretua; prozedura hasteko eta gauzatzeko dekretua, eta, ondoren, salaketa edo kereila jartzeko dekretua, edo, kasuak hala eskatzen badu, jasotako salaketa organo judizial eskudunari helaraztea, ikerketa-eginbideak hasi eta zuzenean berriz bidaltzeko erabaki arrazoitua hartu ondoren.

196

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

B) Salaketa edo atestaturia atal espezializatu baten berezko gai bati buruzkoa bada, burutzak dagokion atalera bideratuko ditu.

Fiskaltzaren lurralde-ataletan edo atal espezializatuetan zuzenean aurkeztutako salaketak edo atestaturiak burutzara bidali beharko dira, erregistratu eta banatu ahal izateko. Hala ere, salbuetsita geratzen dira salaketa edo atestaturia zabaltzaileen kasuak, baldin eta xede dituzten egitateekin loturik dagoeneko abiarazi badira ikerketa-eginbideak. Kasu horretan, ondoren sartu ahal izango dira prozeduran.

10. Atal espezializatuen aldibereko eskumena

Egitateak ezagutzeko eskumena, haien konplexutasuna edo izaera kontuan harturik, bi atal espezializaturik edo gehiagori badagokie, buruzagitzak honako erabaki hauetakoren bat hartuko du:

i) Egitateak materialki lotuta ez badaude, Prozedura Kriminalaren Legearen 17.1 eta 2 artikulua dioenari jarraikiz, eta hori saihesteko arrazoirik ikusten ez bada, burutzak bere espezialitate-eremuko egitateei dagozkien atal espezializatuak esleitu ahal izango die bere bulegoa, eta egoera horren berri eman beharko die atal horiei guztiei. Kasu horietan, atalen arteko komunikazioa

eta koordinazioa alde batera utzi gabe, hasiera eta/edo artxiboa modu independentean ebatziko du atal bakoitzak, eta, kasuak hala eskatzen badu, bereizita egingo dira ikerketak.

ii) Egitateak materialki lotuta badaude, Prozedura Kriminalaren Legearen 17.1 eta 2 artikulua zehaztutakoari jarraikiz, edo beste edozein arrazoiengatik komenigarritzat jotzen bada elkarrekin ikertzea, buruzagitzak lantalde bat sortzea erabakiko du, inplikaturik diren fiskal delegatuek osatua.

197

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 –
Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Horretarako, talde bateratu bat sortzea adostuko duen dekretu bat emango du, eta, han, hura osatzen duten fiskalen esku-hartzea arautuko duten jardun-irizpideak finkatuko ditu.

11. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiaraztea

Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiarazteak honako kausa hauek izan ditzake: salaketa bat, polizia-atestatu bat igortzea, Europako ikerketa-agindu batean edo erreguzko batzorde batean jasotako informazioa, organo judizialek edo administratiboek edo Fiskaltzak berak erabakitako lekukotza-kenkariak, edo, azken batean, delitu-egitate baten ustezko betearazpenaren berri izatea ahalbidetzen duten informazioak helaraztea edozein bidetatik. Gerta daiteke ofizioz ere, fiskalak egitateen berri zuzenean izatearen ondorioz.

Konfidentzialtasunak, salaketa anonimoak, susmoak edo zurrumurruek oinarri nahikoa izango dira prozesu aurreko ikerketak hasteko, baldin eta gutxieneko euskarri objektibo edo materiala badute.

12. Espedientea abiarazteko dekretuaren edukia

Ikerketa-eginbideak dekretu bidez hasiko dira. Dekretu horretan, xehetasun hauek jasoko dira beti: i) ikertutako egitateen zerrenda labur bat; ii)

susmagarritzat jotzen den pertsonaren identitatea, halakorik balego; iii) ikertutako egitateen behin-behineko kalifikazioa; iv) nahitaez egin beharrekotzat jotzen diren eginbideak; v) egitate berberen gaineko jarduketa judizialik ez dagoela egiaztatzea; eta vi) ikerketaren ardura duen fiskalaren identitatea.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Espedientea hasteko dekretua eman ondoren, idatzoharra egingo da. Prozesu aurreko ikerketa-eginbideek zenbaketa korrelatiboa izango dute, ikerketa-eginbide osagarriei eta prozesu ostekoei dagokienetik berezia.

13. Eskumen objektiboa

Fiskal guztiak jo daitezke erabat eskudun ikerketa-eginbideak hasteko eta izapidetzeko, baina antolaketa-arrazoiak direla-eta, beharrezkoa da organo fiskal bakoitzeko buruzagitzeari esleitzea prozedura abiarazteko agindua emateko eskumena, salbu eta gaiaren arabera kasu zehatz batzuetan, atal espezializatuetakoko fiskal delegatuei dagokienean zeregin hori, eta horiek beren fiskalburuen ikus-onespena beharko dute abiarazteko proiektuetarako.

Ezerk ez du eragozten atal espezializatuetakoko fiskalburuek eta fiskal delegatuek, lana banatzeko eginkizunak betez (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 22.5 artikulua), beren plantillako edo, kasuaren arabera, zuzentzen duten atal espezializatuko beste kide batzuei ikerketa-eginbideak hastea eta/edo izapidetzea esleitzea, egoki deritzotenean.

14. Atal espezializatuaren eskumen objektiboa

Fiskaltza bakoitzak bere burua antolatzeko dituen ahalmenen kalterik gabe, *notitia criminis*aren xedea atal espezializatu baten ardurapeko egitateak direnean, haren fiskal delegatuari dagokio ikerketa-eginbideak hastea eta

izapidetzea, edo, kasuaren arabera, egiteko hori esleitzen dion ataleko kideari.

199

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Hala ere, Fiskaltzaren organo bakoitzak berezitasunak dituen plantillaren beraren dimentsiotik, giza baliabideen banaketatik edo espezialitatearen arloko eskumeneko prozeduren bolumenetik eratorrita, buruzagitzak, atal espezializatuko fiskal delegatuak aldeztu aurretik eskatuta, bere gain hartu ahal izango du ikerketa-eginbideak abiaraztea eta bideratzea, edo, kasuak hala eskatzen badu, atal horretan sartuta ez dagoen fiskal bat izendatu ahal izango du horretarako.

15. Fiskaltza berezien eta Auzitegi Nazionalaren eskumen objektiboa

Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzan, Drogaren aurkako Fiskaltzan eta Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuaren aurkako Fiskaltzan, zeinen eskumena gaiaren arabera zehazten baita Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 19. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, buruzagitzari dagokie ikerketa-eginbideak hastea.

Organo fiskal horietako burutzek ikerketa-eginbideen izapidea plantillako kide batzuen edo guztien artean banatu ahal izango dute, aldeztu aurretik ezarritako txandaren arabera, edo, halakorik ezean, banaka hautatu ahal izango dituzte.

16. Lurralde-eskumena

Ikerketa-eginbideak izapidetzeko lurralde-eskumena, arau orokor gisa, jurisdikzio-organo eskudunen lurraldeko fiskaltzari dagokio, fiskaltza horrek jarduteko legitimitatea duenean.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Egitateak hainbat lurraldetan egin izanaren ondorioz, xede bera duten hainbat ikerketa egin direla egiaztatuz gero, eta hainbat fiskaltza objektiboki eta lurraldeari dagokionez eskudunak direla egiaztatuz gero, horien berri izan duen lehenengo fiskaltzari egokituko zaio ikerketa horien berri izatea. Kasu horietan, gainerako fiskaltzak berehala inhibituko dira haren alde, eta ordura arte gauzatutako eginbide guztiak igorriko dituzte. Fiskaltza batek baino gehiagok egitate kriminalaren berri aldi berean jaso dutenean, plantilla handiena duen fiskaltza izango da eskuduna. Fiskal kopuru bera izatearen salbuespenezko kasuan, mailarik gaileneneko fiskalak izango du eskumena.

17. Lurralde-eskumenari buruzko eztabaidak ebazteko irizpideak

Fiskaltza jakin baten aldeko inhibizioak eta/edo inhibizio-eskaerak fiskalburuek bakarrik egin ahal izango dituzte, eta fiskalburuek beren homologoei zuzenduko dizkiete.

Lurralde-eskumenari buruzko eztabaida sortuz gero, planteatzen duen fiskalburuak txosten arrazoitu bat bidali beharko dio bere homologoari, eta bere alde —edo hirugarren baten alde— erabat edo partzialki inhibitzeko edo, kasuak hala eskatzen badu, sustatutako inhibizioa onartzeko eskatuko dio. Komunikazioetan adostasunik lortzen ez bada, ados ez dagoenak eskaera egin ahal izango dio hierarkian gainetik dagoen kide komunari, eta hark bidezkoa dena ebatziko du tartean diren fiskalburuen eta, kasuaren arabera, sala espezialistako fiskalaren iritzia jaso ondoren. Eztabaida hainbat autonomia-erkidegotako lurralde-fiskaltzen artean sortzen denean, Estatuko fiskal nagusiari planteatuko zaio desadostasuna, eta hark ebatziko du, inplikaturik dauden fiskalburuei eta, kasuaren arabera, dagokion salako fiskal espezialistari entzun ondoren.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Eztabaida konpontzen ez den bitartean, ikerketaren ardura duen fiskalak egoki iritzitako eginbideak egiten jarraituko du, ikerketa behar bezala amaitzeko.

18. Forudunen aurkako ikerketak

Ikerketa-eginbideak forudunen aurka baino ez direnean egiten, auzitegi eskudunean jarraitutako prozedurez arduratzea dagokion fiskaltzari esleituko zaio eskumena, forupekotza dela-eta.

Ikerketa pertsona talde baten kontra egiten bada eta haietatik bakarrak edo batzuek badute foru berezia, ikerketako egitateak gertatu diren lekuko fiskaltzari dagokio eskumena. Kasu horretan, beharrezkoak diren eginbideak egin ondoren fiskalek ez badute ikusten erantzukizun kriminalaren zantzurik forudunari dagokionez, fiskaltza horrek erabakiko du forudunari buruzko jarduketak artxibatzea, hargatik eragotzi gabe forudunak ez diren pertsonen aurkako ikerketarekin jarraitzeko aukera.

Foruduna inputatzeko arrazoizko oinarria izan daitekeen zantzuren bat badago, ikerketa gauzatzen ari den fiskaltzak ez du egingo deklaratzeko zitaziorik, ikerketaren berri eman besterik ez, defentsa-eskubidea egikaritu ahal izan dezan, eginbideetan pertsonatuz, eginbideetan sartuz eta esku hartuz, eta, kasuak hala eskatzen badu, borondatezko deklarazioa eginez. Nolanahi ere, fiskaltza ikertzaileak foru-babesaren arabera eskudun den organo fiskalari igorriko dizkio jarduketak, forudunari deklarazioa hartzeko edo, kasuaren arabera, dagozkion ekintzak egin ditzan edo eginbideak artxiba ditzan.



Forudunei eta forugabeei egotzitako egitateak batera ikertuko ditu fiskaltza eskudunak, zirkular honen 4.3.1.3 epigrafean aurreikusitako kasuetan forudunak izatearen ondorioz.

19. Salako fiskal espezialisten ahalmenak

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. artikulua araberan, salako fiskal espezialistek ikerketa-eginbideak egin ahal izango dituzte, garrantzi bereziko arrazoiak direla medio, Estatuko fiskal nagusiak baimena eman ondoren. Kasu horietatik kanpo, salako fiskal espezialistek ez dute izango inolako ikerketarik egiteko ahalmenik.

Salbuespen gisa, arrazoi operatiboek eta gaiaren berezitasun bereziak eraginda, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Kriminalitate Informatikoaren Unitate Espezializatuari aukera ematen zaio atxikitako polizia-unitateez baliatzeko dagozkion ikerketa-eginbideak hasi ondoren, baina *forum delicti comissia* zehazteko bakarrik, betiere ezinbestekoa bada ustezko erantzulearen identifikazioa zehaztu dezaketen izaera teknologikoko eginbideak egitea. Era berean, datuak segurtatzeko edo kontserbatzeko neurriak hartzea beharrezkoa denean, Prozedura Kriminalaren Legearen 588. *octies* artikuluan aurreikusita bezala. Ikerketa-eginbide horiek ahalik eta azkarren izapidetuko dira, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikuluko epea ez agortzeko.

20. Salako fiskal espezialistei egindako jakinarazpenak

Espezialitate bakoitzeko lurralde-fiskal delegatuek, beren buruzagitzaren bidez, salako fiskal espezialistei jakinaraziko dizkiete beren eskumen-eremuetan hasitako ikerketa-eginbideak.



Dagokion areto espezialistako fiskalak edo Estatuko Fiskaltza Nagusiaren doktrinak ezarritako irizpideen arabera hala egin behar denean, lurralde-fiskalek honako alderdi hauen berri emango diote Estatuko Fiskaltza Nagusiaren unitate espezializatu bakoitzari: i) abiarazitako ikerketa-eginbideak, abiarazpen-dekretuen kopia aurkeztuta; ii) ikerketa-eginbideak abiaraztea baztertzen duten dekretuak, horien kopia aurkeztuta; iii) ikerketa-eginbideak artxibatzea erabakitzen duten dekretuak, horien kopia aurkeztuta; eta iv) abiarazitako ikerketa-eginbideen barruan Fiskaltzak jarritako salaketak edo kereilak.

Organo bakoitzeko fiskalburuei fiskaltzen zuzendaritzan eta kontrolean estatutuek ematen dizkieten ahalmenei kalterik egin gabe, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 20. artikulua ematen dien gainbegiratze-funtzioak aukera ematen du salako fiskal espezialistek oharrak egin ditzaten beren eskumeneko gaiei buruzko ikerketa-eginbideak hasi, izapidetu eta ebazteari buruz, eta, bereziki, garrantzi sozial eta/edo juridikoagatik garrantzi berezikotzat jotzen diren gaiei buruz. Hala ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren doktrinaren arabera, ohar edo iradokizun horiek ez dute izaera loteslerik.

21. Fiskal nagusien ahalmenak

Goragoko fiskalek beren eskumeneko lurraldean egindako edozein delituegitateri buruzko ikerketa-eginbideak abiarazteko eta izapidetzeko aukera alde batera utzi gabe, ahalmen horren erabilera haztatua egingo dute, eta beren gain hartuko dituzte *a priori* probintziako edo arloko fiskaltzaren eskumenekoak diren ikerketak, hori justifikatzen duten salbuespenezko arrazoiak daudenean.



22. Europako Fiskaltzarekiko harremanak

Beren eginkizunak betetzean, Europako fiskal delegatuek Fiskaltzako kideen lankidetzak eskatu ahal izango dute jardura zehatzak gauzatzeko, eta horretarako Estatuko Fiskaltza Nagusira jo beharko dute (uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren 5.3 artikulua).

Eginbide zehatz bat edo batzuk gauzatzeko edozein lankidetzak-eskaera zuzenean jasotzen duten fiskal nazionalak Europako Fiskaltzari jakinaraziko diote Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bidez bideratu behar dituztela eskaerak (uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren 22. artikulua).

23. Europako Fiskaltzaren aldeko inhibizioak

Fiskalek irizten badiote Europako Fiskaltzari dagokiola Fiskaltzaren ikerketa-eginbide batzuen esparruan ikertzen ari den gai baten berri izateko eskumena, berehala jakinaraziko diote —dagokion buruzagitzaren bitartez— Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuen aurkako Fiskaltza Bereziko salako fiskalburuari, eta hark Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoa ipiniko du jakinaren gainean. Eskumena Europako Fiskaltzari dagokiola ondorioztatzen bada, Estatuko Fiskaltza Nagusiko titularrak edo hark izendatzen duenak Europako fiskal delegatuei jakinaraziko die, bereganatzeko eskubidea egikaritu ahal izateko (uztailaren 1eko 9/2021 Lege Organikoaren 19.1 artikulua).

Jakinazpen horren ondoren, Europako Fiskaltzak gaiaren eskumena bere gain ez hartzea erabakitzen badu, Estatuko fiskal nagusiak ebatziko du desadostasuna, uztailaren 1eko 9/2021 Legearen 9.1 artikulua dionari jarraikiz, eta, horretarako, alde aurretik Salako Fiskalen Batzordea deituko du (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 21. *bis* artikulua).



24. Europako Fiskaltzaren aurrean deklinatoria planteatzea

Fiskalek irizten diotenean Europako Fiskaltzak esku artean duen auziren bat haien eskumenekoa dela, berehala jakinaraziko diote, buruzagitzaren bidez, Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuen aurkako Fiskaltza Bereziko salako fiskal buruari, eta hark, berriz, Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoari. Egoki bada, Estatuko Fiskaltza Nagusiko titularrak edo hark izendatzen duenak Europako Fiskaltzari eskatuko dio jo dezala bere burua ezgaitzat. Desadostasunik izanez gero, Estatuko Fiskaltza Nagusiko titularrak erabakiko du behin betiko, Salako Fiskalen Batzordeari entzun ondoren (uztailaren 1eko 9/2021 Legearen 9.1 artikulua).

25. Susmagarriaren prozesuz kanpoko bermeak

Fiskalek formalki aitortuko diote *susmagarritasuna* ikerketapean dagoen subjektuari, delitu-egitate bat esleitzea arrazoiz justifikatzen duen egozpenerako oinarri material bat dagoen unetik. Une horretatik aurrera, egindako eginbideen edukiaren berri izango du. Orduetik aurrera, eginbide horiek aurkakotasunez egin beharko dira, eta, beraz, bere abokatu ordezkariak esku hartu beharko du, Prozedura Kriminalaren Legearen 118. eta 119. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Jarduketan sekretua eskatu behar denean edo susmagarritasuna esleitzearen ondorioz hartutako kautela-neurriak zapuztu daitezkeenean, fiskalek beren ikerketa bertan behera utziko dute eta salaketa edo kereila jarriko dute, eta sekretu-deklarazioa edo kautelazko neurri egokiak hartzea eskatuko dute, susmagarriari ikerketaren berri eman gabe.



26. Ikerketa-eginbideen amaiera: jarraibide orokorrak

Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak dekretu arrazoitu bidez amaitzea erabakiko da. Fiskalek hizkera argia eta ulergarria erabiliko dute, haien argudioak erraz ulertu ahal izateko, bai eta haien erabakiak gertakari berei buruzko prozedura judicial bat hastea eragotzi ez dezan ere.

Izapidetzea fiskalburuari dagokionean izan ezik, jarduten duen fiskalak dekretu-proiektu bat aurkeztu beharko du ikerketa-eginbideak amaitzea erabakitzen duen dekretua eman aurretik, buruzagitzak edo horretarako izendatu den fiskalak oniritzia eman diezaion. Ondoren, dekretu-proiektua, hala badagokio, ikus-onesteko izapidean egindako oharretara egokitu ondoren, fiskalak sinatu egingo du, eta, artxibatzea erabaki ezean, dagokion salaketa edo kereila aurkeztuko dio organo judicial eskudunari.

27. Erabat artxibatzea

Fiskalek ikerketa-eginbideak erabat artxibatzea erabaki ahal izango dute, arrazoitutako dekretu baten bidez, baldin eta salaketan edo polizia-atestatuan adierazitako egitateak objektiboak eta zalantzarik gabe ezohikoak edo argi eta garbi sinesgaitzak badira.



28. Salaketa edo atestatua zuzenean organo judizialari bidaltzea

Buruzagitzek zuzenean helaraziko diote organo judizial eskudunari jasotako polizia-salaketa edo -atestatua, aldez aurretik ikerketa-eginbideak hasita eta zuzenean birbidaltzeko erabaki arrazoitua hartuta, baldin eta espedientea abiarazteko unean bazekiten abian zela egitate berberen gainean prozedura judizial bat. Kasu horietan, ikerketa-eginbideak hasteko dekretua izango da zuzenean birbidaltzeko erabaki arrazoitua.

Egitate berberei buruzko prozedura judizial bat abian dagoela ikerketa-eginbide batzuk izapidetzen ari diren bitartean jakinez gero, fiskal arduradunak berehala erabakiko du prozedura amaitzea eta organo judizialari berriz bidaltzea. Horretarako, dekretu arrazoitua emango du, eta, aldez aurretik, dagokion espezialitateko buruzagitzaren edo fiskal delegatuaren oniritzia beharko du. Kasu horietan, ikerketaren ardura duen fiskalari dagokio ikerketa-eginbideen espediente osoa organo judizial eskudunari helaraztea.

29. Salaketa edo kereila jarrita amaitzea edo zigorra ezartzeko proposamenari buruzko dekretua bidalita

Akzio penala egikaritzea justifikatzen duten kriminalitate-zantzuak hautematen dituztenean, fiskalek ikerketa-eginbideak dekretu arrazoitu bidez amaitzea erabakiko dute, eta prozedura judizial bati ekitea sustatuko dute, salaketa, kereila edo, hala badagokio, zigorra ezartzeko proposamen-dekretu bat bidaliz, Prozedura Kriminalaren Legearen 803. *bis* d) artikulua araberera.



Ikerketa-eginbideak amaitzea erabakitzen duen dekretuak honako hau baino ez du adieraziko: gauzatutako eginbideen emaitzaren ondorioz, akzio penala erabili behar izan dela, salaketa, kereila edo, kasuak hala eskatuta, zigorra

ezartzeko proposamen-dekretu bat bidaliz, Prozedura Kriminalaren Legearen 803. *bis* d) artikulua araberaz.

Amaitzeko dekretu-proiektuak eta salaketa, kereila edo zigorra ezartzeko proposamena aldi berean aurkeztuko zaizkio bisatua dagokion espezialitateko buruzagitzari edo ordezkariari, edo zeregin hori betetzeko izendatutako fiskalari.

Fiskalek susmagarriari jakinaraziko diote ikerketa-eginbideak amaitu direla eta salaketa edo kereila jarri dela, salaketa edo kereila helarazita, sumario-sekretua deklaratzeko eskatzen den kasuetan izan ezik. Halaber, zigorra ezartzeko proposamenaren dekretua instrukzio-epaitegira bidali dela jakinaraziko dute.

Gertakarien garrantziak edo garrantziak Estatuko Fiskal Nagusiari jakinaraztea eskatzen duenean Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 25. artikulua araberaz, edo eskatzen duenean, orobat, salaketa edo kereila aurkeztea, edo zigorra ezartzeko proposamenaren dekretua igortzea, ez da egingo, harik eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren baimena jaso arte, Idazkaritza Teknikoaren bidez.

30. Salaketarekin edo kereilarekin batera organo judizialari bidali beharreko dokumentazioa

Fiskalek organo judizialari igorriko diote —salaketarekin edo kereilarekin batera, edo zigorra ezartzeko proposamenaren dekretuarekin batera— ikerketa-eginbideen espediente osoa. Espediente horrek, jakina, honako hauek jasoko ditu: prozedura hasteko dekretua, eginbideak gauzatzea erabakitzen duten dekretuak, eginbideen praktika dokumentatzen duten aktak eta eginbideen emaitza, eginbideen luzapena baimentzen duen dekretua, bai eta amaiera-dekretua ere.



Hala ere, fiskalak arduratuko dira organo judizialari ohartarazteaz beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla alderdiek informazioa eskura ez dezaten, baldin eta informazio hori ez bada garrantzitsua prozeduran zehar, eta informazio hori intimoa bada edo beste edozein arrazoirengatik dagokion pertsonaren ohoreari edo duintasunari kalte egin badiezaioke.

Kasuan kasuko buruzagitzek hasitako ikerketei buruz emandako zerbitzu-aginduak, ikus-onespenen oharrak barne, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 25. artikulua babesean egindako komunikazioak, bai eta horietan zehar sor daitezkeen desadostasunak ere (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 27. artikulua bidez formalizatuak izan edo ez), edo gai baten bereganatzeari dagokionez planteatzen direnak (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 23. artikulua) ez dira inola ere ikerketa-eginbideen prozeduran sartuko, ez baitira horien parte. Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 25. artikulua babesean egindako komunikazioak eta desadostasunen eta goragokoak bereganatzearen izapideak horretarako hasitako gobernu-espedientearen bidez egin beharko dira.

Gobernu-espediente hori ikerketa-eginbideen prozedurarekin batera izapidetuko da beti, eta haren hasiera eta emaitza isilpekoak izango dira, bai eta zerbitzu-aginduak eta jarraibide partikularrak ere. Horregatik, organo judizialari ez zaio horren berri emango, eta prozedura horretan ez da ezer jasota utziko, izaera judiziala edo judizioz kanpokoia izan.

31. Ondorioa eta artxiboa, organo judizialera igorri gabe

210

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Fiskalek jarduketak amaitzea eta artxibatzea erabakiko dute, organo judizialera igorri gabe, honako kasu hauetan: i) ikertutako egitateei ezein zigortipo ez dagokiela ulertzen dutenean; ii) absoluzio-aitzakia bat dagoela ikusten

dutenean; iii) salatutako egitateen errealitatea gutxienez berretsi ez dela uste dutenean; iv) erantzukizun kriminala azkentzeko kausa bat dagoela ikusten dutenean (Zigor Kodearen 130. artikulua); v) Zigor Kodearen 31. artikulua bigarren eta laugarren apartatuetan aurreikusitako pertsona juridikoen erantzukizunetik salbuesteko kasuak gertatzen direnean.

Erantzukizun kriminala duten subjektuak identifikatu ez badira, fiskalek organo judizial eskudunari igorriko dizkiote jarduketak, eginbideak hasteko eta behin-behineko largespena eskatzeko aldi berean. Egokitasun-arrazoiengatik jarduketak artxibatzea erabakiko dute, baina Zigor Kodeko 171.3 eta 191.1 artikuluetan eta Prozedura Kriminalaren Legearen 963. artikuluan berariaz araututako kasuetan soilik.

Ikerketa amaitzeko eta artxibatzeko erabakiak dekretu forma izango du, arrazoitua izango da, eta jakinarazpena egin aurretik ikus-onetsi beharko da. Ikertutako egitateek garrantzi edo garrantzi berezia duten kasuetan (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 25. artikulua), amaiera eta artxibatzeko dekretua salatzaileari eta/edo pertsona susmagarriari jakinarazteko, alde aurretik Estatuko Fiskal Nagusiari jakinarazi beharko zaio, Idazkaritza Teknikoaren bidez.

Jakinarazpena egin aurretik, amaiera eta artxibatzeko dekretuak dagokion buruzagitzaren, fiskal delegatu espezialistaren edo horiek eskuordetzen dituzten fiskalaren oniritzia beharko du.

Amaitzeko eta artxibatzeko dekretua salatzaileari, ofendituari, kaltetuari eta susmagarriari jakinaraziko zaie, halakorik badago. Beraz, ikerketaren berri izan duenean bakarrik jakinaraziko zaio azken horri.



Prozesu aurreko ikerketa-eginbideak, egitate berberei buruzko prozedura judizial bat hasi ondoren egindakoak, guztiz baliozkoak eta eraginkorrak izango dira, betiere susmagarriaren bermeak erabat errespetatuz egin badira eta ez badute eragiten defentsa-gabezia materialik.

33.- Delitu erdipublikoak eta erdipribatuak

Delitu erdipribatu eta erdipublikoetan, fiskalek prozesu aurreko ikerketa-eginbideak abiarazi ahal izango dituzte, nahiz eta ofendituak edo kaltetuak salaketarik edo kereilarik jarri ez.

Sexu-eraso eta -jazarpeneko delituetan, ikerketa-eginbideak bitarteko egokiak izango dira Zigor Kodearen 191. artikulua aipatzen dituen bidezko interesak haztatzeko, nahitaezko kereila jartzeari buruz erabakitzeko. Era berean, salaketa aurkeztu ala ez erabakitzeko beharrezkoa den bidea izango dira, biktima adingabea edo babes berezia behar duen desgaitua izateagatik hura jartzea prozedurazko baldintza objektibo gisa jarduten duten delituetan.

Gainerako kasuetan, delituaren biktimak edo kaltetunak adierazten badu ez duela jarri nahi salaketarik edo kereilarik, fiskalek berehala artxibatuko dituzte hasitako ikerketa-eginbideak, hargatik eragotzi gabe denboraren poderioz galtzea aurreikus daitekeen aztarnak biltzeko aukera, betiere delituaren preskripzio-epeak igaro arte behar bezala kontserbatuko direla bermatuz.



34. Delitu pribatuak

Fiskaltzak ezin izango du egin prozesuz kanpoko ikerketarik partikularren aurkako kalumnia eta irainen delitu pribatuetan.

35. Fiskaltzaren ikerketa-ahalmenak

Fiskalek egokitzat eta baliagarritzat jotzen dituzten eginbideak egin ahal izango dituzte ikertutako egitateak argitzeko eta erantzuleak identifikatzeko, epailearen baimena behar duten eginbideak izan ezik.

36. Polizia judizialaren eskuordetze orokorrak debekatzea

Ikerketa-eginbideak abiarazi ondoren, fiskalei dagokie egin beharreko ikerketa zehatzak erabakitzea, eta ahalmen hori ezin izango diote, oro har, polizia judizialari eskuordetzan eman. Nolanahi ere, laguntza eskatu ahal izango dute eginahal horietarako.

37. Susmagarriaren adierazpena

Susmagarriari deklarazioa hartzea erabakitzen bada, fiskalek honako alderdi hauen berri emango diote, hizkera erraz eta eskuragarrian eta hizkuntza ulergarrian: i) egozten zaizkion egitateak; ii) egitateen behin-behineko kalifikazio juridikoa; iii) eginbideen edukira prokuradorearen edo abokatu ordezkariaren bidez iristeko aukera; iv) ordutik aurrera egiten diren eginbideetan aurkakotasunez esku hartzeko eskubidea.



Ikerketa-eginbideen eremuan susmagarriaren deklarazioak Prozedura Kriminalaren Legean ikertuak organo judizialaren aurrean ematen dituenetarako aurreikusten diren berme berberak izango ditu.

38. Nazioarteko lankidetzak juridikoa

Nazioarteko lankidetzak judizialeko tresnen bidez, oinarrizko eskubideak mugatzen dituen neurriak ez duen edozein ikerketa-eginbide eskatu ahal izango diete fiskalek atzerriko agintariei, Europar Batasunean zigor-ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legearen eta indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera.

Fiskalburuek, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2011 Instrukzioarekin bat etorriz, Nazioarteko Zigor Lankidetzako Sala Koordinatzaileko fiskalari jakinaraziko diote beren fiskaltzetan egiten duten nazioarteko edozein jardura, beharrezkoa den laguntza errazteko, eta hor barnean sartuko da ikerketa batean nazioarteko lankidetzak judiziala behar denean edo behar izan daitekeenean eratu daitekeen baterako lantaldean nazioarteko lankidetzako fiskal espezialistak biltzea.

Europako ikerketa-aginduak eta fiskalek beren ikerketa-eginbideen barruan emandako erreguzko komisioak espediente aktibo gisa erregistratuko dira nazioarteko lankidetzak penaleko kudeaketa informatikoko CRIS sisteman.



39. Kautela-neurriak

Atxiloketa prebentiboa izan ezik, fiskalek ezin izango dute hartu kautela-neurriak edo eskubideak mugatzen dituen neurriak ikerketa-eginbideetan, izan horiek pertsonalak edo errealak.

Prebentziozko atxiloketaren kautela-neurria prozedura judizial bat abian ez dagoen bitartean bakarrik erabaki ahal izango da. Fiskalek ez dute hartuko inor

atxilotzeko erabakirik, ikerketa-eginbide osagarri batzuen esparruan.

D. Ikerketa-eginbide osagarriak

40. Abiaraztea

Fiskalek «ikerketa-eginbide osagarriak» abiarazi ahal izango dituzte, baldin eta beharrezkotzat jotzen badute alderdi zehatzei buruzko eginbide zehatzak egitea, abian den ikerketa judiziala osatzeko, edozein prozesu-fasetan dagoela ere (instrukzioa, bitartekoa edo ahozko epaiketa). Ahalmen horren erabilera haztatua egin beharko da, eta lehentasuna emango zaio eginbideak organo judizialak gauzatzeari — bereziki instrukzio-fasean—.

41. Eskumena

Ikerketa-eginbide osagarriak hastea eta izapidetzea prozedura judizialaz arduratzea esleituta duen fiskalari dagokio, hargatik eragotzi gabe Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 22. artikulua buruzagitzeari ematen dizkien ahalmenak eta Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 26. artikuluan aurreikusitakoa.

215

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Ikerketa-eginbide osagarriak abiarazteko dekretua dagokion buruzagitzari jakinarazi beharko zaio, organo fiskal bakoitzean hasten diren prozedura mota horien kontrol eta azterketa kuantitatiboa egiteko.

Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren eta Fiskaltza Berezien kasuan, fiskaltza berezietan dagokie beti abiarazteko eskumena, hargatik eragotzi gabe izapidetzea arau orokor gisa prozesu judizialaz arduratzen den fiskalari esleitzea.

42. Ikerketa-eginbide osagarriak hastearren salbuespena

Ez da beharrezkoa izango ikerketa-eginbide osagarriak abiaraztea ahozko judizioaren egintzara lekuko edo aditu bat edo batzuk deitzea agintzeko, kasu horietan ez baita egiten inolako ikerketa-jarduerarik. Eta ez da halakorik egiten, orobat, fiskala auzipetuaren orri historiko-penala jasotzera edo puntu neutro judizialera sartzera mugatzen den kasuetan, organo judizialaren aurrean dokumentazioa aurkezteko, eginbide mota horren ikerketa-izaera urria kontuan hartuta. Kasu horietan, auzipetuaren eskubideak erabat bermatuko dira dokumentazio hori helarazten den unean bertan, eta, horri dagokionez, defentsa-eskubideari dagozkion ahalmenak zabaltzeko aukera ematen den unean.

43. Ikerketa-eginbide osagarrien amaiera

Fiskaltzaren ikerketa-eginbide osagarrien amaiera arrazoitutako dekretu bidez erabaki beharko da, horiek hastea justifikatu zuten ikerketa-eginbideak bete ondoren. Amaiera-dekretua berehala jakinaraziko zaio buruzagitzari.

216

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Ikerketa-eginbide osagarriak amaitutakoan, fiskalek osorik helaraziko dizkiete organo judizialari eta auzipetuaren abokatu ordezkariari, prozedura jada identifikatutako subjektu baten aurkakoa denean, egindako ikerketen emaitza eta prozedura judizialaren bilakaeran izan dezakeen garrantzi handiagoa edo txikiagoa alde batera utzita.

E. Prozesu osteko ikerketa-eginbideak

44. Xedea eta helburua

Prozedura judiziala berriro irekitzea ahalbidetuko duten froga-iturri berriak lortzeko, fiskalek prozesu osteko ikerketa-eginbideak hasi ahal izango dituzte,

jarduketak behin-behinean largetsi ondoren, Prozedura Kriminalaren Legearen 641. artikulua araberaz.

Behin-behineko largespenaren ondoren prozesuz kanpoko jarduera egiteko aukera Prozedura Kriminalaren Legearen 641. artikuluan araututakotik eratorritzen da; izan ere, alderdien eta Polizia Judizialaren prozesuz kanpoko jarduera onartzen bada bakarrik imajinatu ahal izango da zigor-arloko prozedura berriro irekitzea ahalbidetuko duten froga-iturri berriak lortzea.

45. Abiaraztea

Prozedura hasteko erabakiak dekretu forma hartuko du, eta bertan zehaztuko dira egin beharreko eginbideak; era berean, azalduko da zergatik uste den eginbide horiek egokiak izan daitezkeela artxibatutako prozesu judiziala berriro irekitzeko.

217

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Dekretua egin ondoren, berehala jakinaraziko zaio dagokion buruzagitzari, dagokion ikus-onespena eman diezaion, garrantzi bereziko kasuak alde batera utzi gabe (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 25. artikulua). Horietan, burutzak horren berri emango dio aldez aurretik Estatuko fiskal nagusiari, Idazkaritza Teknikoaren bidez.

46. Eskumena

Prozesu osteko ikerketa-eginbideak hasteko eta izapidetzeko eskuduntzat joko da artxibatutako prozedura judizialaren ardura aldez aurretik egokitu zaion fiskala, hargatik eragotzi gabe Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 26. artikuluan aurreikusitakoa eta Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 22. artikulua buruzagitzari emandako ahalmenak, zeinek horiek abiaraztea eta, ondoren, dagokion fiskalari esleitzea hartu ahal izango baitute beren gain.

Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren eta Fiskaltza Berezien kasuan, fiskaltza bereziei dagokie beti abiarazteko eskumena, hargatik eragotzi gabe izapidetzea arau orokor gisa prozesu judiziala ezagutu duen fiskalari esleitzea.

47. Prozesu osteko ikerketa-eginbideen amaiera

Prozesu osteko ikerketa-eginbideak dekretu arrazoitu bidez amaituko dira. Dagokion ikus-onespena eman ondoren, fiskalek osorik helaraziko dizkiote organo judizialari, baina egindako hori ikerketarako garrantzitsua denean edo ikertutako pertsonaren aldekoa edo aurkakoa denean bakarrik, eta organo judizialari eskatuko dio prozedura berriro irekitzeko eta bere ustez bidezkoa den ebazpena hartzeko.

218

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Egindako eginbideen emaitza garrantzitsua ez bada, fiskalek susmagarriaren abokatu ordezkariari jakinaraziko diote egindako jardueraren emaitza eta prozesu osteko ikerketa-eginbideak amaitzeko dekretua.

48. Prozesuz kanpoko bermeak: ikerketa-eginbide osagarri eta prozesu ostekoak

Prozedura judizialean ikertutako edo akusatutako pertsonari ikerketa osagarria eta/edo prozesu ostekoa egin dela jakinaraziko diote fiskalek, eta defentsa-eskubidea bere osoan aitortu eta baimenduko diote, Prozedura Kriminalaren Legearen 118. eta 119. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Ikerketa-eginbide horiek dirauten bitartean fiskalak arduratuko dira prozeduraren subjektu pasiboaren kontrako eta aldeko inguruabarrak hautemateaz eta jasotzeaz.

F. Ikerketa-eginbideen iraupena

49. Printzipio gidariak

Prozesu aurreko ikerketa-eginbideen ohiko iraupena sei hilabetekoa da (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulua). Ustelkeriaren eta Kriminalitate Antolatuaren aurkako Fiskaltza Bereziaren eginbideek, berriz, hamabi hilabeteko iraupen arrunta izaten dute (Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. eta 19.4 artikulua).

50. Epeen zenbaketa

Abiarazpen-dekretua ematen den egunetik hasi beharko da epea zenbatzen. *Dies ad quem* irizpideari dagokionez, Kode Zibilaren 5.1 artikulua dioenari jarraituko zaio.

219

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikuluko epea ikerketa-jarduerari baino ez zaio aplikatuko, eta ez beste jarduera mota batzuei, hala nola eginbideei oniritzia emateari edo salaketa edo kereila aurkezteari, zeinak epe hori amaitu ondoren egin ahal izango baitira, fiskal guztiei dagokien arreta eta azkartasunarekin.

51. Inhibizio-kasuetako berezitasunak

Lehia-arazoengatik inhibizioetan, kontuan hartu beharreko data hasierako dekretua izango da. Aldiz, ikerketa desberdinak prozedura bakar batean metatzen direnean, hasitako azken eginbideei ekingo zaie.

52. Berezitasunak, berriro irekiz gero

Aldez aurretik artxibatutako ikerketa-eginbide batzuk berriro irekiz gero, epea

ez da berrabiaraziko, baizik eta jarraitu egingo du.

53. Ikerketaren luzapena

Fiskalek ezin badute ikerketa Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikuluan araututako epeetan amaitu, luzapena eskatu beharko dute buruzagitzaren bidez, epea amaitu baino gutxienez hamabost egun natural lehenago. Luzapena eman ondoren, epe berria luzapena eskatu zen aldia amaitzen denetik aurrera zenbatuko da.

54. Epea urratzea

Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikulua araututako epeak urratuz gero, horrek ez du automatikoki ekarriko egindako eginbidearen deuseztasuna; baliozkotasuna defentsa-gabezia materialaren kontzeptuari lotuta egongo da.

220

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

G. Fiskaltzaren egintzen forma

55. Zein kasutan den bidezkoa ebazpena dekretu bidez ematea

Fiskaltzaren Erregelamenduaren 10. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 141. artikulua eta 144. *bis* artikulua interpretazio sistematikoari esker, uler daiteke fiskalen ebazpenek dekretu forma izango dutela, baldin eta ikerketa-prozeduraren funtsezko edo garrantzizko puntuei buruzkoak badira.

Nolanahi ere, eta adierazpen-ondoretarako bakarrik, dekretuaren forma izan beharko dute: i) prozesu aurreko ikerketa-eginbideak, osagarriak edo prozesu ostekoak hastea erabakitzen duten ebazpenak; ii) eginbideak gauzatzea erabakitzen duten ebazpenak; iii) ikerketa-eginbideen amaiera zehazten duten

ebazpenak; iv) ikerketa-eginbideak artxibatzea erabakitzen duten ebazpenak, salaketarik edo kereilarik jarri gabe; iv) organo judizialari berriz bidaltzea erabakitzen duten ebazpenak; v) susmagarriak egindako artxibatze-eskaera baiesten edo ezesten duten ebazpenak; vi) susmagarriak egindako eginbide-eskaera baiesten edo ezesten duten ebazpenak; vii) jarduketak eskuratzeko eskaera baiesten edo ezesten duten ebazpenak eta horien kopiak ematea; viii) eskumenari buruz erabakitzen duten ebazpenak eta inhibizioa erabakitzen dutenak; ix) ikerketaren ardura duen fiskalaren abstentzioa xedatzen edo ezesten duten ebazpenak; x) eskubide bat aitortzea edo ukatzea dakarten egintzak; xi) Polizia Judizialari emandako jarraibide bereziak; xii) lekukotza igortzea erabakitzen duten ebazpenak; xiii) zigorra ezartzeko proposamena (Prozedura Kriminalaren Legearen 803. bis c) artikulua).



56. Antolaketa-eginbidea ematea eskatzen duten kasuak

«Antolaketa-eginbide» gisa hartuko dira prozedura agintzera eta bultzatzera mugatzen diren ebazpenak, dekretuaren forma izan behar ez badute ere. Hala, adibidez: i) ikerketa-eginbideen edo jasotako salaketa edo atestatuaren baitan emandako dekretuak, dokumentuak edo txostenak helaraztea erabakitzen duten ebazpenak; ii) jarduketei edozein dokumentu edo froga-iturri gehitzea erabakitzen duten ebazpenak; iii) prozeduran zehar ikerketaren ardura duen fiskalak emandako ebazpenak jakinaraztea erabakitzen duten ebazpenak; iv) jarduerak erregistratu ondoren ikerketaren ardura duen fiskalari txandakatzea erabakitzen duten ebazpenak; v) salaketa edo kereila organo judizial eskudunari igortzea erabakitzen duten ebazpenak, eta, kasuak hala eskatzen badu, ikerketa-eginbideen espedientea.

57. Jasoarazteko eginbidea ematea eskatzen duten kasuak

«Jasoarazteko eginbide» izango dira prozedurazko garrantzia baino ez duten egitateak edo, hala badagokio, egintzak islatzera mugatzen diren ebazpenak. Horrela, adibidez: i) susmagarriari edo biktimari espedientera sartzeko baimena ematen zaion eguna eta ordua adierazten duten ebazpenak, nor den adierazita; ii) ikerketa-eginbideen kopia bat entregatzeko eguna eta ordua adierazten duten ebazpenak, nori entregatzen zaizkion adierazita, haren nortasunarekin eta dokumentu zehatzarekin; iii) gardentasun-atarietan edo irekitako beste iturri batzuetan sartzeko eguna eta ordua adierazten duten ebazpenak; iv) salaketa edo atestatu bat edo, oro har, beste edozein dokumentu edo froga-iturri jasotzeko eguna eta ordua adierazten duten ebazpenak; v) edozein dokumentu edo espediente beste fiskal, organo judicial edo hirugarren batzuei noiz eta zein ordutan bidaltzen zaizkien adierazten duten ebazpenak.

222

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Zehazki, dokumenturen bat, espedienteren bat, aztarnaren bat edo, oro har, ikerketa-prozeduran sartu beharreko beste edozein objektu jasotzen den bakoitzean, fiskalek dokumentatu egingo dute, jasotze-eginbidearen bidez, noiz jaso den, bidaltzailea eta espedientearekin bat egin duen eguna eta ordua adierazita. Era berean, jasota uzteko eginbidearen bidez dokumentatuko dute zein egunetan eta ordutan bidali behar diren espedientearekin lotutako dokumentuak, aztarnak edo beste edozein objektu, baita espedientearen beraren edo espedientearen kopia bat ere.

H. Lekukotza administrazio-agintariei bidaltzea

58. Jarduteko jarraibideak

Fiskalek administrazio-prozedura zehatzailea hasteko eta izapidetzeko

eskumena duen administrazioari jakinaraziko dizkiote zantzuen arabera administrazioko arau-haustea diren egitateak, horien berri izan bezain pronto, eta, horretarako, dagokion lekukotza bidaliko diote. Jakinarazpen hori geroratu ahal izango da, baldin eta ikerketa fiskalaren ibilbidea arriskuan jar badezake.

Fiskalek ere berdin jokatuko dute administrazioko arau-haustea ikerketa-eginbideetan identifikatutako susmagarriari egozten zaionean. Kasu horretan, fiskalek informazioa eskatuko diote Administrazioari zehapen-prozedura administratiboari hasiera ematearen inguruan hartutako erabakiari buruz, bai eta prozedura hori eteteari buruz ere, prozedura penalaren emaitzaren kontura, jada judizializatutako jarduketan kasuan (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 10.2 artikulua).

223

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Horretarako, administrazio-ebazpenaren lekukotza helarazteko eskatuko dute. Ebazpen horren bidez, prozedura hastea erabaki edo errefusatzeko da, bai eta etetea agintzen ere, zigor-arloko judizio aurreko auzia ebatzi bitartean.

Fiskalek kontu hartuko dute, ikerketari amaiera emateko ebazpena azkar jakinaraz dakion administrazio eskudunari. Horregatik, prozedura penala amaitzea erabakitzen duen ebazpena irmoa denean, berehala jakinaraztea sustatuko dute.

I. Fiskaltzaren eginbideen balioa

59. Irizpide orokorrak

Fiskaltzak gauzatu edo zuzendutako eginbide guztiek benetakotasun presuntzioa izango dute, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 5. artikuluan jasotakoarekin bat.

Salbuespen gisa, Fiskaltzaren ikerketa-eginbideek, Polizia Judizialak prozesuz kanpo egindakoek bezala, osoko bilkurara jo ahal izango dute, eta froga-balioa izan ahalko dute, ahozko epaiketari errepikatzea ezinezkoa denean haien berezko tasuna dela eta; eginbide horiek praktikatzeko, beraz, bakarra eta errepikaezina izango da nahitaez.

J. Fiskaltzaren ebazpenen aurkako errekurtsioak

60. Fiskaltzaren ebazpenen errekurrieztasuna

224

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Fiskalak ikerketa-eginbideak izapidetzen dituen bitartean emandako ebazpenei ezin zaie jarri errekurtsorik. Izaera horrek ez du sortzen defentsa-gabeziarik; izan ere, bere eskubideak urratutzat jotzen dituenak bere uziak errepikatu ahal izango ditu organo judizialen aurrean.

K. Pertsonatzea, komunikazioak, jarduketetarako sarbidea eta datuen babesa

61. Salatzaileak, ofendituak eta kaltetuak pertsonatzeko debekua

Fiskaltzaren ikerketa-eginbideen barruan ezin da pertsonatu salatzailearik, ofenditurik, kalteturik edo beste edozein pertsonarik, nahiz eta interes legitimoa izan.

62. Salatzaileei, ofendituei eta kaltetuei informazioa ematea

Ikerketa-eginbideak amaitutakoan, fiskalek salatzaileari, ofendituari eta kaltetuari jakinaraziko diete salaketa edo kereila jarri dela, Prozedura

Kriminalaren Legearen 803. *bis* d) artikuluko zigorra ezartzeko proposamena bidali dela edo eginbideak artxibatu direla, dekretuaren kopia bat entregatuz, eta berariaz adieraziz beren salaketa jurisdikzio-organoetan erreproduzitu dezaketela.

63. Susmagarriari informazioa ematea

225

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 –
Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Ikerketa pertsona susmagarri baten aurka formalki bideratu bada, fiskalak jakinaraziko dio ikerketa-eginbideak amaitu ondoren zer erabaki hartzen duen —dela artxibatzea, dela salaketa edo kereila jartzea—, eta dagokion dokumentuaren kopia entregatuko du, salbu eta azken kasu horretan jarduketan sekretua ezarri bada.

64. Desgaitasuna duten pertsonentzako komunikazioen berezitasunak

Ahalmen juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriak behar dituen desgaitasunen bat duen pertsona bati edozein motatako jakinarazpen, adierazpen edo eginbide bat egin behar zaionean, beharrezkoak diren doikuntzak egingo dira, eta argi, behar bezala eta eskuragarri emango zaio informazioa, haren ezaugarri pertsonaletara eta beharretara egokituta, erabaki bakoitzari lotutako xedea eta ondorioak ezagutu ahal izateko. Beharrezkoa izanez gero, irakurketa errazeko bitartekoak eta komunikaziorako laguntzak erabiliko dira, betiere Prozedura Zibilaren Legearen 7. *bis* artikuluan jasotako moduan (ekainaren 2ko 8/2021 Legeak sartutako idazkeraren arabera). Desgaitasuna duten pertsonak haien aukerako pertsona batekin egon ahal izango dira agintariek eta funtzionarioekin lehen harremana duenetik.

65. Biktimentzako informazioa

Fiskalak ikerketa-eginbideen prozedura zein egoeratan dagoen jakinaraziko die biktimei, azken horiek hala eskatzen dutenean. Fiskalek informazio hori ahoz edo idatziz emango dute, laburpen baten bidez. Laburpen horretan, ikerketa-eginbideen hasiera-data, ikertutako ustezko delituak, ordura arte egindako eginbideak eta ikerketa amaitzeko aurreikusten den data adieraziko dira. Inola ere ez da emango lekukoak eta/edo perituak identifikatzea ahalbidetzen duen daturik. Hala ere, fiskalak susmagarriaren nortasuna jakinarazi ahal izango du, biktimak berariaz hala eskatzen bada eta eskaera justifikatutzat jotzen bada.

226

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Fiskalek biktimari informazioa ematearen aurka egin ahal izango dute, baldin eta uste badute horrek prozeduraren garapen egokia kaltetu dezakeela; kasu horretan, eskaera dekretu arrazoitu bidez errefusatu besterik ez dute egingo. Era berean, alde batera utzi ahal izango dituzte haien ustez arrazoi berberengatik erreserbatuta egon behar duten informazioak. Azken kasu horretan, fiskalak dekretu bat emango du informazio hori debekatzeko arrazoiak azaltzeko, eta biktimak ere ez du ebazpen hori eskuratzeko aukerarik izango, erabaki hori hartzea justifikatu zuten arrazoiak desagertzen ez diren bitartean.

66. Biktimak jarduketetara sartzea

Biktimek Fiskaltzaren ikerketa-eginbideen edukia eskuratu ahal izango dute.

Horretarako, aldez aurretik idatzizko eskaera egin behar da ikerketa amaitu ondoren; hau da, amaiera-dekretua eman ondoren, eta, kasuaren arabera, artxibatu edo organo judizial eskudunari berriz bidali ondoren, salaketa edo kereila jarri ondoren edo Prozedura Kriminalaren Legearen 803. *bis* d) artikuluko zigorra ezartzeko proposamena bidali ondoren. Dena den, ikerketa amaitu ondoren ere, espedienterako sarbidea baztertu egin beharko da,

kausaren garapen egokiari kalte egin diezaiokeenean.

Biktimek jarduketan kopia sinpleak edo horien lekukotzak lortu ahal izango dituzte. Kopia edo lekukotzak eskuratzeko, dagokion jasotze-eginbidea egin beharko da. Eginbide horretan, kopia zein egunetan entregatu diren eta kopia jasotzen dituen pertsonaren eta lekukotzak ematen dituen funtzionarioaren nortasuna adierazi beharko dira. Kopia horiek formatu digitalean edo fisikoan egin ahal izango dira —fiskalak aukeratuko du—.

227

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Prozedura judicial bat hasi ondoren, fiskalek ikerketa-eginbideetara sartzeko eskaerak ukatuko dituzte, eta eskatzailea dagokion prozeduraz arduratzen den organo judicialera bidaliko dute.

67. Hirugarrenak jarduketetara sartzea

Susmagarria eta biktima alde batera utzita, ez zaie jarduketetara sartzen utziko interes legitimoa dutela adierazten edo egiaztatzen dutenei.

Hala ere, ezerk ez du eragozten ikerketa-eginbideetan jasotzen diren datuak eskuratzeko interes legitimoa aipatzen duenak, ordenamendu juridikoak aitortzen dizkion eskubideak egikaritzeko, organo judicial edo administratiboei —hots, dagozkien demanda edo erreklamazioez arduratzeko ardura dutenei— eskatu ahal izatea Fiskaltzari eska diezazkiotela beren ikerketa-eginbideen lekukotzak.

68. Datu pertsonalen tratamendua: Polizia Judizialari emandako jarraibideak

Fiskal nagusiek eta fiskalburuek jarraibide egokiak emango dizkiote Polizia

Judizialari, polizia-eginbideetan ez sartzeko biktimen, susmagarrien, lekukoen eta perituen helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa, nortasun-agiria, helbide profesionala edo antzeko beste edozein datu pertsonal.

Ahal den neurrian, izaera pertsonaleko datu horiek aparteko dokumentu edo artxibo batean jaso beharko dira, eta, han, polizia-eginbideetan aipatzen diren biktimak, auzipetuak, lekukoak eta perituak zerrendatuko dira, beharrezkotzat joz gero zitazioa egin ahal izateko.

228

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Zerrenda hori polizia-atestatuarekin batera aurkeztu beharko da, gutun-azal itxian, edo, digitalki bidaliz gero, aparteko artxibo batean, eta Fiskaltzak bakarrik izango du horretarako sarbidea. Fiskalak datu horiek behar bezala zaintzeaz arduratuko dira, eta susmagarriari eta/edo haren abokatu ordezkariari datuak eskuratzea eragotziko diote, bai eta beste edozein pertsonari ere, prozeduran interes legitimoa dutela egiazta badezakete ere.

Arrazoi teknikoak direla-eta Polizia Judizialeko unitateek ezin badituzte neurri horiek berehala bete, pixkanaka ezartzen saiatuko dira.

Susmagarriaren defentsa-eskubidea bermatze aldera, datu pertsonalen bat eskuratzeko aukera ematea komeni dela ohartuz gero, Polizia Judizialak jasotze-eginbide bat egingo du, eta, han, Polizia Judizialari jakinarazi zaion datu zehatza ez ezik datu hori ematea justifikatzen duten arrazoiak ere adieraziko ditu. Datu jakin bat edo batzuk ezagutu beharrak ez du justifikatuko gainerako datu pertsonaletarako sarbidea, baldin eta datu horien berri izatea ez bada beharrezkoa susmagarriaren defentsa-eskubidea benetan gauzatzen dela bermatzeko.

69. Datu pertsonalen tratamendua: ikerketa-eginbideetan jarduteko irizpideak

Ikerketa-eginbideak izapidetzean, fiskalek kontu hartuko dute biktimen, auzipetuen, lekukoen eta perituen datu pertsonalak ez sartzeko. Datu horiek dokumentu erantsi batean jaso beharko dira. Dokumentu hori eginbideei erantsiko zaie gutun-azal itxian edo aparteko artxibo batean, espediente digitalaren kasuan, eta alderdiek ezingo dute eskuratu.

229

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Salaketa edo kereila jarriz gero, edo Prozedura Kriminalaren Legearen 803. *bis* d) artikuluan aurreikusitako moduan zigorra ezartzeko proposamena eginez gero, agiri horiek organo judizialera bidali beharko dira alderdiek edukia eskuratu ezin dutela bermatzeko moduan, organo judizialak kontrakoa xedatzen ez duen bitartean. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. *quinquies* artikuluaaren bigarren apartatuaren bat etorriz, salaketa edo kereila aurkeztean, fiskalek datu pertsonalen izaera erreserbatua mantentzeko eskatuko diote salaketa edo kereila zuzentzen duen organo judizialari, alderdiei sarbidea eragotziz.

Susmagarria ohartzen bada komenigarria dela datu pertsonalen bat eskuratzea bere defentsa-eskubidea bermatzeko, ikerketaren ardura duen fiskalak dekretu arrazoitu bat emango du, hori justifikatzen duten arrazoiak azalduz.

70. Datuen babesa

Ikerketa-eginbideak izapidetzen diren bitartean ematen diren dekretuetan, ahal den neurrian, mugatu egingo dira planteatutako gaiari buruz erabakitzeko edo ebazteko beharrezkoak ez diren datu pertsonalak. Era berean, saihestekoa izango da salaketa-idazkien kopia osoa helaraztea, baldin eta gainerako alderdiek edo horietan esku hartzen duten beste batzuek ezagutu behar ez dituzten datu pertsonalak badituzte.

L. Fiskalen laguntzak

71. Jarduteko jarraibideak

Ikerketa-eginbideak izapidetzen diren bitartean, fiskalek beste fiskaltza baten laguntza eskatu ahal izango dute, haren lurraldean eginbide jakin bat egin behar bada edo eginbide horiek zuzenean agindu behar bazaizkie eginbideak egin behar diren lurraldeko polizia-unitateei.

230

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Laguntza ematen duen fiskaltzak ikerketa zuzentzen duen fiskalak eskuordetuta gauzatuko ditu jarduketak. Horregatik, ez da beharrezkoa izango ikerketa-eginbide berriak abiaraztea; aitzitik, garatutako jarduketa zehatza dokumentatzen duten aktetan nahikoa izango da fiskaltza ikertzaileak esleitutako ikerketa-eginbideen erreferentzia-zenbakia adieraztea, eta jasota uztea jarduketak fiskaltzak eskatutako laguntza fiskalaren arabera egiten direla.

Azaldutako guztiagatik, prozesuz kanpoko jardueran aritzerakoan eta Fiskaltzaren ikerketa-eginbideak izapidetzerakoan irizpide uniformea izate aldera, fiskalek zirkular honetako aginduak beteko dituzte aurrerantzean.

Madril, 2022ko abenduaren 20a
ESTATUKO FISKAL NAGUSIA

231

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril